ASTELEHENEKO
# Goienkaria

2010eko azaroaren 1a > Astelehena > VI. urtea > 296. zenbakia > 1,10 euro

Goiena 10 URTE Komunikazio Zerbitzuak www.goiena.net TOKIKOM

"Politikoak zortzi orduz bulegoan egon ordez, kalean lau egon beharko lukete"



**Imanol Lasa**
Partaidetzarako zuzendaria > 08

**G2a** **Dan Bairden taldearekin, txundituta** > 31

**EZBEHARRA**
**Oñatiko Baltzategi baserriak sua hartu du eta erabat erre da** > 04

**ARRASATE**
**Asteon abiatuko dira 'Kooltur Ostegunak' Gariren saioarekin** > 15

**ESKORIATZA**
**Ibarreko ia 40 txistularik egun handia ospatu zuten domekan** > 30

**FUTBOLA** > OHOREZKOAK

## Galdu egin dute gure talde denek

Kezkagarria da Aloñaren eta Bergararen egoera, azken postuetan > 22

**JENDARTEA** > HEZIKETA

## Amen eta aiten txanda, bihartik aurrera Gurasolandian

Gurasoei zuzendutako formazio eta jolas saioak egongo dira aste osoan Txatxilipurdik antolatuta. Gai askoren gaineko hitzaldiak arratsaldero izango dira eta astebururuan, berriz, saio ludikoagoak egingo dituzte umeekin batera. > 11

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-26
**Gurasoak** > 27
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Denborapasa** > 36
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39
**Eskelak** > 39



**OMENEZKO DANTZA** Ohitura da mezatik irteterakoan, dantzari gaztetxoek nagusienendako dantza egitea. JOSETXO ARANTZABAL

**ARAMAIO** > ERRETIRATUEN EGUNA

# Herriko nagusiak omentzeaz bat, azoka jai egun paregabea

**AZOKA** Bertako eta kanpoko produktu asko izan ziren ikusgai eta salgai azokan; salmentak baxuak izan ziren

**NAGUSIENAK** 140 erretiratuk bazkaria izan zuten; omenaldia jasotzeaz gain, sariak banatu zituzten

**ARTZAIN TXAKURRAK** Berreskuratutako txapelketa Enrike Mendigurenek eta *Riki*-k irabazi zuten > 12




Ikurrinaren bultzatzaile Elkoro gogoan izan zuten, dantza eginez. J.ARANTZABAL

**POLITIKA** > OSPAKIZUNA

## Elkoro etxean dela ospatu zuten

Jose Luis Elkoro etxean dago, kolore askotako herritarrei esker. Hori ospatzeko hainbat ekitaldi izan zituzten atzo Bergaran: bertsoak, dantza, Udal Banda, bazkaria eta beste. Abenduaren 16rako batzarra deitu du plataformak.

Goiena kluba



Iritsi dira urriko opariak!
Badago zuretako?
Zoaz 3. orrialdera



Txertoa emateko kanpainan uste baino jende gutxiagok hartu du parte. LANDER MUÑAGORRI



Farmazietan ere sentsibilizazio kanpaina egin dute gripearen aurka.

**OSASUNA** > GRIPEAREN AURKAKO TXERTOA EMATEKO KANPAINA

# Gripe denboraldiak eragin apala izango du Debagoienean

**TXERTOA** Uste baino jende gutxiagok hartu duenez, txertatze kanpaina azaroaren 27ra arte izango da

**A GRIPEA** Hego hemisferioan negua amaitu berri da, eta H1N1 birusak ez du apenas eraginik izan bertan

**URTAROKO GRIPEA** Ohiko gripeak eragin apala izatea aurreikusten da, nahiz eta aldakorra izan daitekeen

**LANDER MUÑAGORRI** > DEBAGOIENA

Udazkeneko lehen hostoak erortzen hastearekin batera, gripeak une hori aprobetxatzen du gizartean zehar zabaltzeko. Eragin handiagoa edo eskasagoa eduki dezake, gripeak eduki dezakeen garapena aurreikustea zaila baita. Eta haren eraginak zeintzuk izango diren espekulatzen baldin bada ere, ezin da sekula ezer ziurtzat hartu, birusa bizirik baitago eta mutatzeko aukerak ere baitauzka.

Joan den urteko neguan, esaterako, ez zegoen gripea aipatzen ez zen kaleko elkarrizketarik. Izan ere, iaz A gripearen edo H1N1 birusaren urtea izan zen. Hedabideetako egunerokoa zen gaixotasun hori, eta sekulako alarma piztu zuen birusak gizartean. Horrenbestekoa, Osasunerako Mundu Erakundeak 2009ko ekainean garapen bideko pandemia izendatu zuen H1N1 birusa. Gaur egun, hala ere, inork ez du A gripea aipatzen, nahiz eta oraindik ere erabat ez den desagertu. Horretaz gain, gripearen 2010-2011 denboraldian H1N1 birusak kutsatzen jarraituko du, baina,

**A gripearen aurkako txertoak izan ditzakeen ondorioek zalantza sortu dute gizartean, eta txerto gutxiago jarri dira**

**AEBetako Osasuneko Institutu Nazionalak dioenez, A gripeak heriotz gutxiago eragingo ditu eta desagertzear dago**

oraingo honetan, gripearen beste birusekin batera etorriko da. Iaz, hala ere, gurean apenas izan zuen eraginik, eta aurten ere ez da eragin handirik espero.

Hego hemisferioan negua amaitu berri da, eta urtaro honetan hegoaldeko herrialdeetan gripeak izan duen garapenaren inguruko datuak hartzen dira ipar hemisferioan gertatuko dena aurreikusteko. Hego Amerikan epidemia ez da aurreko urtean baino handiagoa izan, eta beste hiru birusekin egon da elkarbizitzen. Ozeanian, bestalde, H1N1 birusak indar handiagoa eduki du, baina, hala ere, ez du joan den urtean bezainbesteko minik sorrarazi. Horregatik, A gripearen epidemiak urtaroko gripe batek besteko eragina izango duela jakinarazi dute, eta ez da horren erasokorra izango, dagoeneko ezagutzen dugulako.

Hegoaldeko datu horiek eredu moduan hartuta, aurten jarri diren –eta jartzen jarraitzen duten– txertoek, H1N1 birusaren aurkako konposizioa izateaz gain, gripe birus berrien aurkakoak ere izango dituzte.

"A gripea joan den urtean berrikuntza izan zen, eta horregatik erasokorragoa izan zen. Dagoeneko birusa ezagutzen da, eta, haren agerraldia beti ezberdina izan daitekeen arren, ez da iazkoaren parekoa izango", azaltzen du Gabriel Elorriaga Arrasateko anbulatorioko unitateburuak.

Ameriketako Estatu Batuetako (AEB) Osasuneko Institutu Nazionalak ere aurreikuspen positiboak egin ditu pandemiaren ondorengo lehen urtean. Kaleratu duten ikerketa baten arabera, gripearen birusak beti harri gaitzakeen arren, H1N1 birusak heriotz gutxiago sor ditzake mundu mailan. Eta, gainera, desagertzera ere irits daitekeela esan dute.

Joan den urtean, A gripea zela- eta, urtaroko gripearen inguruan apenas hitz egin zen. Eta ez zen aipamenik egiteko modukoa izan ezta ere: "Nik neuk gripea gutxien ikusi nuen urtea izan zen", azaltzen du Gabriel Elorriaga medikuak.

Gainerakoan, Arrasateko anbulatorioko buruak adierazi digunaren arabera, ez da aparteko ezer espero 2010-2011 gripe denboraldirako. Gripeak ez du aparteko presentzia nabarmenik eduki hego hemisferioan, eta Debagoienean ere antzeko zerbati gertatuko dela aurreikus daiteke.

**TXERTATZE KANPAINA**

Gripeak arrisku eskasa sortzen du kasurik gehienetan. Baina, hala eta guztiz ere, gaixotasun horren aurrean ahulagoa den arrisku talde bat badago. Horregatik, 65 urtetik gorako pertsonek, diabetikoek eta gaixo kronikoek gripearen aurkako txertoa hartu behar dute negu sasoia inguratzen hastearekin batera.

Aurten Osakidetzak txertatze kanpaina irailaren 20an zabaldu zuen, eta atzo arte egon da zabalik ofizialki. Hala eta guztiz ere, txertatze kanpaina aste batzuk





L.M.



Kanpaina anbulatorio eta osasun etxeetan eraman dute aurrera. L.M.

luzatzea erabaki du Osakidetzak: azaroaren 27ra arte, hain zuzen ere. Arrazoien artean aurtengo txertatze tasa txikia azpimarratu du Edurne Marañon Arrasateko anbulatorioko erizainen arduradunak. "A gripearen txertoarekin beldur handia zabaldu da herritarren artean. Esaten zen ondorio kolateralak zituela txerto horrek, eta horrek aurtengo txertatze kanpainan zuzenean eragin du", azaltzen du Marañonek. Hala ere, aditzera ematen duenez, ondorio kolateral horiek gezurtatuta geratu dira.

Era horretan, iazko txertatze kanpainatik %10 jaitsi da hartu dutenen kopurua, "baina 2009ko txertatze kanpaina ez da aurtengoarekin konparagarri", azaltzen du Edurne Marañonek. Izan ere, iaz A gripearen beldurra zela-eta txertatzea asko igo zen eta normalean baino jende gehiagok hartu zuen txertoa. "Konparazioa egitekotan, 2008ko urtearekin egin beharko litzateke, hura urte normala izan zelako txertatzeari dagokionez", zehazten du. 2008. urteko datuak urriaren 22ra arte hartutako datuekin alderatuz gero, aurten txertatzea %3 txikiagoa izan dela jakinarazi du Arrasateko anbulatorioko erizainen arduradunak.

Hori dela-eta, A gripeak txertatze kanpainari dagokionez, gorabehera ugari sorrarazi ditu bi urtean. Eta ezegonkortasun hori konpontze aldera luzatu dute kanpaina.

**BELDURRAK AHAZTU**

Osakidetzaren aldetik, bestetik, lasaitasun mezua ere bidali nahi izan dute. "Badago gizarteko esparru bat, behin txertoa hartu eta ondoren katarro bat ateraz gero pentsatzen duena txertoaren errua dela, eta horrek ez dauka inongo zerikusirik", adierazten du Gabriel Elorriagak. Eta pertsona horiei berriz ere txertoa jartzea oso zaila dela zehazten du. Izan ere, txertatze kanpainak katarro garaiarekin bat egiten du eta horrek nahasmen ugari sorrarazten ditu.

### Gabriel Elorriaga > Arrasateko anbulatorioa

## "Gripearen eragina zein izango den aurreikustea ezinezkoa da"

L.M. > BERGARA

**Arrasateko anbulatorioan dabil Gabriel Elorriaga mediku bilbotarra. Bertan 3 urte daramatza, eta aurretik Aramaion 6 egin ditu eta Eskoriatzan 25. Denbora horretan guztian, iaz izan zen gripea gutxien ikusi zuen urtea.**


L.M.

**Gripea gutxien ikusi zenuen urtea iazkoa izan zela diozu. Zergatik izan daiteke?**

Hori ezin daiteke esan, gripeak urte bakoitzeko nola erantzungo duen jakitea ezinezkoa baita. Aurreikuspen bat egin daiteke, baina gehiagorik ez. Eta zergatik izan zen iaz gutxiago? Horri ere ezin zaio zehatz erantzun, urte batetik bestera gorabehera handiak gerta baitaitezke.

**Txertoa hartzearen ondorio agian?**

Ez dut uste. Azken finean, gorputzak birusa ezagutzen du eta horren aurka defentsak garatzen ditu. Joan den urtean, gainera, uste baino jende gutxiagok hartu zuen txertoa EAEn...

**Orain arte nola doa 2010-2011 denboraldia?**

Bada, oraindik ez dugu apenas ezer ikusi. Kontuan hartu behar da ipar hemisferioan gripeak abendu eta urtarril artean izaten duela eraginik handiena.

**Zein gomendio emango zenituzke gripeari aurre egiteko?**

A gripearekin eman ziren gomendioak gogoratuko nituzke; era berean, beti eman izan diren berberak direla kontuan hartuta: ahalik eta garbien mantendu, eskuak garbitu eta paperezko mukizapiak erabili. Bestetik, tratamendu sintomatiko bat egin behar baldin bada, analgesikoak hartu edo sukar edo eztularentzako medikamentuak hartu. Horretaz gain, beti esaten den moduan, likido asko hartzea ere gomendatzen zaio gripea duen gaixoari.

**Betiko zalantzetako bat da gripea nola bereiztu behar den katarro arrunt batetik. Zein bereizgarri ditu gripeak?**

Arnas sistemarekin dugun edozein infekziori gripe deitzeko ohitura daukagu, nahiz eta katarro soil bat izan daitekeen. Kasu horietan eztula, eztul lehorra, eztarriko mina, mukiak eta, kasuren baten, sukarra ere edukitzera irits daiteke katarro bat. Gripearen sintomak antzekoak izan daitezkeen arren, ez dira berdinak izaten, ordea. Ondoez orokorra senti dezakegu gripea baldin badaukagu; sukar altua ere eduki ohi du gaixoak, 39 eta 40 graduraino irits daitekeena; muskuluetako min gogorrak, eztul lehorra, eztarriko mina, beherakoa kasuren baten... Horiek dira orokorrean gripeak izan ditzakeen sintoma nagusiak. Kasu horietan, medikuarengana joatea da onena.

**"Garbitasuna, tratamendu sintomatikoa egin eta likido asko hartzea da onena"**

**"Oraindik ez da apenas griperik ikusi, abendu eta urtarrilean izaten du eragin handiena"**

Abantailaz betetako kluba!
Goiena kluba
URRIKO IRABAZLEAK
Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro

EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA
Euskal selekzioko zira
EKFB Euskal Selekzioa
IRABAZLEA
Jesus Belamendia Agirre
Elgeta

ESAIT-EKO KAMISETA GORRIA
Esait-eko kamiseta gorria
esait
IRABAZLEA
Bittor Bengoa Altuna
Zarautz

DANBAKAKO PACKA
Esait-eko Euskal Herria mallota
DANBAKA
IRABAZLEA
Iñaki Gantxegi Bergara
Bergara

UMEENTZAKO LIBURUA
Umeentzeko Katalina liburua.
PAMIELA argitaletxea
IRABAZLEA
Luis Elexpuru Unzueta
Aramaio

SARI NAGUSIAREN IRABAZLEA
WII SPORTS RESORT PACK TXURIA
Xabi Etxaniz Acedo
Bergara
Ukabi informatika
Domingo Irala z/g (Ariznoa aurrean)
BERGARA Tel.: 943 76 51 95

**POLITIKA** > OMENALDIA

# Elefantea mugitu izana ospatu zuten Bergaran kolore askotako herritarrek



Pilotalekuan egindako herri bazkari erraldoiaren ostean, aurreskua dantzatu zuten Jose Luis Elkororen omenez. J.ARANTZABAL

ZER BALORAZIO EGITEN DUZU LORTUTAKOAZ?



**Imanol Bolinaga**
Alkate ohia (EAJ)

"Egun ederra da. Jose Luis etxean, oso pozik, zoriontsu eta borondate onarekin aurkitzen da, aurrera begira. Helburu honetarako elkartu bagara, beste batzuetarako zergatik ez, da nire galdera".



**Jose Luis Loidi**
Jose Luis Elkoro Libre! plataforma

"Guztion ospakizuna dela ikusi da eta ikusi da kolore guztietako jendea batu dela. Gure aldarria, baina, erabat libre izatea da eta orain erabaki beharko du plataformak zer egin".



**Enara Minguez**
Zinegotzia (Ezker abertzalea)

"Herriaren zati handi bat batu da eta Jose Luis etxean da. Balorazioa, hortaz positiboa. Euskal Herriaren alde lan asko egindakoa da bera eta horren isla ere bada hemen batutako jende guztia".

Jose Luis Elkoro etxean dago, herritar askoren ahaleginari esker; hori ospatu zuten Bergaran atzo. Hala ere, alkate ohia ez da erabat aske eta hori gogoan dute

**IKER BARANDIARAN** > BERGARA

Jose Luis Elkoro askatu dutela ospatzeko eta herritarrei egin duten lana eskertzeko eguna izan zen atzokoa Bergaran. Izan ere, Jose Luis Elkoro libre! plataformak hainbat ekitaldi antolatu zituen.

Ekitaldiak hasi bezain laster, jakinarazi zuten Jose Luisek ez zuela parte hartuko, galarazita duelako, baina bera izan zen eguneko protagonista; ezin beste modu baten izan.

**'ELEFANTEA MUGITU, ELKARTUZ'**

Eguerdian herriko plazan herritar ugari batu eta plataformako kideen hitzak batzeaz gain, Asier, Ainhoa eta 'Kaxeta' bertsotan aritu ziren, herriko hainbat neskek *Ikurrin dantza* egin zuten eta Udal Bandak bi pieza interpretatu zituen; *Ibiliko gara* eta *Pobres y alegres*, azken hori jaiei hasiera ematen diena.

Plataformako ordezkariak oso pozik agertu ziren lortutakoagatik eta herritarrak batuz lortu daitekeena goraipatu zuten: "Elefanteak mugi daitezke denok elkartzen bagara", baina era berean gogoratu zuten Elkorok oraindik pultsera daramala eta ez dela guztiz aske. Hala, honako hau azpimarratu zuten: "Bera libre ikusi arte, ezin gara bigundu".

Udal Bandari jarraituta, herritar ugarik kalejira egin zuten eta birritan Elkororen etxe azpitik pasa ziren; horietako baten *San Martin* martxa interpretatu zuten. Jose Luis Elkorok eta emazteak, hunkituta, oztaozta herritarrak agurtu zituzten leihotik.

**ABENDUAREN 16AN, BATZARRA**

Bazkal orduan 400 lagunetik gora batu ziren frontoian eta horren ostean hainbat ordezkarik hartu zuten hitza. Plataformako kideek azaldu zuten, "herritarren berotasunak kartzelako burdinak bigundu" dituela.

EAJko Imanol Bolinaga alkate ohiak gogoratu zuen Bergaran hautetsi izandako %95ak babestu duela helburua, eta kolore askotako herritarrak batzeak duen garrantzia azpimarratu zuen. Alboan Elgetako alkate ohi Patxi Basauri izan zuen.

Ezker Abertzaleko ordezkarien izenean, Arrasateko alkate ohi Xabier Zubizarretak hartu zuen hitza, Ino Galparsoro eta Pedro Lasagabaster alboan zituela. Zubizarretak azpimarratu zuen Elkoro askorentzat "gidaria" dela, eta are gehiago, gidari gutxi bezala, "apala eta umila" ere badela. Haren jardun politiko "nekaezina" eta beti "aurrera begiratzeko gaitasuna ere goraipatu zituen.

Telefonoz jasotako grabazioen bidez, Bergarako preso Jabi Lazkanok eta Jose Miguel Gazteluk omendua eta Bergarako herria zoriondu eta eskertu zituzten, egindako lanagatik. Azkenik, Iñigo Elkorok eskerrak eman zizkien herritarrei.

Bestalde, plataformak abenduaren 16rako deia egin du Migel Altuna eskolan batzeko.

ZER DIO IBAI-ARTEK?

ZER DIO HUHEZIKO DEKANOAK?

> PRESOAK

### Elkarretaratze jendetsuak barikuan, Arrasaten eta Oñatin

Herenegun, egubakoitza, hileko azken ostirala izanda, presoen eskubideen aldeko agerraldia egin zuten Arrasaten. Oraingoan, baina, herriko zenbait elkarte eta taldeez gain, Mondra Futbol taldeak, eskubaloi eta errugbi jokalariek, eta herriko hainbat mendizale, eskalatzaile, atleta eta pilotariek deitu zuten plazan biltzeko.

Bestalde, egun berean Oñatin kontzentrazioa egin zuten torturak salatu dituzten oñatiarrek deituta. Oñatiar horiek kultura etxean euren bizipenak azaldu zituzten joan den astean.



ANDER MONEDERO

### Sutea Oñatiko Baltzategi baserrian

Barrutik erabat kiskali zen Uribarri auzoko Baltzategi baserria egubakoitzean. Kanpoko paretak zutik geratu dira eta akaso hori salbatu ahal izango da, baina osterantzean, esandako moduan, guztiz erre egin da. Ertzaintzak emandako informazioaren arabera, baserriko tximinian piztu zen sua eta baserri osora zabaldu zen.



Patxi Zubizarreta Goiena Telebistako *Magazinea*-n izan zen eguenean. AMAIA TXINTXURRETA

**Patxi Zubizarreta** > ELA sindikatuko metaleko ordezkaria

# "Lehengo baldintzei eusteko borroka izan da metaleko langileek egin dutena"

**L. ZEBERIO/E. MENDIBIL** > ARRASATE

**Negoziazio luzeen ondorioz, Adegi patronalak eta ELA eta LAB sindikatuek metaleko lan ituneko oinarriak finkatu zituzten aurreko astean. Hitzarmen berriaren eta izandako mobilizazioen balorazioa egiteko, Patxi Zubizarreta ELAko ordezkaria izan genuen GOITBko 'Magazinea'-n eguenean.**

**Zein atera da irabazten hitzarmen berriarekin?**

Horrelakoetan ez dago irabazlerik, ezta galtzailerik ere. Guk zera defendatu dugu hasieratik: Adegiren lehen proposamena 30 urteko atzerapausoa zela. Lehengo egoerari eustea lortu dugu, KPIren adineko soldata igoera eta lanaldia mantenduta. Alde horretatik, behintzat, langileak atera dira irabazten.

**Greben kostu gehiegizkoa salatu dute CCOOk eta UGTk.**

Grebak erabateko pisua izan du negoziazioetan eta egin izan ez balira ez genuke lortuko lortutakoa. Langileen borroka klabea izan da hitzarmena lortzeko, eta haien esfortzua zoriondu beharrean gaude. Lehengo baldintzei eusteko borroka izan da, Adegiren proposamena eraso bat izan delako. Eta argi geratu da berriro eraso egiten bagaituzte, langileak borrokarako gertu daudela.

**Sindikatu guztien batasuna ezinezkoa izan da...**

Estatu mailako hitzarmenaren alde daude CCOO eta UGT, eta pentsatzen zuten ELAk ez zuela hitzarmena sinatuko, besteak beste, azken hamar urteotan ez dugulako sinatu. Baina helburuak eta egoera ezberdinak ziren. Garai baten langileendako irabazi gehiago eskatzeko egoeran ginen; gaurko egoera bestelakoa da... Uste dugu langileen erosteko ahalmenari eutsi diogula adostutako hitzarmenarekin. Helburu ezberdinekin, baina beti langileen alde egiten saiatu gara.

> **"CCOO eta UGT sindikatuak estatu mailako hitzarmenaren alde daude"**

**Zein da metalgintzaren egoera Debagoienean?**

Ukituta dagoela esango nuke. Egoera ez da ona eta negua gogorra izango da oraindik. Estatu mailako hitzarmenarekin, gainera, egoerak okerrera egin dezake.

## Bi urtean egongo da indarrean oraingo astean sinatuko duten hitzarmen berria

Bederatzi hilabeteko negoziazioak eta zazpi greba egun egin ostean, Adegik, ELAk eta LABek lortu dute akordioa Gipuzkoako metalgintzarako. Finkatu dituzte metaleko lan ituneko oinarriak, eta oraingo astean sinatuko dute hitzarmena bi urterako. KPIren adinako soldata igoera eta lanaldia mantentzea adostu dute. ELA eta LAB pozik agertu dira, gaur egun metaleko lan hitzarmenean dauden eduki guztiak errespetatzea eta hobekuntza batzuk izatea lortu dutelako. CCOOk eta UGTk, aldiz, hitzarmena edukiz pobrea dela adierazi dute, baina UGTk onespena eman dio, azkenean, akordioari. Greben erruz, lortutakoaren aldean langileen galerak handiak izan direla salatu dute aurretik UGTk eta CCOOk.

**etxeko leihotik**


**Inazio Arregi** > 'zuzen@goiena.com'

# Estatuko aurrekontuen negoziazioak

Estatuko aurrekontuen negoziazioak direla-eta, prentsan irakurri dugu 2011koetan 1,5 milioiko dirulaguntza sartu nahi duela EAJk, Digibat elkarteko telebista kideek emisioak Euskadiko barruti guztietara hedatu ahal izan ditzaten. Digibaten, irakurleak jakin dezan, Tokiko telebisten lizentzien jabeak biltzen dira.

Atentzioa ematen du eskaerak, Bruselak espediente bat zabaldu baitio Espainiari, besteak beste, telebista digitalen hedapena burutzeko tokiko telebista batzuek jasotako dirulaguntzengatik. Telebista batzuei lagundu eta besteei ez, lehiaren aurkakoa omen da.

Beste gai batek kezkatu beharko gintuzke gehiago. EAJ Jaurlaritzako Kultura Sailaren arduradun izan zenean, tokiko telebistentzat lizentziak banatzeko baldintza txalogarriak ezarri zituen euskararen aldetik begiratuta. Lizentzia lortu zuten telebistek euskaraz emititu behar dute eskualdeko euskaldun portzentajean. Ulertzeko, Debagoienean euskaldunen portzentajea %60koa bada, programazioaren %60 euskaraz.

> **"Dirulaguntzak jaso arren, telebista batzuek ez dute euskaraz ezer emitituko"**

Dirulaguntza honetaz baliatuz, Debagoienean emisioa hedatuko duten batzuek ez dute euskaraz ezer emititzen eta ez dute asmorik. Legea betearaztea beste batzuei dagokie, baina ona litzateke EAJk ere dirulaguntza horien truke euskarazko gutxiengoak betetzea exijitzea. Horretan animatu nahi ditut.

**> Urte batzuk ditugunok askotan entzunda daukagu Pedrok hiru bider ukatu zuela Jesus ezagutzen zuenik. Zenbat bider ukatu zuten sozialistek Loiolako prozesuak iraun zuen bitartean ezker abertzalearekin biltzen ari zirela?**

**> Eraikin berria inauguratu du MUk Oñatin. Gaur egun ez da dirulite baten barruti esklusiboa. Duela gutxi, baina, irakasle bat kexu zen gaur unibertsitarioek daukaten prestakuntza mailaz. Dagoeneko intelektual-eliteak ere galdu ote dira?**

**TURISMOA** > OÑATI

# Oñati-Arrikrutz-Oñati autobusak ordutegi berria

Gaur, astelehena, jarriko dute abian autobusen neguko ordutegia

**E.M.** > ARRASATE

Oñati-Arrikrutz-Oñati autobus zerbitzuak ordutegi berria izango du gaurtik aurrera, azaroak 1. Zerbitzuak Arrikrutz-Oñatiko kobetako parkingean geldialdia egiten du. Aukera aproposa, beraz, kobak bisitatzeko, Araotz auzora eta Sandailira joateko edota mendi bueltaren bat egiteko.

**BEDERATZI BIDAIA**

Beraz, gaurtik, Oñatitik irteerak ondoko orduetan dira: 08:30, 09:30, 10:30 (Oñati-Arrikrutz-Arantzazu), 11:30, 12:30, 13:30, 15:30 (Oñati-Arrikrutz-Arantzazu), 16:30 eta 17:30.

Itzulerakoak, Arantzazutik: hauek: 09:00, 10:00, 11:00, 12:00 (Arantzazu-Arrikrutz-Oñati), 13:15, 14:00, 16:00, 17:00 (Arantzazu-Arrikrutz-Oñati) eta 18:00. Argibideak 943 71 89 11 telefonoan.

Abantailaz betetako kluba!

Goiena kluba

# Atera etekina txartelari!




## Abantailak

- Goienkaria astelehenetan eta egubakoitzetan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia: DVD kopiak, CDak, kamisetak, GOIENKARIA-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak... eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat

**Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu.**

## Deskontu bereziak

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

**BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)**
- Laser depilazioa: hanka osoa + izterrondoa **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- **-%20** elikagai-intolerantzia proban.
- **-%10** mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
- **-%10** fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

RENAULT AUTOBERRI

**ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA**
- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa 20 euro.
- Erosketetaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

IKER SUKALDEAK

**ARRASATE/OÑATI**
- Sukalde osoa erosita, etxetresna elektriko bat opari.

Barceló BIDAIAK

**BERGARA/ARRASATE**
- **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).

ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA) AVIA

**ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA)**
**ARRASATE**
- **-%2** gasolindegian erregaia erosita.
- **-%2** dendako produktuetan.

MONDRAGON LINGUA

**ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)**
- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan.

naren FISIOTERAPIA ZENTROA

**ARETXABALETA**
- **-%15** zerbitzu guztietan.

CLINICA DENTAL BERGARA

**CLINICA DENTAL BERGARA**
**BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)**
- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

TXURI-URDIN Donostia

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.

AQUARIUM DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

**DONOSTIA**
- Bi erosi bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

LARRAÑAGA AUTOESKOLA

**BERGARA**
- **-%15** inskripzioa ordaintzean.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

**Enpresendako: Zure enpresa Goiena Klubean eskaini nahi baduzu jarri gurekin harremanetan.**

**Telefonoa: 943 25 05 05 | Posta-e: *kluba@goiena.com***




Oier Kaltzakorta, Alaitz Zabala eta Nagore Perez de Goldarazena, MUko Josu Galartzarekin (ezkerrean) eta Oronako Miguel Encaborekin (eskuman). ANDER MONEDERO

**HEZKUNTZA** > I. GET UP LEHIAKETA

# Goi mailako ingeniaritzako hiru ikasle saritu dituzte

MUko Alaitz Zabala, Oier Kaltzakorta eta Nagore Perez de Goldarazena dira Get Up lehiaketako sarituak

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Goi mailako ingeniaritzako azken kurtsoko ikasleak ikerkuntzara bultzatzeko asmoarekin, Mondragon Unibertsitateak eta Orona enpresak Get Up lehiaketa sortu dute. Alaitz Zabala, Oier Kaltzakorta eta Nagore Perez de Goldarazena dira lehen edizioko sarituak. Sari banaketa ekitaldia egin zuten egubakoitzean. Zabalak eskuratu du lehen saria (1.500 euro), igogailutan aplikatu ahal izateko, higaduraren simulazio-ereduak zilindroa/planoa sistema batean garatzeko egindako lanagatik. Bigarren eta hirugarren sariak (750 euro) *ex aequo* jaso zuten Kaltzakortak eta Perez de Goldarazenak. MUko Goi Eskola Politeknikoko Josu Galartzak eta Oronako Elevation Innovation Centreko (EIC) Miguel Encabok aurkeztu zuten egubakoitzeko ekitaldia.

**PRESTAKUNTZA ETA BERRIKUNTZA**

Encabok eta Galartzak bi erakundeek ikasleen prestakuntzan eta berrikuntzan hartutako konpromisoa nabarmendu zuten. Era berean, ikasleen parte-hartzea eta aurkeztutako proiektuen maila handia goraipatu zuten. 17 lan aurkeztu dira lehiaketara eta proiektuak garatzeko orduan ikasleek kontuan izan dute ingurunea, merkatua eta proiektuaren iraunkortasuna.

Ikerkuntza bultzatzeaz gain, hiri-mugikortasunaren eta irisgarritasunaren arloetako berrikuntzak uztartzen dituzten karrera-amaierako proiektuak saritzeko helburua du Oronaren eta MUren ekimenak.

DATUA

**17**

**PROIEKTU**

17 lan jaso dituzte Get Up lehiaketaren lehenbiziko edizioan. Lehen saria Alaitz Zabalak eskuratu du igogailutan aplikatu ahal izateko higaduraren simulazio ereduak zilindroa/planoa sistema batean garatzeko egindako lanagatik.

**GARRAIO**

## Zumarraga eta Eibar arteko trenbidea aztergai

Proiektuaren bideragarritasuna aztertuko dute

**E.M.** > BERGARA

Jaurlaritzako Garraio saila Eibar eta Zumarraga arteko trenbide sarea berriro martxan jartzeko aukera aztertzen ari da eta egitasmoaren bideragarritasuna aztertzeko proiektua agindu berri dio Sener enpresari, 297.500 eurotan. 12 hilabeteko epea izango du proiektua lantzeko. Egitasmoaren arabera, Eibarko Euskotren trenbideak bat egingo luke Renfekoarekin Zumarragan. Jaurlaritzak azpimarratu duenez, hausnarketa epe luzera begira egingo dute, Gipuzkoan, Donostialdeako Metroak eta Ermua-Eibar-Elgoibar ardatzak lehentasuna dutelako.

**1974TIK TRENBIDERIK GABE**

Debagoieneko garraioa hobetu asmoz, ibarra trenbidearen bitartez lotzeko aukera ere aztertuko dute. Tranbiaren proiektua badirudi baztertuta dagoela azkenaldian, nahiz eta Jaurlaritzatik “azterketa sasoian” dagoela adierazi duten. Trenbideari dagokionez, Bergara eta Gasteiz artekoa 1967an kendu zuten, Bergara-Oñati artekoa ere urte berean, eta 1974an Maltzaga eta Zumarraga artekoa.



JONE INUNTZIAGA

**Aramaio-Arrasate errepideko zubirako lehen habea apurtuta**

Aurreko astelehenean Arlabango mendatean istripua izan zuen kamioiak Arrasate-Aramaio errepidea berritzeko proiektuak aurreikusten duen zubia egiteko habea zeraman. Istripuaren ondorioz, apurtuta geratu zen eta berri bat egin beharko dute orain; ikusteko dago horrek lanen bukaera datan eraginik izango duen edo ez. Lau habe izango ditu erreka gurutzatuko duen zubiak. Horietan lehena eta handiena zen apurtu dena. Berri bat egin beharko dute orain; aurrekoa Zaragozan egin zuten.

**DEBAGOIENA** > ERREPIDEAK

## Neguko bide zaintza neurriak abian jarriko ditu Diputazioak gaur

Elurrari aurre egiteko bederatzi ekipo aurreikusi dituzte Debagoienerako

**E.M.** > BERGARA

Gipuzkoako Diputazioak jakitera eman duenez, neguko bidezaintza dispositiboa prest egongo da azarotik apirilera bitarteko hilabeteetan, eta izotz eta elur-ekaitzen alarmak deklaratzen direnean aktibatuko dute. Gipuzkoak nabarmen indartu du neguko bidezaintza dispositiboa azken urteotan: 2004an, esaterako, 38 elur-kentzeko makina ziren eta gaur egun. aldiz, 66.

**GATZA ELURRARI AURRE EGITEKO**

Hogeita hamar silo baino gehiagotan 6.000 tona gatz biltzen dira eta galtzaden gainean pilatutako elurra eta izotza urtzeko erabiliko dituzte. Debagoienari dagokionez, AP-1 autobidean gatz siloak Zaldumendin eta Eskoriatzan (bina) izango dira eta gatz biltegia Bergaran, Oxinalden (1.200 tona). Elorregin beste biltegi bat izango da eta elurrari aurre egiteko bederatzi ekipo (horietatik lau Deskargan) aurreikusi dituzte. Azken urteotako alerta egun gehien izan ziren 2009-2010 denboraldian: 58 egun.

Gipuzkoan hiritarren partaidetza sustatzea garrantzitsua iruditzen zaio Diputazioari. Herri txiki eta ertainak eredutzat hartzen ditu Imanol Lasak, kontseilu bidez batuta erabakiak hartzen dituztelako. Helburu horrekin, arau foral bat ere atera berri dute, proiektu handiak egituratzeko. Herritarren partaidetzarako kanalak egituratzen jarduten dute bien bitartean.

**Imanol Lasa** > Partaidetzarako bulegoko zuzendaria

# "Politikoak zortzi orduz bulegoan egon ordez, kalean lau egon beharko lukete"

**LANDER MUÑAGORRI** > OÑATI

**Imanol Lasa Herritarren partaidetzarako bulegoko zuzendaria da, eta departamentu horren ardura duen heinean herriz herri dabil *Gipuzkoa Eraikitzen* ekimenaren inguruko xehetasunen berri ematen. Lan horretan dabil urriaren hasieratik, eta iragan den eguaztenean Oñatiko Txantxiku ikastolan egon zen Batxilergoko 2. urteko ikasleei ekimen berritzaile honen inguruko berri ematen.**

**Zergatik jarri duzue abian *Gipuzkoa Eraikitzen* ekimena?**

Legealdia hasi genuenean, Gipuzkoako Foru Aldundiak ikerketa batzuk egin zituen gipuzkoarren kultura politikoa zein zen jakiteko. Azterketa horren emaitzetan argi eta garbi geratu zen datu bat: erakunde eta herritarren arteko distantzia oso handia dela. Politikoak eta erakundeak oso urrun ikusten dituzte herritarrek, eta jakinda demokrazia batean zein garrantzia duten alderdi politiko eta erakundeek, garbi geratu zen kudeaketa planean distantzia hori murriztu beharra zegoela.

**Zergatik iruditzen zaizu dagoela horrelako aldea herritar eta botere politikoen artean?**

Batzuetan ikusi dugu politikoek eta erakundeek proiektuak onartzerako garaian ez dutela herritarren parte-hartzea kontuan hartzen. Hori dela-eta, politika egiteko beste modu bat martxan jarri behar dela ondorioztatu dugu. Herritarrak parte hartzea eskatzen du, eta horretarako kanal berriak zabaldu behar dira. Horretan eredu dira herri txiki eta ertainak, kontseilu bidez nola antolatzen diren ikusita... Orain guk asmatu behar duguna da eredu hori nola eraman goi mailako politikara. Eta horretarako kanalak zabaldu behar dira. Era honetako ekimen gehiago egin behar ditugu, eta agian aurrerantzean politikoak bulegoan zortzi ordu igaro beharrean, lau ordu igaro beharko ditu, eta gainerako denbora herritarrekin kontaktuan egon beharko du.

**Eta herritarren partaidetza hori bultzatzeko zein ekimen jarri dituzue martxan?**

Alde batetik *Gipuzkoako Foru Aldundia zure herrian* ekimena antolatu dugu; hau da, Markel Olano diputatu nagusia eta Aldundiko bozeramailea herriz herri dabiltza Diputazioaren kudeaketa zertan den azaltzen. Baina kontuan hartu behar da Gipuzkoan herri asko daudela, denetara 88, eta guztietara bisita egitea ia ezinezkoa izango zen. Hori dela-eta, bigarren ekintza bati ekin diogu, eta hori da gaur azaltzera etorri naizen *Gipuzkoa Eraikitzen*.

**Beraz kudeaketa plana herritarrei helarazteko beste bide bat da hau?**

Halaxe da, bai. Diputatuak eta departamentuetako zuzendariak garenok Diputazioak egiten duena azaltzen ari gara. Eta horrek bigarren garrantzi bat ere badauka. Guk 2007an aurkeztu genuen kudeaketa plana, hau da, 2011 urtera arte betetzeko ze asmo dauzkagun biltzen zuen proposamenak bildu genituen bertan. Epe hau amaitzerakoan, memoria lan bat aurkeztuko dugu, egin duguna eta egin ez dugunaren inguruan azterketa bat eginez. Egindakoa herritarrei aurkezten ari gara, baina guk jaso nahi ditugunak iradokizunak eta kritikak dira.

**Partaidetza honen adibideren bat?**

Lau urte hauetan Gipuzkoako 40 herritan jarri ditugu parte-hartze prozesuak. Zarautzen turismo kontseilu bat egin da, eta Ataunen kiroldegi berria egiteko jendearen iritzia eskatu zen. Lehen zinegotziek egiten zuten lan hori eta orain herritarrek dute aukera lan hori egiteko. Hori guztia, hala ere, estrukturatu egin behar da, 10 herritarrek ezin baitute herri guztia ordezkatu, baina elkarte ezberdinek agian bai. Horregatik gu ari gara bulegotik parte hartze hori nola estrukturatzen diseinatzen, bidea edo kanala zein den zehazten. Horretarako, gainera, arau foral bat onartu genuen, hemendik aurrera egin behar diren proiektu erraldoiak nola egituratu behar diren zehazteko.

**Orain arte egindako bisitaldien zein balorazio egiten duzue?**

Oraindik balorazioak jasotzen ari gara. 2007-2011 kudeaketa planean 500 ekimen baino gehiago zeuden jasota, baina 2007 hartan zegoen errealitatea eta gaur egungoa ezberdinak dira erabat. Tartean krisi ekonomiko bat etorri zaigu gainera, eta horregatik proiektu batzuk ezin izan ditugu aurrera eraman. Horrek zer suposatzen duen? Bailaraz bailara lehen aurreikusita ez zeuden proiektu batzuk daudela.

**Eta Debagoienean?**

Bailara honetan 19 enpresei eman zaie laguntza zuzena. Denetara 2.000.000 euro bideratu ditugu 31 proiektu sustatzeko, eta beste milioi bat bideratu dugu MUra.

**Orain arte egindakoen artean bestetik?**

Debagoienean AP-1 bariante berriak zer eragin izan duen ez dago zalantzan jartzerik. Nik uste jendeari azaldu behar zaiola zer egin den eta zer falta den egiteko. Adibidez, Debagoienean Lurraldebusaren arazoa aterako dela ia ziur nago. Azpiegitura teknikoak egin dira, baina mugikortasuna oraindik lantzeko dago.

**Zein espektatiba dituzue?**

Kanalak irekitzea eta gure nahiak jendeak ezagutu ditzala. Ezjakintasunak askotan kritika errazak egitera bultzatzen du jendea, baina ulertu behar dute horren guztiaren atzean logika bat dagoela. Errepideak ez dira edozein momentutan egiten, erraustegailuaren atzean logika bat dago, baita Pasaiako portuaren atzean ere. Ondoren bakoitzak bere lehentasunak izango ditu, baina ulertzea garrantzitsua da, azken finean horrek egiten baitu herria. Gauza jakina da, baita ere, ez dugula dena ongi egingo, baina argi geneukan gure helburua enpresak laguntzea zela, langabezia ez handitzeko. Eta emaitzak hor daude.

**Krisiarekin beste departamentuen diru sarrerak jaitsi egingo ziren...**

Gipuzkoa lurralde oso txikia da, eta gure aberastasuna enpresek sortzen duten lanarekin zerikusi zuzena du. Lehen krisi planerako 100.000.000 jarri genituen, eta aurten ere beste hainbeste jarriko dugu. Horrek, gauza jakina den bezala, beste departamentuei zuzenean eragin die. Jaitsiera horretan badakigu nekazaritzak golpe handia jaso duela, baita euskarak, kulturak, kirolak, ongizateak...

**Eta gazteriak zein garrantzi dauka honetan guztian?**

Gazteak oso garrantzitsuak dira, etorkizuna euren eskutik baitator. Horregatik berebiziko garrantzia eman diegu eurei, eta eurekin hiru topaketa egin ditugu. Kursaalen, Miramonen eta gaurkoa. Zuzenean gazteek proposamenak egin dituzte. Orotara ia 1.000 gazterekin bildu gara elkarteratze hauetan guztietan. Horretaz guztiaz gain, aipatu beharra dago laster barru ikastetxe ezberdinetako gazteen testigantzekin Gipuzkoako bailara ezberdinetako errealitatea ezagutuko dugula. Horretarako ordubeteko pelikula bat eta liburu bat erabili dute.




Imanol Lasa pasa den eguazteneko hitzaldiaren aurretik. LANDER MUÑAGORRI

DEBAGOIENARI LAGUNTZAK

**"19 enpresei eman zaie laguntza zuzena: bi milioi euro, 31 proiektu sustatzeko"**

MUGIKORTASUNA

**"Debagoienean errepideak egin dira, baina mugikortasunean oraindik lana dago"**

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

**LORENZO M. JOOSTEN**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK

**LABORRA ISABEL**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA

**IRIGOIEN VICTOR**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**ASTIAZARAN SOLOZABAL**
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE IRURETA ANE MAITE**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6 behea / 620 12 48 46 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**

**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

**INSTITUTO OPTICO**
Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

## ORTOPEDIA

**ORTO LAGUN**
Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## YOGA

**AREDHANA YOGA ETA GESTALT**

**PSIKOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 23 57 53

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

## kale inkesta

# Egiten al duzu erosketarik Internet bitartez? Fidatzen al zara, ala beldurra ematen dizu?



**Izar Elorza**
Ikaslea
Aramaio

Kontzertuetarako eta partiduetarako sarrerak erosten ditut, eta kamisetak ere bai. Beldur apur bat ematen du datuak-eta Interneten sartzea, baina konfiantza apur bat izan behar da. Erosoa da Internetez erostea.



**Jasone Arrondo**
Langilea
Durango

Ez dut egiten halako erosketarik. Hegazkinerako txartelen bat erosi izan dut bakarrik, besterik ez. Ez dut Interneten ibiltzeko ohiturarik. Nahiago dut ikusi zer erosten dudan, ikustekoa baldin bada behintzat.



**Adela Elejalde**
Langilea
Aramaio

Ez dut ezer erosten Internetez. Inoiz ez dut egin. Nahiago dut dendara joan, ikusi eta probatu. Propio esaten badidate zer edo zer erosteko Interneten aukera ona delako agian egingo dut, baina ez naiz fidatzen.



**Francisco Pacheco**
Langilea
Madril

Beharra dudan dena erosten dut sarean: hegazkinerako txartelak, hotelak hartu, informatikoko gauzak... Erosoa, azkarra eta erabat segurua da Internetez erostea. Eta prezioa ere hobea izaten da gehienetan.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

LEINTZ GATZAGA

**> Ehiztarien beldur basotik dabilela**

Basotik dabilela ehiztarien beldur dela azaltzeko jo du tarte honetara irakurle batek. Ehiztariei kontu apur bat gehiagorekin ibiltzeko esatea gurako luke, asko inguruko mendizaleei arretarik eman barik ibiltzen direlako.

ARRASATE

**> Igogailu berriaren inaugurazioko luncharen harira**

Irakurle batek ez du ulertzen, egubakoitzean inauguratu zuten igogailuaren ekitaldiaren luncharen harira, zelan ostean luncha eman zuten "ordezkari politikoendako eta gutxi batzuendako". Ekitaldi publiko guztietan gauza bera egiten dela badakiela dio irakurleak, "ekitaldi publiko gehienetako kontua" dela, baina "berdin-berdin" iruditzen zaio "lotsagarria denon poltsikotik" hori ere ordaindu beharra, "krisian egon zein ez". "Itxura oso txarra eman eta herritarrenganako begirune falta" moduan ikusten du.

### ZUZENKETA

Aurreko astean, urriaren 25eko Asteleheneko Goienkarian, Kutxak eta UNED-Bergarak elkarlanean Elgetan egin berri duten astronomia ikastaroari buruzko albistean 'astrologia' idatzi genuen 'astronomia' beharrean. Barkatu akatsa.

## usteak uste

**Julen Iriondo**

# Hitz egin, hitz egin, hitz egin

Hitz egitean kalterik ez dagoelako; gauzak konpontzeko berba egitea baino bide aproposagorik ez dagoelako; konpondu badituzte, beste batzuek ere horrela konpondu dituztelako; herri honek merezi duelako; elkarrekin bizi behar dugulako.

Elkarrizketari aukera oro galarazteak zer dakarren badakigulako; beste bideek arazoak behin betiko konpontzeko balio ez dutelako; beste leku batzuetan ikusi dugulako; herri honek gehiegi sufritu duelako; ezin dugulako elkarri mutur joka bizi.

Alderdi sozialistak eta ezker abertzaleak bilera egin dutela-eta, zalaparta? Ukatu egin dute –ukatu egin behar dutelako, oraingoz–; baina bilera hori izango zela espero dut, espero dugu askok, eta gehiago izango direla aurrerantzean. Egunen baten –berandu baino lehen– denok izan gaitezen, eta izan gaitezen nahi duguna.

## zorroztailea



**Larraitz Ugarte**

# Tortura: epaiketak eta agerraldia

"Tortura egitea erabaki politikoa da. Estruktura batek torturari eusten dio, eta osatzen dute -azpimarratu zuten- Barne Sailak, Audientzia Nazionalak, Guardia Zibilak, Polizia Nazionalak, Ertzaintzak eta hedabide handiek. Tortura erabaki politikoa da, eta bukaera ere erabaki politikoa izango da".

Gara > 2010-10-30



Torturak: kolpeak, poltsa, duintasunaren txikitzea, pertsona umiliatu, deuseztea. Psikologikoki ahuldu, informazioa ahal bezain bizkorren, nola edo hala bildu, akusazioak asmatu eta atxilotuari egotzi…Eta euskal herritarrak izu-ikaratu.

Inpunitatea. Iragan astean bi epaiketa izan dira, bata Madrilen, bestea Donostian, bi gorputz polizialen aurka. Batean fiskalak ez du deliturik ikusten eta bestean Capbretongo gertaerek eragindako erotze kolektibo eta salbuespenezko bat baino ez. Eta guardia zibilak epaiketan barrezka, Estatua atzean edukitzeak ematen duen lasaitasunarekin. Eta polizia nazionala gazte independentistak atxilotu eta torturatzen, esanaz bezala, "begira, ze lasai gauden", beste epaile baten aurrean txikituta eta inolako eskubiderik bermatu gabe deklaratzera eramaten dituzten bitartean.

Inpunitatea harrokeria bihurtu da eta Arrasateko lekukoak testigantza faltsua emateagatik erantzun beharko du agian. Antzerki juridiko-mediatiko bat bi kasu hauetan torturak egon diren edo ez aztertzeko. Idoia Mendia Justizia sailburuak zinismo guztiarekin zioen bezala Zuzenbide Estatuak funtzionatzen duenaren erakusgarri. Baina herri honetan denok, Idoia Mendiak barne, dakigu torturatu egiten dela, Igor, Mattin, Maite, egun hauetako gazteak eta orokorrean atxilotu gehienak. Tortura ez da isolatua, ez da polizia batzuen mendekua, estatu erabakia da eta hartara sistematikoa. Tortura ahalbidetzen du legez jarritako inkomunikazioak, zulo ilunetan zer gertatzen den jakin eta frogatzea guztiz zailtzen duenak, Auzitegi Nazionaleko epailearen begirada mespretxagarri eta inpasibleak, Rubalkabaren adierazpenek, alderdi politikoen isiltasunak.

**"Arrasatear batek testigantza emateagatik erantzun beharko du agian"**

**"Denok dakigu torturatzen dela"**

Denok dakigu, bai, hemen torturatu egiten dela eta tortura ez dela zerbait isolatua. Baita Iñaki Subijana Gipuzkoako Auzitegi Probintzialeko epaileak ere. Epaituak zigortzeko potroak izango dituen beste kontu bat da. Halere, Euskal Herriak larunbatean ozen aldarrikatu zuen bere epaia: torturatu bakar bat gehiago ez herri honetan.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Asteburuko erredakzioaren arduraduna** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Julen Iriondo, Jon Berezibar, Jokin Bereziartua, Ander Monedero **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

**Arrasate** > 14 **Bergara** > 16 **Oñati**> 18 **Aretxabaleta** > 19 **Eskoriatza** > 19
**Antzuola** > 20 **Aramaio** > 20 **Elgeta** > 20 **Leintz Gatzaga** > 20



**> ARRASATE**
Astean abiatuko dira 'Kooltur Ostegunak', Garik Gaztetxean egingo duen emanaldiarekin **> 15**




**> BERGARA**
Taxien tarifek ez dute igoerarik izango datorren urtean; hala erabaki du udalbatzak **> 17**



**> OÑATI**
Aloña Mendik prest du mendi hamabostaldia, protagonista eta emanaldi bereziekin **> 18**

decisión

2010-10-30



Iaz Uarkape pilotalekuan eginiko saioaren irudia. TXATXILIPURDI

**ARRASATE** > GURASOTASUNA

# Aiten eta amen txanda, bihartik aurrera Gurasolandian

**FORMAZIOA** Gurasoei zuzendutako formazio eta jolas saioak egongo dira aste osoan zehar Txatxilipurdi elkarteak antolatuta

**EGITARAUA** Hitzaldiak arratsaldero dira Kultur Aten: gurasotasuna, sare sozialak, elikadura... Asteburuan, berriz, saio ludikoagoak umeekin

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

Gurasoen astea izango da bihartik aurrerakoa Arrasaten, hitzaldiekin, tailerrekin, jolasekin... Domekara bitartean gurasotasunaz, sare sozialez, elikaduraz zein psikomotrizitateaz jardun ahalko dute aitaamek bi ardatzen inguruan: euskara eta transmisioa. Formazioak –hitzaldi nahiz tailerrekin– eta aisialdiak –mendi irteera eta jolasekin– bat egingo dute, egitarau zabala geratu dueta Txatxilipurdi elkarteak bigarren urtez antolatu duten Gurasolandian, gurasoen jolas-parkean. Gurasoak protagonista eta eragile, hortaz; eta umeak ohikoena ez zaien paperean egongo dira: laguntzaile.

**ZAINTZA ZERBITZUA**

Aste barruko ekintzak berbaldi eta tailerrek osatuko dituzte, gurasoentzat izango direnak. Seme-alabak Okendoko ludotekako zaintza zerbitzu berezian utzi ahal izango dira ala ekintzaren lekura bertara joanda Txatxilipurdiko langileak arduratuko dira haurrak ludotekara eroateaz. Nabarmentzekoak hitzaldi sortaren barruan bi: bat, elikadurari buruzkoa, Sabrina Patok egingo duena. *Ekolapiko* delako egitasmoaren sustatzaileetako bat da Pato, Biolur erakundeak eskola-jantokietan elikadura ekologiko eta orekatua txertatzeko programakoa. Bigarren aipagarria da Iñaki Kasaresek, makina bat programatan dabilen aitak, eskainiko duena gurasotasunari buruzkoa.

**GURASO 'MIHILUZEAK'**

Asteburuan, bestalde, jolasak hartuko du lekuko hezitzailea eta gurasoek hizkuntzarekin duten trebezia *Mihiluze* lehiaketan, zapatuan, erakutsi beharko dute. Gurasoz osaturiko bikoteen arteko txapelketa izango da eta proba batzutan seme-alabek hartu ahalko dute parte. Mendi irteera ere familia osoarentzako izango da, domekan, eta arratsaldean musika, jolasak eta esku-lanak egiteko aukera egongo da Herriko Plazan. Egitarau osoa eskuineko zutabean.

## Egitaraua, eguna-ordua

**2, martitzena**
**18:30** Hitzaldia: Sare sozialak, Eneko Barberena. Kultur Ateko Jokin Zaitegi aretoan. (*)

**3, eguaztena**
**18:30** Mahai-ingurua: Gurasotasuna. Irene Txurruka eta Iñaki Kasaresekin. Udaletxeko pleno aretoan. (*)

**4, eguena**
**18:30** Hitzaldia: Elikadura. Sabrina Patorekin. Kultur Ateko Jokin Zaitegi aretoan. (*)

**5, egubakoitza**
**17:30** *Balantz-bike*-ak eta *hankapaloak* Txatxilipurdikoen eskutik. Biteri plazan. Haur zein gurasoentzat.
**17:30** Hitzaldia: Psikomotrizitatea. Ianire Jaio, Maider Arrizabalaga eta Nagore Aranbururekin. Kultur Ateko Jokin Zaitegi aretoan. (*)

**6, zapatua**
**10:30** Tailerra: Haur masajeak. Gari Lopez de Munainekin. Okendoko ludotekan. Haur eta gurasoentzat.
**11:00** Tailerra: Euskal dantzak. Eneritz Urrutiarekin. Kultur Ateko Loramendi aretoan. Haur eta gurasoentzat.
**17:00** Ipuin kontaketa. Irati Pagoaga eta Irune Iribekanposekin. Haur eta gurasoentzat.
**18:00** Mihiluze txapelketa Txatxilipurdikoekin. Kultur Ateko areto nagusian. Gurasoentzat.

**7, domeka**
**09:00** Mendi irteera Besaidera Aritz Kortabarriarekin Arbolapetan eta **10:00** Udalako bidegurutzean.
**17:00** Aurpegi margotzea eta sormen txokoa Herriko Plazan. Haur eta gurasoentzat.
**18:00** Karaokea eta disko jaia Txatxilipurdikoekin. Haur eta gurasoentzat.

OHARRA: (*) Umeentzako zaintza zerbitzua egongo da Okendoko ludotekan.
Ekintza guztiak doakoak dira.
Ekintzara orduan agertuta nahikoa da.
Eguraldi txarra egiten badu, domekako ekintzak bertan behera geratuko dira.



Bertako produktuak dastatzeko eta erosteko aukera izan zen zapatuko azokan. JOSETXO ARANTZABAL


Kiroldegian egin zuten erretiratuen bazkaria, menu oparoarekin. JULEN IRIONDO


Mendiguren irabazlea -eskuinetik bigarrena-, lehiakideekin. ITSASO LZ. DE BERGARA

**ARAMAIO** > ERRETIRATUEN EGUNA

# Azoka polita, 140 lagun bazkaltzen eta Riki garaile

Bertako produktuen merkatua, erretiratuen jaia eta artzain txakurrak, zapatuan

**JULEN IRIONDO** > ARAMAIO

Egun bete-betea izan zuten zapatua Aramaion. Goizean bertako fruta eta barazki, ezti, gazta eta bestelako produktu eta artisau lanez osatutako azoka jarri zuten kalean. Jendetxoa ibili zen, baina postuetan zeudenen arabera, ez zuten gehiegi saldu: "Hona ekarri ditugun produktuak etxean dituzte aramaioar askok", zioen Likiñau baserriko Angel Padillak. "Kanpoko jendeari saltzen diogu gehien".

**ERRETIRATUEN EGUNA**

Erretiratuen eguna ere ospatu zuten zapatuan. Eguerdian meza izan zuten, eta elizako irteeran Lagun-Artean dantza taldekoen saioa ikusi ondoren, bazkaria egin zuten kiroldegian: 140 lagun inguru batu ziren. Udalak zozkatu zuen Benidormerako bidaia Maria Luisa Etxebarriarendako izan zen, eta gogoan izan zituzten aramaioar edadetuenak ere: Timotea Kortabarria, 98 urtekoa; eta Patxi Madina, 95ekoa.

Azkenik, arratsaldean artzain txakurren txapelketa egin zuten aspaldiko partez, Salazango landetan. Bost bikote parte-hartzaileen artean Orozkoko Enrike Mendiguren eta Riki izan ziren onenak. Fernando Etxebarria aramaioarra hirugarren izan zen.


**Nerea Galindez**
Perretxiko postukoa

"Perretxiko batzuk atera dira azken egunetan, eta neu ibili naiz batzen Aramaioko basoetan, azokan erakusteko. Saldu bakarrik egiten dut inork interes handia agertzen badu erosteko".


**Jesus Arregi**
Eroslea

"ASEren sagardoa erosi dut, bertakoa, ederra. Ez dugu larregi edaten, baina edaten dugunean bertakoa. Bertako sagarrekin egina, Untzillan; bertakoa beti da gustukoagoa".


**Pedro Etxebarria**
Eroslea

"Sagardoa, zumoa eta pate batzuk ere erosi ditut, eta beste zerbait erostekotan nago. Halako herri txikia izateko badago nahikoa genero eta nahikoa ona. Bertakoak beti du balore gehiago".


**Unai Etxenausia**
Saltzailea

"Etxeko postreak ari gara saltzen, geuk egindakoak, amaren laguntzarekin. Dezente saldu dugu. Ateratzen dugun dirua behartsuendako da, Indiarako adibidez; guk nahikoa dugu".


**Felix Elorza**
Eroslea

"Ikaragarri genero ona dago, ikusi besterik ez dago. Erretiratu eguna ere bada, baina aurten ez naiz joango bazkarira, beste batzuetan joan izan naiz baina. Aurten erregimen antzean nabil".

**LEINTZ GATZAGA** > OMENALDIA

# Herriko aitonak, Narciso Beitiak, 100 urte bete ditu

Umore eta sasoi onez, eta familiakoez eta herritarrez inguratuta, ospatu zuen urtemuga

**IKER BARANDIARAN** > GATZAGA

Narciso Beitia Leintz Gatzagako Astaisolo baserrian jaio zen orain dela 100 urte eta han bizi da oraindik ere.

Herenegun, zapatua, izan zen urtebetetzea eta herritarrek omenaldi polita egin zioten. Lehenik eta behin, gatzagar batzuek aurreskua dantzatu zioten eta txapela oparitu, berak ekarri zuena ordezkatuz. Jarraian herriko umeek - ia guztiak batu ziren- bertsoa abestu zioten; eta azkenean, hainbat opari eman zizkioten Udalaren eta herriko erretiratuen partetik.

Beitiak gustura hartu zituen opariak eta omenaldia, eta merezita zeukala esan zigun, "hainbeste urte bete ditudalako, ez da-eta erraza".

**LANA EGIN ETA ONDO JAN**

100 urte betetzeko zein sekretu daukan galdetzerakoan, argitu zigun lan asko egin duela eta hori ezinbestekoa dela, "lan egin ezean, gorputza moteldu" egiten delako.

Bestalde, janaria ere oso kontuan hartu zuen: "Urte asko bete nahi badira, ez da txuleta eta filete askorik jan behar; onena da baserriko patatak, babak, porruak eta orohar baserriko produktuak jatea".

Herritarrei eta Goienari arreta egin ostean, familiakoekin bazkaria izan zuen Gatzagako jatetxe baten.



Narciso Beitia herriko umeez inguratuta; berak guztiak mantendu behar ote zituen galdetu zuen. IKER BARANDIARAN



Taldea Ongi Etorri jatetxean.. JOSETXO ARANTZABAL

**ANTZUOLA** > 87 URTEKOEN BAZKARIA

# Ohitura polit bihurtu duten bazkari ederra

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

Urtero-urtero, geroago eta gutxiago izanda ere, badago Antzuolan taldetxo bat sasoia erakusten duena urteroko bazkarian. Atzo gertatu zen hori, Ongi Etorri jatetxean.

**URTE ASKOTAKO OHITURA**

87 urte dituztenak dira atzo elkartu zirenak, 1923an jaiotakoak, beste modu batera esanda. 50 urte bete zituztenean hasi ziren eguna ospatzen. Erabaki zuten urtero-urtero elkartu egingo zirela eta horixe egin dute urtez urte. Aurtengoan zortzi dira elkartu diren lagunak eta meza entzun ostean bazkaria egin zuten atzo. Orain dela urte batzuk arte soinu-jotzaile bat eroaten zuten bazkarira, baina orain gurago dute mahaian gelditu eta berriketan ibili. Horixe egin zuten atzoko bazkaria eta gero: goxo-goxo geratu kontu kontari.

Primi Erostarbe pandero-jotzailea omentzeko jaialdia egin zuten zapatuan

# Goi mailako trikitixa jaia Santa Ana aretoan

**J.B.** > ARRASATE

Trikitizaleek nahitaez egon behar zuten zapatuan Oñatiko Santa Ana aretoan. Jaialdi bikaina izan zen Primi Erostarbe pandero-jotzailearen omenezkoa, Lizargarate trikitizale elkartekoek antolatuta.

Luzea izan zen parte-hartzaileen zerrenda: Oñatiko musika eskola, Ospas eta Janire bikotea, Izer aita-semeak eta Alabier, Landa aita-semeak, Joseba Tapia eta Eztanga anai-arrebak... Eta protagonista Primi Erostarbe omendua. Ostean afaria egin zuten.



Eztenga anai-arrebak eta Joseba Tapia. JOSETXO ARANTZABAL

ZER DIO BAGARAK?

ZER DIO BERGARA KIROL ELKARTEAK?

**OBRAK** > ASFALTO LANAK

# Hiru hilabete baino lehen kopondu egingo dituzte errepide nagusietako zuloak

Ia 100.000 euro inbertituko ditu Udalak herriko errepide nagusietako zuloak konpontzen; lanak adjudikatzeko prozesua abiaraziko dute orain



Otalora Lizentziaduna kaleko errepidean dauden zuloak kendu egingo dituzte asfalto lanekin; besteak beste. JOSETXO ARANTZABAL

**UBANE MADERA** > ARRASATE
Urte hasiera inguruan hasiko dira Arrasateko errepide nagusietan asfaltatze-lanak egiten. Helburua da zulo handiak-eta dituzten errepideetan konponketa-lanak egitea. Maala-Uarkape, San Frantziskoko biribilgunea-Monterron eta Otalora-Zarugalde dira konponduko dituzten guneetako batzuk.

**ERDIGUNEKOAK ETA BESTE**
Hain justu, inbertsiorik handiena Maala biribilgunea eta Uarkape gunea asfaltatzeko izango da: 34.800 euro pasa. Kasu horretan, errepide zati horren bi bideak asfaltatuko dituzte.

Apurtxo bat aurrerago eginez, berriz, San Frantziskoko biribilgunetik Monterron gunerainoko zatia ere asfaltatuko dute, Arbolapetatik gertuen dagoen bidea, hain zuzen. Eta kasu horretan, ia 15.000 euroko inbertsioa egingo du Udalak.

Inguruan segituz, Otalora kalea eta Zarugalde kaleko hainbat gune ere asfaltatuko dituzte (3.522 euro); beste gune bat aipatzearren, Uribarri etorbideko Uriburu kalearen azpiko aldea ere asfaltatuko dute (2.465 euro); eta horrez guztiaz gainera, herrian dauden beharren araberako asfaltatze lanak ere egingo dituzte (42.854 euro).

**NEGUAREN ARABERA**
Azken horien kasuan, Obra Sailak pentsatuta dauka, adibidez, Araba etorbidean egitea konponketa batzuk: "Dena den, hori gero definitu behar da, negua zela doan ere ikusi behar dugu-eta", adierazi dute Obra Sailetik. Izan ere, jakinekoa da neguko elurteek zuloak sortu edo areagotu egiten dituztela errepideetan.

**ZIRKULAZIOA ETEN EGIN BEHAR**
Asfaltatze proiektua onartu egin berri du Udalak. Orain, lizitazio prozesua abiaraziko dute eta lanak "hiru hilabeteko epean" hasiko dituzte. Behin hasita, berriz, hainbat astean guztia bukatuko dute.

Hori bai, litekeena da zenbait kasutan errepideko zirkulazioa moztu beharra izatea. Hala ere, hori ere proiektua adjudikatzen dutenean zehaztuko dute.



U.M.

## Igogailua, inauguratuta

Bizkaia etorbideko igogailua zabaldu dute, eta edozeinek erabili ahal du, egubakoitza ezkero. Izan ere, egubakoitzetan inaugurazio ekitaldi modukoa egin zuten udal ordezkariek eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariek. 252.516 euro inbertitu dituzte igogailuari solairu bat gehitu eta oinezkoen pasabidea egiteko. Jaurlaritzak 72.353 euro finantzatu ditu.

**KEXUA** > GOROSTIZA AUZOA

## Gorostiza auzoaren gaineko kexu zerrenda aztertzen dabil Arrasateko Udala

Gorostizako bizilagunek kexua aurkeztu dute auzoaren egoerarengatik

**UBANE MADERA** > ARRASATE
297 auzotarren sinadurek babestuta, kexua aurkeztu dute Gorostizako bizilagunek, salatzeko Udalak auzoan ez duela "mantentze-lanak egin, Udala auzoko urbanizazioko kargu egin zenetik, 18 urte baino gehiago dela". Hainbat adibide ipini dituzte: espaloien egoera, auzoko lorezaintza, barandak, Kalealdea frontoiarekin lotzen duen oinezkoen bidea, Maitenako etxeen atzetik gora doan bidearen egoera eta, bereziki, diote arazorik larriena dela ez dutela "lotura egokirik" auzoaren eta alde zaharraren artean zailtasunak dituzten pertsonendako. Salatu dute, baita ere, auzoko txabola eta ortuek gune zikinak eragiten dituztela, eta ez dutela auzotarren batzarrak egiteko lokal bat bera ere.

Hori guztia Udalari aurkeztu diote; izan ere, Udala Gorostiza auzoa biziberritzeko proiektua lantzen dabil, LKSren eskutik. Eta gorostizarrek ez dute egoki ikusten LKSk planteatu dituen alternatibak.

**LEHENTASUNEN ARABERA**
Arrasateko Udalari dagokionez, bertako iturriek aditzera eman dute aztertzen dabiltzala auzotarren eskaerak; edozelan ere, gaineratu dute herrian badaudela beste auzo batzuk antzerako egoeran eta "lehentasunen" arabera joango direla lanak egiten.

**KULTURA**

## Zarzuela ikusteko sarrerak salgai

'Kutxa.net'-en eskura daitezke, 17 eurotan; eta saioen egunetan, antzokian

**U.M.** > ARRASATE
Bihar, azaroak 3, edo etzi ipiniko dituzte salgai *La Gran Vía* zarzuelarako sarrerak. *Kutxa.net*-en, 17 eurotan. Izaskun Murgia Elkarte Lirikotik esandakoaren arabera, azaroaren 21eko eta 27ko ikuskizunetarako sarrera guztiak ipini dituzte salgai. Edozelan ere, ikuskizunaren egunetan ere izango dira, antzokian.

Zarzuelaren estreinaldia azaroaren 20an da (19:30); bigarren saioa 21ean (19:30) eta beste biak azaroaren 26an (20:00) eta 27an (19:30).

**KULTURA** > ZUZENEKO MUSIKA

# Asteon abiatuko dira 'Kooltur Ostegunak', Gariren saioarekin

Hertzainak taldeko abeslari ohiak gaztetxean joko du eguenean, hilak 4: sarrera, bost euro

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE
Arrasaten hainbat urtez kulturagintzan jardun duten hainbat lagunek osatzen duten Kooltur ekintza elkartea asteon jarriko da martxan. Irail amaieran aurkeztu zuten elkartea, gaztetxean, 80ko hamarkadako jaiaren bitartez; arrakasta borobila izan zen. Bada, aurkezpenaren ostean heldu da elkartea abian jartzeko ordua: *Kooltur Ostegunak* ekimenaren bidez eguenetan kultura ekintza erakargarri bat eskainiko diete arrasatearrei.

Ekimena estreinatzearen arduraduna Gari Hertzainak taldeko abeslari ohia izango da. *16 lore* diskoarekin dator musikari legazpiarra. Disko horrek Gariren ibilbidea laburtzen du, eta, beraz, Hertzainak taldearen hainbat kantu entzun ahalko dira. Hori bai, rock gogorraz haratago, bestelako doinuekin jantziko ditu betiko kantuak. Hau da, Gari *biluztera* dator gaztetxera, sentimenduz josita egin duen diskoarekin.

**SARRERA BOST EUROTAN**
Azaroaren 4an izango da Gariren kontzertua eta sarrera bost euro ordaindu beharko da. Gonbita egina dago: egueneko pintxo poteoak aurkitu du eguna ezin hobeto amaitzeko laguna.

AZAROKO EGITARAUA

### The Snobs, Capsula eta The Hot Wok oraindik

Azaroaren 11n The Snobs taldeak joko du. Jorge Reboredo NCC taldeko lehen gitarra-jotzaileak sasoiko dagoela erakutsiko du; punk-rock azkarra eta landua. Hilaren 18an Capsula dator. Bilbon bizi arren jatorri argentinarra duen hirukotea da, talde geldiezina –hamaika bira egin dituzte–. 1970eko hamarkadako rocka egiten dute. Eta hilaren 25ean The Hot Wok taldeak itxiko du azaroko egitaraua: jazza eta funka uztartzen dituen talde gasteiztarra da. Ekintza guztiak 22:00etan hasiko dira, eta sarrera bost euro da.



Gari, Elgetako Espaloian, 2009ko abenduan emandako kontzertuan. J.ARANTZABAL



BEDOÑA BATU

## Ardo eta txakolin dastatzean jende asko batu zen

Urriaren 23rako Bedoña Batu kultura elkarteak ardo eta txakolin dastatzea antolatu zuen. 28 lagun elkartu ziren –jende asko, beraz– eta Getariako, Bizkaiko eta Arabako txakolina eta Arabako Errioxako ardoak dastatzeko aukera izan zuten. Saioaren ostean, Bedoñako produktuekin egin zuten mokadutxoa. Bestalde, azaroaren 6an, beste ikastaro bat izango dute auzoko elkartean: xaboia modu artisauan egiten ikasteko tailerra. Euskaraz izango da ikastaroa eta hamar euro ordaindu behar da.

> IKASTAROA

### Sanba dantzatzen ikasteko aukera Goi Eskola Politeknikoan

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan sanba ikastaroa egingo dute datorren azaroaren 9tik abenduaren 2ra bitartean. Martitzen eta eguenetan elkartuko dira sanba dantzatzen ikasi gura dutenak; 18:30ean hasi eta 19:45ean amaituko dira saioak. Jakinarazi dutenez, ikasleendako ez ezik, beste edozeinendako ere zabalik daude ateak.

Hori bai, ikasleek merkeago izango dute izenematea: 15 euro ordaindu beharko dute. Gainontzokoek, aldiz, 25 euro ordaindu behar dute MUk antolatutako ikastaroan izena eman gura badute.

> HITZALDIA

### Iruña-Veleiaren gaineko hitzaldia eguenean Kulturaten

Udaleko Kultura Sailaren eta Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoaren eskutik hitzaldia izango da eguenean, hilak 4, Kulturateko areto nagusian (18:30). Juan Martin Elexpuru eta Karl Van de Dnessche gaian adituak diren historialariek gidatuko dute hitzaldia. Arabako Iruña Oka udalerrian kokatutako aztarnategi historikoaz jardungo dute. Aztarnategia erromatar inperioko garaikoa da eta Euskal Herri osoko aztarnategi garrantzitsuenetarikoa ere bada. Bertan aurkitutako aztarnak ezbaian jartzeak hautsak harrotu ditu azkenaldian.

**ZER DIO AITZORROTZ ELKARTEAK?**

**ZER DIOTE DEBAGOIENEKO SINDIKATUEK?**

**IKASTAROAK** > EMAKUME TXOKOA

# Azaroan bi ikastaro eskainiko dituzte; izenematea, zabalik

Emakume Txokoan eman behar da izena

**J.B.** > ARRASATE
Emakume Txokoak bi ikastaro antolatu ditu azarorako: lehenak *Tratu onen plazerra* du izenburu eta sexismoak, amodio erromantikoak eta jendarte indarkeriazaleak harremanetan nola eragiten duten aztertuko dute. Edurne Mendizabalek gidatuko du, euskaraz, eta bi egunean izango dira tailerrak: hilaren 12an –16:00etatik 20:00etara– eta 13an –10:00etatik 14:00etara–. Euskaraz izango da eta izena emateko azken eguna azaroaren 4a da. Sei euro ordaindu behar da.

**PARTE-HARTZE POLITIKOA**
Bigarren ikastaroa Jabetza Eskolak antolatu du: *Emakumeak eta parte-hartze politikoa.* Hainbat galdera erantzuten saiatuko dira; besteak beste, nolako ibilbidea izan dute emakumeek politikan? Eta zein egoeratan daude gaur egun?

Arantza Urkaregik gidatuko du tailerra, euskaraz, eta ikastaro hori ere bi egunean egingo da: azaroaren 26an –16:00etatik 20:00etara– eta 27an –10:00etatik 14:00etara–. Matrikula 15 euro ordaindu behar da; izena emateko azken eguna azaroaren 16a da.

**UDALA** > ARAUTEGIA

# Hileta zibilak egiteko ordenantzari hasierako onarpena eman dio Udalak

Kataibiako plazan egin ahal izango dira, astelehenetik domekara bitartean

Udalbatzak aho batez eman dio hasierako onarpena ordenantzari, osoko bilkuran

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Udalak hileta edo omenaldi zibilak egiteko ordenantzari hasierako onarpena eman zion aurreko astelehenenko ohiko osoko bilkuran. Udalbatzak aho batez onartu zuen testuaren arabera, Udalak Kataibiako plaza aukeratu du halako omenaldietarako. Dena den, Angiozarren, Osintxun, Elosuan, Elorregin, Basalgon edo Uberan erroldatutakoa baldin bada hildakoa, auzo horietako pilotalekuan egiteko baimena ere eskatu ahal izango da.

Horiek ez diren leku publikoren baten egin nahiko balitz hileta zibila, Udalean aurkeztu beharreko eskarian zehaztu beharko da, eta alkateak edo dagokion zinegotziak erabakiko du baimena eman ala ez.

**ESKARIAK NOLA BIDERATU**

Alkateari edo hura ordezkatuko duen zinegotziari dagokio hiletа zibilerako gordetako espazioaren erabilera baimentzea. Horretarako, senitartekoak –edo dagokionak– aurkeztu beharko ditu Udaleko erregistroan honako agiriak: eskaera orria, heriotza ziurtagiria eta tasa ordaindu izanaren agiria –ordenantza fiskaletan aurrez ordaindu behar dela finkatu bada–. Eskaerok derrigorrez Udalak prestatutako inprimakietan egin beharko dira eta han zehaztuko da hileta egunean zein material erabili nahi den.

Horrekin guztiarekin, eskaera aurkezten bada eskatutako dokumentazioarekin, automatikoki onartuta geratuko da.

**SOILIK ERROLDATUTAKOAK**

Hil diren unean Bergarako biztanleen erroldan azaltzen diren pertsonen hileta zibilak bakarrik egin ahal izango dira. Baldintza hori betetzen ez duen pertsona baten hileta ospakizuna egin nahi izango balitz, eskaera aztertutakoan hartuko dute egoki iritzitako erabakia.

Hileta zibilok astelehenetik domekara egingo dira, 17:00etan, 18:15ean eta 19:00etan; eta domeka eta jai egunetan, esandako orduez gain, 12:00etan eta 13:15ean ere egin ahal izango dira. Zeremoniak gehienez ordu bat iraungo du eta guneak libre geratu beharko du gehienez ere hurrengo 15 minutuetan.

Esandakoez gain, beste ordu baten egiteko eskaera aurkezten denean, eskaera ikusita eta egun horretan dauden ekitaldiak kontuan izanda erabakiko da.

**APAINTZEKO AUKERA EGONGO DA**

Hildakoaren senitarteko edo lagunek Udalak prestatutako gunea apaindu nahi badute edo modu bereziren baten egokitu, egin ahal izango dute, baina ekitaldirako erreserbatutako denbora hori amaitu baino lehen erretiratu beharko dute jarritakoa. Erabat debekatuta egongo da paretetan edo beste edozein elementutan anklajerik, zulorik edo antzekorik egitea.

## Herrian dagoen eskariari erantzuteko araudia

Hil ondorengo omenaldi zibilak egiteko behar soziala erlijiorik gabe bizi izatea aukeratu duten herritarrei zeremonia duina eta pertsonala eskaintzeko beharretik sortu da, herritar horiek bizitza ulertzeko duten modua errespetatzeko. Gizartean, eta Bergaran, elkarren ondoan bizi diren erlijioek hildakoei agur esateko liturgia ekitaldiak egiteko toki edo tenpluak dituzten moduan, Udalak gizartean gero eta eskaera handiagoa duen behar bati erantzun behar dio.

Hori horrela, ordenantza horren helburua da, udal ordezkarien esanetan, "Bergarako gizarte zibila osatzen duten familiek, adiskideek, erakundeek edo taldeek euren hildakoak omentzeko edo agurtzeko egin nahi dituzten ekitaldiak baimentzeko arauak ematea, modu horretan pertsona horien ekarpenak edo balio etikoak edo gizatiarrak onartzeko".

**ALEGAZIO EPEA ZABALIK**

Udalbatzak hasierako onarpena emanda, jendaurrean ikusgai jarriko dute 30 egunez ordenantza, interesatuek alegazioak egin ahal izateko.

KONTUAN HARTZEKOAK

**> NON?** Udalak Kataibiako plaza egokitu du hileta zibiletarako. Angiozarren, Osintxun, Elosuan, Elorregin, Basalgon edo Uberan erroldatutakoa bada hildakoa, auzootako pilotalekuetan egin ahal izango da.

**> NOIZ?** Astelehenetik domekara egin ahal izango dira, 17:00etan, 18:15ean eta 19:30ean. Horrez gain, domeka eta jaiegunetan, 12:00etan eta 13:15ean ere egin ahal izango dira.

**> ESKAERAK** Hileta zibilok egin ahal izateko eskaera egin behar da Udalean. Horretarako, Udalak prestatutako eskaera orria bete behar da eta baita heriotza ziurtagiria eta tasa ordaindu izanaren (ordenantza fiskaletan ordaindu behar dela finkatu bada) agiria ere. Eskaerak alkatetzara zuzenduko dira.



MONIKA BELASTEGI

## Espaloi zatia egingo dute Zubiaurren

Martoko-Zubiaurre auzunearen irisgarritasuna hobetzeko espaloiak egingo ditu Udalak.

Zubiaurre kaleko 8. eta 16. zenbakietako atarien artean irisgarritauna hobetzeko helburuarekin egingo dute espaloia. Era berean, oinezkoendako bidea ere egingo dute errepidean. Lan horiek guztiak Sasoi Eraikuntza SL enpresak egingo ditu, auzune berean aparkalekuak egiten dihardueп enpresa, hain justu ere.

**JENDARTEA** > OSPAKIZUNA

# Hainbat margolarik murala egingo dute Nahikari tabernaren 25. urtemugan

Hain zuzen, *El cadáver exquisito* deritzon jokoaren barruan egingo dute mural hori, bihartik hilaren 7ra bitartean

**M.B.** > BERGARA

Nahikari taberna 25. urtemuga ospatzen hasiko da asteon, eta horretarako hainbat ekintza antolatu ditu.

Horietako lehena izango da *El cadáver exquisito* jokoa. Honakoa da joko horren oinarria: hainbat artistak sekuentzian margotzea konposizio bat. Artista bakoitzak bakarrik ikusi ahal izango du aurreko margolariak margotu duenaren azken zatia. Hori horrela, joko horrekin ezagut daiteke konposizioa egin duen artista taldearen errealitate inkontzientea, eta, era berean, kutsatze intelektualen neurgailu lana ere egiten du.

Bihar, azaroak 2, hasiko dira artistak konposizioa osatzen eta hilaren 7an bukatuko dute. Jokoaren emaitza, hau da, egindako murala, hilaren 8an erakutsiko dute, 19:30ean, eta ikusgai egongo da tabernan azaroaren 18ra bitartean.

Jokoan parte hartuko duten artistak dira: Juanjo Altuna, Carlos Galarraga, Bingen de Pedro, Peio Alberdi, Jone Telleria, Unai Azkarate, Ricardo Azkargorta eta Ramon Arantzabal.

**EKITALDI GEHIAGO**

Urtemuga ospatzeko ekitaldi gehiago ere antolatu dituzte: hilaren 12an Txokorock izeneko emanaldia egongo da; 13an, gauez, La Toxek egingo du kontzertua eta gau berean, 00:00etan, mojito gaua ere egingo dute.




Taxiak geldi Ibargaraiko geltokian. MONIKA BELASTEGI

**JENDARTEA** > ZERBITZUAK

# Taxien tarifek ez dute igoerarik izango datorren urtean

Eguneko tarifan bandera jaitsiera 3,2124 euro kobratuko dute eta egindako kilometro bakoitza, berriz, 1,0063 euro

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Udalbatzak aho batez onartu zituen aurreko asteleheneko osoko bilkuran Agitax taxilarien elkarteak 2011. urterako proposatutako hiri barruko taxi zerbitzuen tarifak. Tarifok Debagoieneko taxi batzordeak adostutakoak dira eta datorren urterako igoerarik ez dute aplikatuko.

Bi tarifa dira onartu direnak. Alde batetik, lanegunetan, egunez, hau da, 06:00etatik 22:00etara aplikatuko dena: bandera jaitsiera izango da, 3,2124 euro; egindako kilometroko 1,0063 ordainduko da; eta itxoite ordua 19,2186 euro ordainduko da. Bigarren tarifa da egunero gauez, hau da, 22:00etatik 06:00ak bitartean eta domeketan eta Erkidegoko eta tokiko araudiak onartutako jai egunetan egun osoan zehar aplikatuko dena. Kasu horretan, bandera jaitsiera 3,2124 euro kobratuko dute; egindako kilometroko, 1,6050 euro; eta itxoite ordua, berriz, 30,2114 euro.

**FATXADEN GAINEKO ARAUDIA**

Fatxadak zaharberritzeko eta babesteko laguntzak arautzen dituen ordenantza berriari ere hasierako onarpena eman zion udalbatzak astelehenean, aho batez.

Hori horrela izanik, ordenantza berri hori orain jendaurrean dago udaletxean, eta halaxe egongo da 30 egunez, egoki ikusten duenak alegazioak egin ahal izateko.

**UDALA** > ZERBITZUAK

# Gazte Informazio Bulegoa itxita dago atzo ezkero

Bulegoak ematen zituen hainbat zerbitzu Udaleko beste sail batzuetan eskura daitezke

**M.B.** > BERGARA

Gazte Informazio Zerbitzuak kultura etxean duen bulegoa itxi egin dute; atzotik, domeka, dago itxita, hain justu ere, eta halaxe jakinarazi dute orain arte bulegoko arduraduna izan den Maider Sedanok eta Udalak.

Hala eta guztiz ere, udal iturriek gehitu dute bulego horretatik ematen ziren zenbait zerbitzu Udalak dituen beste hainbat gunetan jaso ahal izango direla. Hala nola, Kultura Zerbitzuan (kultura etxea) informazio orokorra jasotzeko aukera egongo da; gida turistikoak Udal Liburutegian mailegatuko dituzte; lan eskaintzen berri jaso ahal izango da udaletxean, Lanbide zerbitzuan; eta txartelak eta buletin elektronikoa eskuratu ahal izango dira. Elektronikoa berriz, Arrasate, Oñati eta Gipuzkoako beste gazte informazio bulegoetan.

**DJ JAIALDIAK AZAROAN ERE**

Azaroan ere egongo dira 12 eta 14 urte arteko gazteendako DJ jaialdiak Zabalotegin. Hain justu ere, azaroaren 13an eta 27an izango dira azaroko bi emanaldiak. Ohi bezala, 18:30etik 21:30era izango dira jaialdiok, doan, eta neska-mutikoek ondo pasatzeko aukera izango dute alkoholik gabeko diskoteka antzeko ekimen horrekin.



Maider Sedano, Gazte Informazio Bulegoan. GOIENKARIA

## oharrak

KINDATA
**> 1935ean jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 21ean**
Zumelaga jatetxean egingo dute, 14:30ean. Izena emateko 12 euro aurreratu behar dira azaroaren 17a aurretik, Euskadiko Kutxan.

KINTADA
**> 1969an jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 20an**
Tartufon egingo dute. 13:00etarako egin dute hitzordua, Deportivon. 14:00etan talde argazkia egingo dute pilotalekuan eta 14:30ean autobusa hartuko dute bazkaltzera joateko. Izena emateko azken eguna azaroaren 14a da, Deportivon, 20 euro aurreratuta.

KINTADA
**> 1958an jaiotakoek afaria egingo dute azaroaren 6an**
Zumelagan egingo dute, 21:30ean. Eta 20:45ean elkartuko dira, pilotalekuan.

KINTADA
**> 1953an jaiotakoek afaria egingo dute azaroaren 20an**
Txarrantxa jatetxean egingo dute, 21:00etan. 23:30ean dantzaldia egongo da. Izena emateko azken eguna azaroaren 18a da, Txarrantxan eta ONCEko kioskoan, 15 euro aurreratuta.

KINTADA
**> 1944an jaiotakoek afaria egingo dute azaroaren 27an**
Azpeitxi jatetxean egingo dute, 21:00etan. Aurretik, 19:00etan, meza egongo da Santa Marinan. Izenematea azaroaren 22a baino lehen da, Bodegon Hernandezen (943 76 20 43) eta Sanchez ile-apaindegian (943 76 23 70).

KINTADA
**> 1930ean jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 13an**
Zumelagan egingo dute. Bazkariaren aurretik talde argazkia egingo dute Ibargarain 14:00etan. Izenematea 943 76 22 22 telefono zenbakian da.

KINTADA
**> 1943an jaiotakoek (55eko kintoak) bazkaria egingo dute**
Azaroaren 20an egingo dute, Erreki erretegian. 14:00etan txikiteoa eta talde argazkia egingo dituzte eta bazkaria 14:45ean izango da. Izenematea Errekin da, 12 euro aurreratuta.

KINTADA
**> 1940an jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 6an**
Torrekuan egingo dute, 14:30ean. 13:30ean meza egongo da Sierbetako elizan. Izena emateko deitu 943 76 35 76 edo 943 76 30 26 telefono zenbakira.

KINTADA
**> 1947an jaiotakoek afaria egingo dute azaroaren 6an**
Tartufo jatetxean egingo dute, 21:00etan. Izena emateko 60 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako 009.1.09901.9 zenbakian azaroaren 2a aurretik. Autobusa egongo da, 20:30ean, Santa Marina ostetik irtenda.

KINTADA
**> 1968an jaiotakoek afaria egingo dute urriaren 30ean**
19:30erako egin dute hitzordua, Deportivo tabernan. Afaria 22:00etan izango da, Azpeitxi jatetxean.

**JENDARTEA** > HISTORIA

# 'Serorak Debagoienean (XVI-XVIII)' hitzaldia datorren egubakoitzean

Ekitaldi horretan, hitzaldiaren izen bereko liburu digitala ere aurkeztuko du egileak, Mikel Larrañagak

**M.B.** > BERGARA

Azaroaren 5ean *Serorak Debagoienean (XVI-XVIII)* delako hitzaldia entzuteko aukera egongo da osoko bilkuren aretoan, 19:30ean, Udal Artxiboak antolatuta. Era berean, izen bereko liburu digitalaren aurkezpena ere egingo dute. Mikel Larrañaga Arregi da liburuaren egilea eta hark egingo du hitzaldia, euskaraz.

Udal Artxiboak ikerketak bultzatzeko egitasmoa jarri du abian eta Larrañagaren lana da egitasmo horren lehenengo emaitza.

Seroren gaineko ikerketa hori eskuragarri jarriko dute euskarri elektronikoan, Udal Artxiboko webgunean: *http://bergarakoartxiboa.net*.

**SENDABELARRAK ERE BERBAGAI**

Sendabide tradizionalen gaineko ikus-entzunezkoa ere aurkeztuko dute eguaztenean, azaroak 3, Aroztegi aretoan, 19:00etan.

Ikus-entzunezko hori herriko zenbait pertsonak bideratu dute eta laguntzaile izan dira Goiena, Kutxa eta Bergarako Udala. Hain justu ere, aurkezpen egunean egileekin batera egongo dira enpresa eta erakunde horietako ordezkariak. Luncha egongo da ikus-entzunezkoa aurkeztu eta gero.

**KIROLA** > JARDUNALDIAK

# Mendi hamabostaldia gertu dute, protagonista eta emanaldi bereziekin

## Mendi sailak antolatu duen mendi hamabostaldia azaroaren 17tik 26ra eta abenduaren 15ean izango da; emanaldi guztiak kultura etxeko aretoan izango dira


Josune Bereziartu eskalatzen. GOIENKARIA

**ARANTZAZU EZKIBEL** > OÑATI
Aloña Mendiko mendi sailak indartsu hasiko du azaroa. Mendi hamabostaldia antolatu dute, protagonista garrantzitsuekin eta emanaldi hunkigarriekin.

Protagonistetako bat Horia Colibasanu errumaniarra izango da. Colibasanu abenduaren 15ean etorriko da. Mendi munduan izen handia duen alpinista da; gure artean, baina, ezagun egin zen Iñaki Otxoa de Oltza zenaren ondoan egon zelako hura hil zenean (Annapurna, 2008). Otxoa de Oltza nafarra urte hartako mendi astean izan zen Oñatin. Bada, haren lagun Jorge Nagorek *La voz de Iñaki* eta *SOS Himalaya* aurkeztuko ditu azaroaren 26an.


Horia Colibasanu errumaniarra; atzean, Otxoa de Oltzaren irudia. GOIENKARIA

**EKITALDIAK, BI ASTEAN**
Azaroaren 17tik 26ra eta abenduaren 15ean izango da mendi hamabostaldia. Aurten mendi astea egin beharrean hamabostaldia egingo dute: "Uste dugu aste batean dena pilatu beharrean, hobe dela bi astean banatzea; gainera, errelebotan lan egiten dutenendako hobe da", azaldu dute antolatzaileek.

Alex Txikonek hasiko du emanaldi zikloa; Txikonek Shisha Pangmara egindako espedizio berezia aurkeztuko du. Lemoatik autoan abiatu zen Kathmandura, eta handik Shisha Pangmara. Josune Bereziartuk *Uda alpinoa* eskainiko du: 2006an egindakoak azalduko ditu lazkaotarrak. Harrian *8b+bistara* egin zuen lehenengo emakumea izan zen. Oñatiarrek ere izango dute tartea mendi hamabostaldian. Ivan Urtzelaik eta *Kanu*-k euren espedizioak azalduko dituzte argazki bidez; Marokon eta Kanadan egindakoak, hurrenez hurren. Gainera, "zineklubeko lagunei esker", *The Sharp end* filma eskainiko dute azaroaren 18an.

**MENDI IRTEERA**
Azaroaren 21ean San Adrianera irteera egingo dute. Izena hilaren 11tik aurrera eman ahalko da.

### Egitaraua

**Azaroak 17, eguaztena**
**19:30** Alex Txikon
*Shisha Pangma-Lemoatik Himalayara*

**Azaroak 18, eguena**
**20:00** Zinekluba
*The Sharp end*

**Azaroak 23, martitzena**
**19:30** Josune Bereziartu
*Uda alpinoa.*

**Azaroak 24, eguaztena**
**19:30** Ivan Urtzelai
*Marokon eskaladak*
Karlos Vieira, *Kanu*
*Kanadako izotz eskalada*

**Azaroak 26, egubakoitza**
**19:30** Jorge Nagore
*La voz de Iñaki* eta *SOS Himalaya*

**Abenduak 15, eguaztena**
**19:30** Horia Colibasanu

LEHIAKETA

### Mendia eta natura VII. argazki lehiaketa

Aloña Mendiko mendi sailak abian jarri du Oñatiko VII. Mendia eta Natura argazki lehiaketa. Lehiaketan parte har dezake adinez nagusia den edonork. Lehiaketa bi gaietan banatuko da: A gaia, mendia eta natura; eta, B gaia, denuntzia edo salaketa. Argazkiak aurkezteko azken eguna izango da azaroaren 30a, eta aurkeztu behar dira 40x50 zentimetroko euskarrian; eta, atzean jarri beharko da gaia (A edo B) eta baita argazkiaren izena ere. Lanak aurkeztu behar dira Aloña Mendiren egoitzan, Atzeko kalen (Aloña Mendi K.E., Atzeko kale 18-20, Oñati).

Abenduaren 10ean epaia emango da, eta abenduaren 17an sariak banatuko dituzte, 19:00etan, Kultur etxean. Ondoren aukeratutako argazkien erakusketa zabalduko dute urtarrilaren 2ra arte. Informazio gehiago: 943 78 08 10 zenbakian, eguazten iluntzetan; *alonamendi.mendi@gmail.com* helbidean; eta, *www.alona-mendi.com* webgunean.

**HEZKUNTZA** > GURASOAK

# Joko kooperatiboen gaineko tailerra egingo dute Elkar Hezin eguenean

## Guraso elkarteak antolatu du tailerra azaroaren 4rako eta 18rako; Elkar Hezi ikastetxeko Haur eta Lehen Hezkuntzako eraikinean izango da

**A.E.** > OÑATI
Elkar Heziko guraso elkarteak dagoeneko antolatu du azarorako egitaraua. Hain zuzen, egubakoitzean hasiko dituzte ekintzak, guraso eta haurrei zuzendutako tailerrarekin. Bakeola elkarteak emango du tailerra eta jolasak egingo dituzte, bai mahai-jolasak eta baita kanpoko jolasak ere.

"Pozik gaude tailerrak izan duen erantzunarekin. 19 familiak eman dute izena, guztira 56 lagun etorriko dira", adierazi digu Anaje Ferreirok, Elkar Heziko irakasleak. Bakeola elkartekoek eurek ekarriko dituzte jostailuak.

Tailerra eguenean izango da, azaroak 4, eta azaroaren 18an, 18:30etik 20:00etara.

**HITZALDIA HILAREN 25EAN**
Azaroaren 25ean, eguena, gurasoei zuzendutako hitzaldia egingo du Joxe Amiama psikologo eta EHUko irakasleak: *Etxeko lanak: Zer zentzu dute? Nola lagundu seme-alabei?* Hitzaldi horren helburua da etxeko lanek ze zentzu duten jakitea eta gurasoei erakustea zelan lagun dezaketen. "Guraso guztiei zuzenduta dago, baina batez ere 6 urtetik gorako umeen gurasoei", azaldu du Ferreirok.

Hitzaldia hilaren 25ean izango da, 18:30ean, Elkar Hezi Ikastetxeko Haur eta Lehen Hezkuntzako eraikineko liburutegian.

> ZERBITZUAK

### Oñati-Arantzazu autobusak ordutegi berria du gaurtik

Gaurtik aurrera, azaroak 1, ordutegi berria izango du Oñati-Arantzazu autobus lineak. 08:30etik 13:30era eta 15:30etik 17:30era, orduro aterako dira autobusak Oñatitik; eta 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara, santutegitik. Arrikrutzen geratuko dira: 10:30ekoa eta 15:30ekoa eta Arantzazutik datozen 12:00etakoa eta 17:00etakoa. Herrian geldialdia egingo du San Lorentzon, Euskadi etorbidean eta Korreosen. Zerbitzua domeka eta jaiegunetan egongo da martxan.

**ARETXABALETA** > LANAK

# Udaletxeko sarrera egokitzen dabiltza egunotan, irisgarritasun arauak bete ditzan

Harrizko maila kendu egin dute eta egurrezko atea bertan utziko dute; barruan, bakarrik zabaltzen dena jarriko dute

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Eguenean hasi zituzten udaletxeko sarrera egokitzeko lanak. Irisgarritasun arauak bete ditzan aspalditik zegoen egokitu beharrean eta Estatu Fondotik bideratutako dirulaguntzari esker –18.000 euro– egingo dituzte lanok.

Hasiera baten, egurrezko ate nagusia kendu eta bakarrik zabaltzen den kristalezkoa jartzeko asmoa agertu zuen Udalak. Baina hainbat herritarrek eskatu zuten egurrezko ate hori bertan uzteko, Arratabe jauregiak hasieratik duena izanik balioa duelako. Hori horrela, Udalak bat egin du eskaera horrekin eta bertan geratuko da atea. Bakarrik zabaltzen dena, ostera, barruan jarriko dute, orain dagoenaren ordez. Sarreran zegoen harrizko maila eguenean kendu zuten, eta orain, ezintasunak dituztenak arazo barik sartuko dira udaletxeko harreraraino.

**LAUSITTAKO LANAK BUKATZEN**

Bestalde, aurrera doaz Estatu Fondoko dirulaguntzari esker Lausittako etxe txikietan egiten dabiltzan saneamendu lanak. Dagoeneko hodi guztiak sartuta daude eta harlauzak jarri eta loratégiak txukunduko dituzte orain. Azaro erdi ingururako bukatuta egongo dira lanak.



Udaletxeko sarreran zegoen harrizko maila kentzen langileak, eguen goizean. M.A.

**ESKORIATZA** > KULTURA

# Zinema sozialaren II. emanaldia egingo dute azaroan

Ikus-entzunezkoak, berbaldiak, kontzertuak, antzerkiak eta pailazoak ere egongo dira

**M.A.** > ESKORIATZA

Herriko hainbat elkartek eta Kultura Sailak antolatutako ekitaldiz beteta dator azaroa. Eguaztenean dago lehenengo ekitaldia: berbaldia, hain zuzen, Lahar elkarteko psikologo Oscar Redondoren eskutik: *Giza trebetasunak: nola hobetu nire harremanak neu izateari utzi gabe?* Kultura etxean da (18:00).

**HERRI INDIGENAK BERBAGAI**

Bestalde, Elkar Hezitzen elkarteak antolatuta, zinema sozialaren II. emanaldia egingo dute azaroan. Hiru film iragarri dituzte eta martitzenetan izango dira emanaldiak (18:00), Ibarraundi museoan: hilaren 9an, *13 pueblos en defensa del agua* (Mexiko); hilaren 16an, *El velo de Berta* (Txile); eta hilaren 23an, *Soy defensor de la tierra* (Ekuador). Egun horretan, gainera, film emanaldiaren ostean herri indigena bateko ordezkari batekin berbaldia egongo da. Film guztiek herri indigenek bizi duten egoera gogor eta bidegabeen berri ematea dute helburu, eta hausnarketa eragitea herritarren artean.

**PIRRITX ETA PORROTX, 27AN**

Aitzorrotz kultur elkarteak antolatuta, ikus-entzunezkoa izango da hilaren 10ean, eguaztena, kultura etxean (19:00): *Gasherbrum II.* Espedizioko kide bat izango da bertan aurkezten. Eta hilaren 13an, zapatua, Surfin Kaos taldeak *Goizalde surrealistak* disko berria aurkeztuko du Inkernu tabernan.

Hilaren 25ean, ostera, ipuin kontaketa izango dute umeek Peio Añorgaren eskutik; eta 27an, zapatua, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak izango dira kiroldegian ikuskizun berria aurkezten: *Ongi etorri... Pupu eta Lore!* Sarrerak hilaren 17an jarriko dituzte salgai.

**KULTURA** > ARKUPE

# Film asko, tartean 'Izarren argia', azaroan, Arkupen

Emaus Fundazioak antolatutako '+3Rs=-CO2' erakusketa egongo da hilabete osoan

**M.A.** > ARETXABALETA

Kultura Sailak gertu dauka Arkupeko azaroko egitaraua eta oraingoan zinema izango da protagonista; film asko emango dituzte Zaraia aretoan, guztiak oso ezagunak.

Zineklubaren barruan, eguenetan (19:30) emango dituzten filmak dira: *Two Lovers*; *Adventureland*; *500 días juntos*; eta *Amores que matan*. Azken hori azaroaren 25ean emango dute, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean.

Bestalde, zinema komertzialaren barruan izango dira: *Centurion* (gaur); *Salt*; *Come, reza, ama*; *Lope*, eta *Izarren argia*. Hain zuzen, urriaren 21ean izan zen gurean Izarren Argia autobusa gerra zibilean fusilatutakoak omentzeko. Eta ume eta gaztetxoek izango dituzten filmeei dagokionez: *Toy Story3* (gaur); *Marmaduke*; *Shrek*; *Campanilla y el gran rescate*, eta *Astro Boy*.

**IRAUNKORTASUNA IKUSGAI**

Erakusketari dagokionez, Emaus giza fundazioak antolatutakoa egongo da gaurtik hilabetea bukatu bitartean: *Formula jasangarriena: +3Rs=-CO2*. Ehun hondakinen, hau da, arropa, oinetako eta antzeko hondakinen gainean hausnartzeko erakusketa da.

Umeek ipuin kontaketa izango dute azaroaren 20an, (11:30) liburutegian: *Hala bazan edo ez bazan*. Eta Murrukixok Mendi Astea egingo du hilaren 15etik 21era.

> ETXEBIZITZAK

### Bruesako etxeetan lanean hastekotan daude langileak

Udal ordezkariek izan dituzten berrien arabera, Txarapea ibilbidean egiten dabiltzan etxeetan –Deba ibaiaren beste aldean– egunotan sartuko dira langileak. Uztail ingurua ezkero geldi egon dira lan horiek, baina Bruesa, Kutxa eta hartzekodunen artean –hainbat gremiotako langileak– bilerak egin ostean, langileak lanekin jarraitzekotan daude.

Etxeetara eramateko materiala gertatzen ibili dira azken egunotan eta datorren astean berriro izango dira lanean, ezustekorik gertatu ezean.

> OSOKO BILKURA

### Tubos egondako alderdiaren arau aldaketa onartuko dute

Ezohiko osoko bilkura egingo du udalbatzak bihar, martitzena, (18:00). Hirigintza kontuekin zerikusia duten bi gai dituzte eztabaidatu eta, ondo bidean, onartzeko. Hain zuzen, bi alderdiren arau aldaketa prozesuei hasiera emango diete: Kurtzebarri eskolako alderdiari –eskola handitzeko– etaTubos lantegia egondako alderdiari –ikus-entzunezko fakultatea eta etxeak egiteko.

Bestetik, EAk mozioa aurkeztu du, osoko bilkuran eztabaidatzeko: Euskal Herrian agertoki berria finkatzea.

ZER DIO ELGETAKO ESPALOIAK?

ZER DIO OÑATIKO GAZTELEKUAK?




Iker Agirre Aramaioko bertsolari gaztea. ARGAZKI PRESS

**ARAMAIO** > KULTURA

# Iker Agirre, Bertxoko lehiaketan hilaren 12an

Hiru kanporaketa jokatuko dira eta bakoitzetik bi bertsolari sailkatuko dira azaroaren 26an finalerako; 25 urtetik beherako bertsolariak lehian

EDU MENDIBIL > ARAMAIO

Iker Agirre bertsolari gazteak aurtengo Bertxoko lehiaketan parte hartuko du. Arabako Bertsozale Elkarteak eta Hala Bedi Irratiak antolatutako lehiaketa da, 25 urtetik beherakoei zuzendutakoa.

Azaroaren 12an Laudion jokatuko den saioan izango da Iker Agirre. Alboan izango ditu Julio Soto (Gorriti), Ainhoa Muxika (Beasain), Peio Ormazabal (Arrigorriaga), Aimar Karrika (Auritz) eta Izar Mendiguren (Laudio). Olatz Bayer izango da gai-jartzailea. Hiru kanporaketa jokatuko dira eta bakoitzetik bi bertsolari sailkatuko dira azaroaren 26ko finalerako, Trebiño sagardotegian jokatuko dena. Manex Agirre aramaioarrak jardungo du gai-jartzaile finalean.

Saio guztiak afalostean hasiko dira. Azaroaren 12ko saioa Basalarrina elkartean izango da eta afarirako izenematea 675 70 79 71 telefonoan egin daiteke.

**PLAN OROKORRA: KONTSULTAK**

Bestalde, Plan Orokorraren gaineko alegazioak abenduaren 13ra arte aurkeztu ahal izango dira udaletxean. Bien bitartean, jendaurrean dago ikusgai Plan Orokorra, osoko bilkuren aretoan, astelehenetik eguenera 09:00etatik 17:30era eta barikuetan 09:00etatik 15:30era. Dokumentua *www.aramaio.org* webgunean ere eskuragarri dago. Herritarrek aukera izango dute martitzenero, goizez, kontsultak egiteko. Aurrez, baina, txanda eskatu beharra dago udaletxean, 945 44 50 16 telefono zenbakian.

**NEKAZARI IBILGAILUEN AZTERKETA**

Nekazari ibilgailuen, traktoreen azterketa teknikoa egiteko aukera izango da etzi, hilak 3, Aramaion. Oletan 09:15ean da hitzordua eta Ibarran, Arbelen, 10:30ean. Zirkulazio baimena eta inspekzio teknikoko txartela eramatea beharrezkoa da. Aurtengo tarifa 36,55 euro da.

**ANTZUOLA** > KUDEATUZ PROGRAMA

# Azaroaren 9an egingo dute armarriaren gaineko bigarren batzarra herritarrek

Kudeatuz programaren bitartez lantzen dabiltza antzuolar izatearekin lotuta dauden balio eta sinboloak

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Joan den astean hasi zuten antzuolarren balioak definitu eta adosteko parte-hartze prozesua. Antzuolako armarriak biltzen dituen "irudi, sinbolo eta gertaeren atzean" zer zegoen azaldu zuen Xabier Kerexeta historialariak. Ondoren, herritarrek hainbat galdera eta ekarpen egin zituzten armarriaren inguruan.

**HURRENGO BATZARRAK**

"Aurrera begira, antzuolarren identitatearen bereizgarri izan daitezkeen ezaugarriak zehaztea da asmoa", azaldu du Olatz Errazkinek, parte-hartze prozesua kudeatzen duen Prospektiker enpresako kideak. Batzarrei dagokienez, beste hiru egingo dituzte: azaroaren 9an, 23an eta 30ean izango dira.

Prozesuari begira, batzarrez gainera, beste bide bat ere jarri da martxan parte-hartze hori gauzatzeko: Udalaren webgunean atal bat jarri da martxan, *Antzuola parte hartzen* deiturikoa, eta atal horretan parte-hartze prozesuaren inguruko informazioa jasotzeaz gainera, herritarrek ekarpenak ere egin ditzakete.

**ELGETA** > ELGETA 2020

# Elgetarrak lehenengo herri batzarrera deitu dituzte

Zein premia dauzka herriak? Zer dago egiteko, mantentzeko, zuzentzeko...?; herritarren erantzunak jaso nahi ditu Udalak

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Elgeta 2020 egitasmoaren barruan egingo diren hiru lan batzarretatik lehena eguenean, hilaren 4an, egingo dute. Interesatuek 19:00etan dute hitzordua kultura etxean. Osasun publikoa, herriko garapen soziala, herri bizitza eta harremanak, herritarren parte-hartzea, mugikortasuna, ibilgailuen zirkulazioa... askotariko gaiak landuko dituzte.

**HIRU LAN TALDE**

Parte-hartzaileak hiru taldetan banatuko dituzte eta talde bakoitzean, ordu erdiz, bi gai landuko dituzte. Txandaka, parte-hartzaile guztiek hiru taldeetan hartuko dute parte. Herritarrei batzar horietan parte hartzeko eskatu die Udalak. Joaterik ez dutenek ekarpenak idatziz ere egin ditzakete udal webgunearen bitartez edo herritarren postontziaren bitartez.




Hainbat azpiegituraren egoera aztertuko da; esaterako, kiroldegia. ARTXIBOA

**LEINTZ GATZAGA** > TURISMOA

# Gazta eta onddoak udazkenean, Soran hotelean

VI. Jardunaldi Gastronomikoekin bat egin du eta menu bereziak eskainiko ditu

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Debagoieneko Mankomunitateak egunotan aurkeztu ditu VI. Jardunaldi Gastronomikoak eta Gatzagako Soran Etxea hotelak bat egin du horiekin, Debagoieneko beste bost jatetxerekin batera. Urriaren 29tik abenduaren 12ra bitartean iraungo dute jardunaldiok eta Idiazabal gazta eta onddoak osagai nagusi dituzten menu bereziak eskainiko dituzte Soranen.

**GAZTA ETA ONDDOAK**

Aurreko bost jardunaldietan ere hartu dute parte, izan ere, Soran Etxeko ugazabak ekimen interesgarri guztietan parte hartzeko gertu daudelako: "Jardunaldiek batez ere publizitatea egiten digute, eta hori beti da ona jendea ekartzeko gurera", dio Loren Larrañaga ugazabak.

Idiazabal gaztarekin eta onddoekin egindako menu bereziak egin ditu Larrañaga sukaldariak: "Guk uste dugu menu goxoak direla eta prezio onean; menu guztiak 30 euroren bueltan dabiltzalako", dio. Menu horiek eskatzeko aurrez deitu beharra dago.

**JANGELA HANDIA OTSAILEAN**

Bestalde, Soran hotelean logela batzuk kendu eta lehenengo solairuan 150 bat lagunendako jangela egiteko asmoa daukate: "Talde handiendako lekua izateko". Proiektua eskuartean dute, baina lanak egiteko seguru asko otsail inguru arte itxingo dute: "Otsaila oso hilabete tristea izaten da: negua betebetean eta jende gutxi. Horregatik seguru asko orduan egingo ditugu berritze lan horiek", azaldu du Larrañagak.



**> FUTBOLA**
Asteburu negargarria gure taldeentzat, denek galdu dute **> 22-23**



**> ESKUBALOIA**
32 eta 31 irabazi du Soraluce BKEk Loiola In dautxuren kontra **> 24**



**> SASKIBALOIA**
Ia bikoiztu egin zuen markagailuan Eskoriatzak Añorga **> 24**

# Borroka latzaren ostean, berdinketa garaipena liteke

**DERBYA**
Elkar ondo ezagutzen duten taldeen arteko tentsioa nabari zen

**ZELAIA**
Hareazko zelaia, etxekoentzat ona eta kanpokoentzat txarra

ARIZMENDI
**2-2**
MONDRA



Zelai erdialdeko jokoa nagusitu zen gehien bat. JOSETXO ARANTZABAL

**KAPITAINEK DIOTENA**

**Ane Gartzia**
Arizmendi

"Mondrakoen aurka nabari da derbia dela ze lehen momentutik irten gara gogoz . Nik zazpi urte daramazkit futbolean eta sekula ere ez ditugu garaitu. Talde gogorra da. Berdinketa emaitza ona izan da guretzat, ze defentsa ona daukagun arren oraindik ere golak falta zaizkigu ".

**Maitane Roa**
Mondra

"Jakin bagenekien Almenen ezingo genuela gure jokoa egin. Ez gaude ohituak hareazko zelaian jokatzen, Mojategira gaude gu ohituak, zelai handiago eta belarrezkora. Horrek asko eragin du gure jokoan eta baita ere oraindik hobetu guran gabiltzan defentsan eta atearen zaintzan. Oso borrokatua izan du".

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

Borroka latza eta izerditsua izan zuten zapatuan Almenen Emakumezkoen Ligan. Derbiak derbi dira eta tentsio estra hor dago beti baina, agian, zapatuko kasuan berdinketa garaipen bikoitza izan daiteke. Inondik inora, porrotik ez zuen talde batek ere merezi.

Bazekiten Mondrakoek lehen buelta porrotik gabe amaitu izana ez zela berme nahikoa izango. Almeneko hareazko zelaiak garaipena garesti kobratuko ziela ere jakitun ziren eta etxekoek lehen momentutik erakutsitako grina ikusita, berdinketa sari moduan ere har zezaketen. Hain zuzen, puntu bat Arizmendikoen aurkako penalti bati esker lortu zuten. Izan ere, Arizmendiko nesken kemena oso kontuan hartzekoa izan zen lehen zatian batez ere, zelai erdian zentraturiko jokoarekin, baloiak gora eta behera egin zuelako eta atsedenera 1 eta 0ekoarekin joan zirelako. Bigarren zatian etorri zen emozioa.

**BIGARRENEAN EMOZIOA**

Berdinketa 56. minutuan, justu justuan, erdietsi zuten Mondrakoek, lehen puntua penalti bati esker lortu eta gero. Orduantxe okertu zitzaizkien gauzak etxekoei. Defentsa irmoa dutela dio Ane Gartzia Arizmendiko kapitainak, baina oraindik ere goletarako bidea gaitz egiten zaiela. Ikusi zen hori. Hala ere, Almeneko neskek indartsu jokatu zuten Arrasateko arerio indartsuaren aurrean. Haiek, baina, zorioneko penaltiaren ostean suspertu eta defentsako ahuleziak gora-behera, amaiera amaieran lortu zuten berdinketa eskuratzea. Hortaz, arnasa lasai hartzerik ez zuten izan, ez etxekoek ezta kanpokoek ere . Oso garesti egon zen zapatuan zerbait lortzea. Eta, hain justu ere, "borrokatua" da bi kapitainei galdetuz gero ahora datorkien lehen berba. Etxekoek ondo baliatu zuten zelai ezagunean jokatzea eta bisitariek aurreko partiduen garaipenen berme ona eta gehiago behar izan zuten eragozpen guztiei aurre egiteko. Hala, batetik edo bestetik baina oso neurtuta ibili ziren bi taldeak eta berdinketa, azkenean, bidezko emaitza izan zen bi aldeetan, erakutsitako kemena ikusita.



Arizmendi taldea. J.A.



Mondra taldea. J.A.

**OHOREZKO ERREGIONAL MAILA** > ZORTZIGARREN JARDUNALDIA

# Lehia berdindu eta dena alde jarri arren, porrot arrasatearrek

Iker Lopezen golaren ostean, hamarrekin lortu zuten kanpokoek bigarrena

Euren bi golak zati bakoitzaren azken minutuan izan ziren



Trintxerperen aurreneko gola ekarri zuen falta jaurtiketa: Mondrako atezain Anderrek ukitu zue

MONDRA
**1-2**
TRINTXERPE

**Mondra** > Ander, Kepa (Iregi, 86. min.), Loiti, Tena, Andres (Roa, 46. min.), Ekain, Oier, Jokin Pavo (Moreno, 75. min.), Murua, Iker Lopez eta Zabaleta (Azkarate, 49. min.).

**Trintxerpe** > Fontan, Aitor Otamendi, Ion Zugarramurdi, Arregi, Sanchez (Fernandez, 74. min.), Celihueta, Kheirredine (Igarreta, 70. min.), Garcia, Uranga (Cabero, 80. min.), Cachafeiro (Madariaga, 67. min.) eta Zabala (Saenz, 62. min.).

**Epailea** > Igor Anduaga Sanchez.

**JULEN IRIONDO** > ARRASATE

Jarraian irabazitako hiru partiduko bolada onari amaiera eman zion zapatuan Mondrak; eta amaiera jarri zion, gaizki jarri zitzaion partidua berdintzea lortu eta Trintxerpe hamar jokalarirekin geratuta, dena alde zuela emanten zuenean. Futbolean zati bakoitzak 44 minutu iraungo balitu, agian etxean geratu izango zatekeen garaipena, baina atsedenaldia eta arauzko denbora bete baino minutu bat lehenago jasotako bi golek kondenatu zuten Iban Rodriguezen taldea.

Partidua nahikoa orekatua izan zen, oro har. Lehenengo zatia, joan-etorrikoa izan zen; inork ez zuen jokoaren kontrol nabarmenik izan. Mondrak izan zituen arriskua sortzeko moduko zenbait egoera, baina jokaldia amaitzen ez zuten asmatzen etxekoek, azken pasean pattal zenbaitetan. Aurreneko zatiko aukera garbienak Trintxerpek egin zituen. Lehenengoa 10. minutuan, zelai erditik baloi luzea jota eskuin hegalera, hondoko marratik atzera pasea eta kanpokoen bolea polita kanpora; laster izan zuten beste aukera bat ere, hau garbiagoa: Mondrako atzelarien artetik pasea jaso zuen Gartziak, eta Ander atezainaren aurrean bakarrik geratu, baina Gartziaren jaurtiketa ondo geratu zuen Anderrek.

Baina hirugarrenean bai, hirugarrenean iritsi zen gola: area ertzean falta egin zion Andresek Trintxerpeko jokalari bati, eta faltaz sartu zuen baloia Urangak. Anderrek hatz puntekin ukitu zuen, baina zutoina jota barrura joan zen.

Bigarren zatia lehenengoa moduan hasi zen; aukera bana izan zuten talde biek –Mondrarena Muruak buruz, gutxigatik kanpora–, eta 60. minutuan iritsi zen berdinketa: Jokin Pavok metro gutxian baina goitik baloi polita jarri zion Iker Lopezi, eta honek ez zuen atezainaren aurre-

**OHOREZKO ERREGIONAL MAILA** > ZORTZIGARREN JARDUNALDIA

# Gola egitea zer den ahaztu zaie oñatiarrei



Roberto Idigoras ez dabil fin aspaldian ate aurrean. JOSETXO ARANTZABAL

Partidu eskasa jokatu zuten gorriek eta, kanpokoek gehiago merezi izan ez zuten arren, azken txanpan kontraerasoan gola eginda irabazi zuten

ALOÑA MENDI
**0-1**
HONDARRIBIA

**JULEN IRIONDO** > OÑATI

Kezkagarria; oso kezkagarria. Halakoxea da Aloña Mendiren egoera. Jokoa: aspalditxoan asmatu ezinda ari dira oñatiarrak; Azkoagain: beti izan da gotorleku etxeko taldearendako, baina utzi dio izateari; emaitzak: azken bost partiduak galdu egin ditu Pablo Diezen taldeak –ez da ez duela alerik irabazi, denak galdu ditu–; gola: azken bost partidu horietan gol bakar bat ere ez dute egin oñatiarrek –450 minutu dira horiek kontrarioaren atea zulatu gabe–. Egunen batean amaitu beharko du bolada txar honek, baina noiz? Oraingoz ez zaio itxurarik hartzen.

Hondarribia izan zuen atzo aurkari Aloñak Azkoagainen; aukera ona garaipena lortu eta kostaldekoak sailkapenean atzetik uzteko. Eta partidua hasi eta gutxira izan zuten oñatiarrek bideratzeko aukera. Roberto Idigoras bakar bakarrik geratu zen atezainaren aurrean, baina huts egin zuen. Ez dabil fin aspaldian: "Robertorekiko mendekotasun handia du taldeak, eta ondo ez dagoenean asko igartzen dugu", zioen penatuta Pablo Diez Aloñako entrenatzaileak partiduaren amaieran.

**BIGARREN ZATIAN GORA**

Partidua parekatua izan zen, borrokatua, sailkapenean ondo ez dauden bi talderen artekoa, eta tentsio hori igarri zen zelaian ere. Bigarren zatian aurrera egin zuten oñatiarrek, golaren bila. Hondarribiaren zelai zatian jokatu zen denbora gehiena, nahiz eta aukera gehiegi izan ez.

Aloña Mendiren aldeko falta batetik etorri zen partiduko gol bakarra. Azken ordu laurdenean sartuta zegoen partidua. Falta atera baina oñatiarrek jokaldia amaitu ezin, eta kontraerasoan egin zuten 0 eta 1ekoa Hondarribikoek.

Handik amaierara saiatu ziren sikiera puntu bat urratzen Aloñakoak, baina buruarekin baino gehiago bihotzarekin jokatu zuten. Dena dela, aukera on bat izan zuten oraindik etxekoek: Jon Lertxundi –gazte mailako jokalaria da, baina Julen Palacios min hartuta egonda Diezek deitu egin zuen eta baita jokatzeko aukera eman ere– Hondarribiko atezainaren aurrean bakarrik geratu zen, baina kanpora bidali zuen baloia. Atetik ateratzeko aukerarik ere ez zuen eman epaileak, hortxe amaitu zen partidua eta eman zioten jarraipena oñatiarrek aspaldian bizi duten amesgaiztoari. Irailaren 25ean lortu zuten orain arteko azken garaipena, 2 eta 0 etxean Ondarroako Aurreraren kontra.

Datorren jardunaldian Trintxerperen zelaian jokatuko du Aloña Mendik. Zapatuan Mojategin izan ziren Pablo Diez gorrien entrenatzailea eta Ismael Egaña bigarrena, hurrengo kontrarioa aztertzen. "Ez zitzaidan gu baino gehiago iruditu, eta irabaztera joan behar dugu", zioen Diezek.



n baloia, baina zutoina jo eta barrura joan zen hala ere.

JOSETXO ARANTZABAL

an barkatu; behetik, lehenengo zutoinetik, baloia barrura.

Handik aurrera aukera on pare bat talde bakoitzarentzat eta 77. minutuan Trintxerpeko Otamendi kalera, protesta egiteagatik txartela ikusita.

Bi faltatan buruz izan zuen aukera garbi bana talde bakoitzak –Mondrarena atzera Muruak–, eta kanpokoek lortu zuten azkenean bigarren gola: atzean huts egin zuten arrasatearrek eta ondo aprobetxatu zuen Gartziak. Ez zen gehiagorako denborarik izan.

Berezia izan zen zapatukoa Trintxerpeko entrenatzailearentzat; izan ere Josu Zubia ari da aurten lan horietan, zortzi urtez Mondran teknikari ibilitakoa.



JOSETXO ARANTZABAL

## Kanpokoak nagusi eta lider aldaketa gazteen Mondra-Aloña derbian

Gazteen Ohorezko mailako derbia ere jokatu zen zapatuan Mojategin Mondra eta Aloña Mendiren artean, eta oñatiarrak 0 eta 2 nagusitu ziren. Aimar Lizarrak eta Eneko Azurmendik egin zituzten gorritxoen golak, biak lehenengo zatian. Batez ere lehen zati horretan nabarmen izan ziren Mondra baino gehiago Aloñakoak. Bigarren zatian apur bat parekatu ziren gauzak, baina etxekoak hamarrekin geratuta gol gehiago egiteko aukerak izan zituen Aloñak. Eurak dira orain lider, eta Mondra bigarren.

**OHOREZKO ERREGIONALA** > ZORTZIGARREN JARDUNALDIA

# UDA eta Bergara, kanpoan galtzaile

Aurkaria baino hobea izan arren Pasaian galdu zuen Aretxabaletak eta, aurretik joanda, Ordizian Bergarak

**JULEN IRIONDO**> ARRASATE

Gaizki hasi zen partidua Aretxabaletarendako Pasaian. Hirugarren minuturako aurretik ziren pasaitarrak, korner batean estrategiaz gola eginda.

Handik aurrera, baina, jaun eta jabe izan ziren Rafa Barrutiaren mutilak; horren erakusle, datu adierazgarri bat: 12 korner atera zituen lehenengo zatian UDAk. Bigarren zatian ere ondo jokatu zuen, baloia edukiz, baina beste korner baten bigarrena egin zuen Pasajesek, oraingoan defentsan huts eginda.

**BERGARAK BI ZATI**

Mahoneroek ostera bi zati oso desberdin jokatu zituzten Ordizian. Aurrenekoan ondo ibili ziren, atzean eutsiz eta kontraerasora atereaz. Horietako batean gola egin zuen Imanolek.

Asmo berarekin atera ziren bigarren zatian bergararrak, baina taldeak lekua galdu zuen, eta bigarrena egiteko aukera ere eduki arren, Ordiziak bueltа eman zion emaitzari.

> GAZTEEN LIGA NAZIONALA

## Sailkapeneko alderik zelaian ikusi ez arren, azken txanpako golekin Durango nagusi Aretxabaletan

Hamaika hamaikaren kontra ibili ziren bitartean ez zen alde handirik izan Ibarran, bigarrenaren eta azkenaurrekoaren artean. Lehenengo zatia hutsean amaitu zen, eta aukerak ere antzera sortu zitutzen batzuek eta besteek. Etxekoek zutoin bat ere jo zuten. Baina bigarren zatia hasi eta gutxira Brian egotzi zuen epaileak, eta lanak pilatu egin zitzaizkien UDAkoei. Durangoko jokalari batek sorbalda atera zuen, eta partidua etenda egon zen denbora askoan. 90. minututik aurrera egin zituzten bizkaitarrek hiru golak.

> GAZTEEN EUSKAL LIGA

## Laudioren kontra bigarren zati hasieran gola jaso eta irabazi ezinik jarraitzen du Bergarak

Eta hori mahoneroek ere izan zutela golen bat egiteko adina aukera garbi, arabarrek baino gehiago. Lehenengo zatian aukera on bana izan zuten bi taldeek, atezainaren aurrean bakarrik, baina ez zuten asmatu eta atsedenaldian husnakoa zen emaitza. Baina bigarren zatian, minutua bete aurretik, korner batean egin zuten gola Laudiokoek. Partiduko azken ordu erdia arabarren zelai zatian jokatu zen, baina baloirik ez zen sareetan sartu, nahiz eta aukera garbiak izan eta baloi bat langara ere bidali zuten etxekoek.

ZER DIOTE DEBAGOIENEKO MENDIZALEEK?

ZER DIO ENPRESAGINTZAKO DEKANOAK?

**ESKUBALOIA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# Elkarri arnasarik hartzen utzi barik garaipena etxekoena izan zen azkenik

Neurriko arerioaren aurrean armategi osoarekin irabazi zuten: erantzun azkarra, jokaldi biziak eta defentsa irmoa. Halere, eskuetatik ihes egin zien garaipenak ia-ia

SORALUCE BKE
**32-31**
LOIOLA INDAUTXU



Joko oso erasokorra egin zuten bi taldeek. JOSETXO ARANTZABAL

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

Indarrak ezin izan zituzten parekoago izan bi taldeek. Nagusitasuna, orohar, bergararrena izan zen baina bizpahiru puntukoa uneoro eta espero zen moduan, amaiera ezin borrokatuagoa izan zen: gol bakarreko aldea azken bi minutuetan, penaltia Bergarakoen kontra eta Indautxuarrek huts. Zoriak zeresana izan zuen. Oso gutxigatik, hortaz, ia berdinketa eta tentsioa azken momentura arte. Inor ez aspertzeko moduko partidua; beherakadarik gabekoa gura zuten eta baita lortu ere, aurkariak ez zien utzi arnasa lasai hartzen-eta. Gogor hasi ziren Indautxukoak erasokor eta joko azkarrarekin. Mahoneroen hasierako hautua izan zen joko dotorea, jokaldi zabal eta iskin onekin, baina berehala konturatu ziren bilbotarren hortzei letaginak ateratzea izango zela onena eta mahoneroek, gero eta erosoagoa zaien joko azkar eta oldarkorrarekin, erantzuna eman zieten. Lehen zatiaren erdirako kontrakoen marka berdindu eta abantaila hartu zuten; puntu gutxikoa. Bigarren zatirako berdin jarraitu eta defentsa irmotu zuten etxekoek. Atezaina ere bikain. Hala ere, guztia izan zuten beharrezko, ezin izan zuten-eta momentu baten ere bi puntuko aldea gainetik kendu. Borroka gogorra izan zen; nerbio handiko bi talderen artekoa.

**SASKIBALOIA**

## Eskoriatzak Añorgari 67-36 irabazi zion

Presioa eta egindako defentsa ona izan ziren partiduaren gakoak

**ANDER MONEDERO** > ESKORIATZA

Erraz irabazi zuen Eskoriatzak zapatuan Añorgaren kontra jokatutako partiduan.

Hasieratik goian presionatzera irten ziren eta Añorgak ezin izan zuen presio hori jasan. Taldeak duen abiadura erabili zuen donostiarrei min egiteko.

Lehenengo bi zatietan eskoriatzarrek defentsan egindako akatsak ez zituzten aprobetxatu Añorgakoek eta markagailuan diferentzia handiarekin joan ziren atsedenaldira.

Gero intsentsitatea galdu zuten eskoriatzarrek baina orduirako donostiarrak galdutzat jo zuten pardidua.

**ASTE HONETAN, DONOSTIAN**

Asteburuan Donostian jokatuko dute Alde Zaharrean kontra Eskoriatzako neskek.

Debagoieneko
**PROFESIONAL LIBERALAK**

**ABOKATUAK**

**BERNARDINO MAIZTEGI**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
Bergara / Irizar 2
T: 943 76 03 35

**LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER**
Arrasate / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
*altu-lasa@conet.es*

**RAFAEL ARANBURU**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL**
Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
*zenbaki@zenbaki.es*

**AHOLKULARITZAK**

**AIERDI AHOLKULARITZA**
Bergara / Artekale 1
T: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
*andrama@arrakis.es*

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
*asegi@asegim.com*

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
*zenbaki@zenbaki.es*

**ARKITEKTO TEKNIKOAK**

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

**ETXE ADMINISTRAZIOAK**

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
*uribesalgo@telefonica.net*

**PROKURADOREAK**

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.


2.KONTZERTUA
azaroak
5
EGUBAKOITZA
22:30
ELGETAKO KAFE ANTZOKIA
SARRERAK ETA ABONUAK // SALGAI DAUDE:
1> GOIENAKO EGOITZETAN
2> 943 25 05 05 ZENBAKIAN
3> ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN
SARREREN SALNEURRIA 5 EURO // GAZTEKUTXAREKIN 3 EURO
ABONUA 22 EURO // GAZTEKUTXAREKIN 12 EURO
EL TRIO CALAVERA
OÑATI
ROCK PRIVADO
OÑATI-DONOSTIA
FRONT MALABAR
ARRASATE
YMOTEK
ABADIÑO
DANBAKA
IV. MUSIKA LEHIAKETA
DEBABARRENADEBAGOIENADURANGALDEA
www.danbaka.com
BABESLE NAGUSIA
kutxa gazte
LAGUNTZAILEA
PREST
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
Elgetako Udala
gaztelupeko HOTSAK www.hotsak.com
SHOT!
PIL-PILEAN
eta kitto!
Euskara Elkartea
GAURKO grupo SEIN taldea
GANESHA TATTOO ARRASATE
laino SKATEPARK
anboto komunikabideak
drogetenitturri
ANTOLATZAILEAK
Goiena 10 URTE
Komunikazio Zerbitzuak
KAFE ANTZOKIA espaloia ELGETA

Iñaki Mendibil > Pol-Pol mendi taldeko presidentea

# "Pol-Pol mendi elkarteak lokala behar du, jendearen eskaerei erantzuteko leku bat"

XABIER URTZELAI > BERGARA

**Bergarako Pol-Pol mendi taldeak 68 urte bete ditu, eta aspaldiko urteotan bazkide gehien batzen dituen kirol taldea da, 700 bazkiderekin. Eguenean ezohiko batzarra egin zuten, uztail amaiera ezkero lokal barik daudelako. Eta batzarra egin baino apur bat lehenago jaso zuten Udalaren erantzuna, argazkilaritza taldeokoekin lokala partekatzea. Horren eta beste kontu batzuen gainean egin dugu berba presidentearekin, Iñaki Mendibilekin.**



Iñaki Mendibil, egueneko batzarra hasi aurretik, Miguel Atuna institutuan. ARANTZAZU EZKIBEL

**Uste baino lagun gehiago elkartu zineten eguenean.**

Bai, jende askotxo batu ginen, eta, horrelako batzarrek izaten duten arrakasta ikusita, zenbateko polita dela uste dut. Horrek erakusten du jendea arduratuta dagoela Pol-Polek dituen arazoekin, mendi taldearen etorkizunarekin.

**San Inazio egunean utzi zenuten lehengo lokala, uztailaren 31n. Ordutik hona, zer?**

Mendi taldearen artxiboa, mapak, liburuak... oraindik lehengo lokalean daude, eraikinaren jabeak horretarako baimena eman digulako, baina horrela ezin dugu luzaroan egon. Bestalde, gauzak oraindik lehengo lokalean baditugu ere, ezin gaitezke han aurrera eta atzera ibili, jendeari ezin diogu han arretarik eskaini.

**Eta zelan egiten dituzue mendi taldearen tramiteak?**

Idazkaria etxetik ibiltzen da, edo lanean, Internet dagoen edozein lekutan. Kontua da laster hasiko garela datorren urteko federatuen tramiteak egiten, eta horretarako leku bat behar dela. Egokitu zaigu jendearen datuak taberna baten hartu behar izatea, elkarteren baten, edo kalean. Pentsa, 400 lagun inguru federatzen dira urtero, horrenbestez...

Alde horretatik, jendeari esan nahi diogu posible dela federatu txartela Internetez egitea, *www.pol-pol.net* webgunean. Gauden egoeran, guri asko erraztuko liguke jendeak Internet erabiliko balu.

**Besteak beste, aurten ezingo duzue mendiko materialaren bigarren eskuko azokarik egin.**

Ez, eta pena da, jende asko etortzen zelako erabiltzen ez zuen materiala uztera edo bigarren eskukoa erostera. Baina ez, ez dugu azoka hori non antolatu.

**Batzarra hasi baino apur bat lehenago jaso duzue Udalaren erantzuna.**

Halaxe da, ordu erdi lehenago, baina erantzuna jaso izana bada albiste ona, ni asko poztu nintzen. Udalaren proposamena da argazkilaritza taldekoekin Zabalotegin daukaten lokala elkarbanatzea. Egia esan, nik momentuan ez dut aukera hoberik ikusten, alokairuak garesti daudelako eta Pol-Polek orain momentuan ez duelako lokal bat erosteko gaitasunik. Baina bazkideon artean erabaki beharko dugu arazo horri ze irtenbide eman. Izan ere, ez du irtenbide errazik.

**Zer diote argazkilariek?**

Batzarrean egon zen euretako bat, eta esan zuen zail ikusten zuela bi taldeak batzea, besteak beste, eurek ikastaroak antolatzen dituztenean elkarri traba egingo geniokeelako. Garbi daukaguna da guk ez dugula nahi orain inorekin haserretu, eta ohitura batzuk ere aldatu beharko ditugula.

Izan ere, lehen Pol-Pol egunero egoten zen zabalik eta etorkizunean, agian, horrek aldatu egin behar du. Argazkilariek ikastaroa dutenean guk ez dugu zertan traba egitera joan. Esan dudan moduan, akaso, astean egun batez egon behar du Pol-Polek zabalik. Urtean zehar ez dugu horrenbesteko mugimendurik izaten, baina federatzeko kanpaina hasten denean bai.

**Ibili zarete merkatuan dauden lokalak ikusten?**

Bai, denbora luzea eskaini diogu horri. Eta alokairuan hartzeko guztiak daude 400 eurotik gora. Urte amaieran hori diru asko da, eta urteak eta urteak ibiltzea horrelako alokairu bat ordaintzen... Bestalde, lokal bat erosteko gauza asko aldatu beharko genituzke, taldea beste modu baten eratu beharko dugu.

"Aurten ezingo dugu mendiko materialaren bigarren eskuko azokarik egin, ez dugu lekurik"

"Ohiturak aldatu egin beharko ditugu; agian, Pol-Pol ezin da egunero zabalik egon"



Institutuan egin zuten batzarreko une bat; geroago, jende gehiago batu zen. X.U.

## Talde bat sortu dute lokalaren arazoari aurre egiteko

Eguenean egin zuten batzarrean, egungo zuzendari taldeak garbi esan zuen lokalaren arazoarekin buruhauste bat baino gehiago izan dutela, eta ez dutela inongo laguntzarik jaso, ezta bazkideena ere. Hala, arazoari modu hobean heltzeko komisio moduko bat sortu dute, bost lagunez osatutakoa, eta talde hori buru-belarri jarriko da arazoari irtenbidea bilatzeko lanean –aste barruan dute lehenengo batzarra-. Horrela, egungo zuzendaritza taldeak elkarteak dituen gainontzeko lanekin jarraitu ahal izango du.



Iazko Gurasolandian, umeak eta gurasoak aurpegiak margotuta. TXATXILIPURDI

**AISIALDIA** > GURASOLANDIA

## Bihar, martitzena, abiatuko da Gurasolandia 2010

**L.Z.** > ARRASATE

Gurasoei bideratutako ekintza sorta da Gurasolandia, Txatxilipurdi elkarteak aurten bigarrenez antolatu duen egitasmoa, hain zuzen ere. Ekintza ludiko gehienak aste bukaerarako iragarri dituzte, baina bihar hasita gurasoei zuzendutako hiru hitzaldi egingo dira Arrasaten.

**HIZKUNTZA TRANSMISIOA**

"Gurasolandia antolatzen dugu azpimarratu nahi dugulako hizkuntzaren transmisioan gurasoek duten garrantzia", esan dute Txatxilipurditik. Iaz bi eguneko egitaraua egin zuten eta aurten aste osokoa izango da. "Euskal hiztun diren gurasoendako bideratzen dira ekintza gehienak", azaldu dute antolatzaileek. "Baina uste dugu euskalduntze bidean dauden gurasoendako ere positiboa izan daitekeela bertan parte hartzea".

**EKINTZA GUZTIAK DOAN**

Gurasolandiako ekintza guztiak doan izango dira, eta, Mihiluze lehiaketarako salbu, ez da beharrezkoa aldez aurretik izenik ematea. Gainera, ekintza guztiak daude guraso guztiei zabalduta, arrasatekoak izan edo ez. Hitzaldi sortari dagokionez, sare sozialen gainekoa *guraso.com* webgunean zuzenean ikusteko aukera egongo da eta guztietan zaintza zerbitzua eskainiko dute.

### Gurasolandia 2010 - Egitaraua

**Azaroak 2, martitzena**
**18:30:** Hitzaldia, Kulturaten.
Gaia: Sare sozialak.
Zaintza zerbitzua egongo da.

**Azaroak 3, eguaztena**
**18:30:** Hitzaldia, osokoen aretoan.
Gaia: Gurasotasuna.
Zaintza zerbitzua egongo da.

**Azaroak 4, eguena**
**18:30:** hitzaldia, Kulturaten.
Gaia: Elikadura.
Zaintza zerbitzua egongo da.

**Azaroak 5, egubakoitza**
**17:30:** Psikomotrizitatea, Kulturaten.
Haurrendako eta gurasoendako.
**17:30:** Hankapaluak eta balance-bikea, Biteri plazan.

**Azaroak 6, zapatua**
**10:30:** Haur masaje tailerra, Okendoko ludotekan.
Haurrendako eta gurasoendako.
**11:00:** Euskal dantzen ikastaroa, Kulturateko Loramendi gelan.
Haurrendako eta gurasoendako.
**17:00:** Ipuin kontaketa, Okendoko ludotekan.
Haurrendako eta gurasoendako.
**18:00:** Mihiluze txapelketa, Kulturateko areto nagusian.
Haurrendako eta gurasoendako.

**Azaroak 7, domeka**
**09:00:** Mendi irteera Besaidera, Arbolapetatik abiatuta.
Haurrendako eta gurasoendako.
**17:00:** Sormen tailerra, Herriko Plazan.
Haurrendako eta gurasoendako.
**18:00:** Karaokea eta disko jaia, Herriko Plazan.
Haurrendako eta gurasoendako.

> BAIMENAK

### Europako Parlamentuak 20 asteko amatasun baja onartu du; 27ek akordioa egin behar dute orain

Gurean lau hilabeteko amatasun baja zena orain bost hilabetera luzatzea da onartu dutena, eta tarte horretan langilearen soldata ez murriztea ere onartu dute. Eztabaida, une honetan, ekonomikoa da: Erresuma Batua, Alemania eta beste hainbat estatu proposamenaren aurka agertu dira. 27ek, orain, akordioa egin beharko dute ekimena behin betiko onartzeko. Negoziazioak zailak izango direla aurreikusten da.

**HEZIKETA** > EZTABAIDAK

# Gurasoen arteko eztabaidek eragina dute seme-alabengan

Familia guztietan daude eztabaidak, baina seme-alabak ditugunean kontuan hartu behar dugu eztabaidek eurengan duten eragina



Neskatoa negar egiten. PABLERAX

**LARRAITZ ZEBERIO** > ARRASATE

Inor ez da perfektua, eta gerta liteke bi lagunen artean adostasunik ez egotea. Orduan, eztabaida pizten da. Eztabaida horrek hartzen duen tonua zaindu behar dugu, batez ere seme-alabak aurrean ditugunean.

Ez da txarra umeek ulertzea iritzi kontrajarriak egon daitezkeela. Horrelakoak gertatzen direnean gauzak hitz egin behar direla ikusteak ez die batere kalterik egingo, baina eredu garen aldetik mugak ipini behar dizkiegu eztabaida horiei eta zaindu egin behar dugu erabilitako tonua. Garrasika hasten bagara, umeek sufritu egingo dute.

**ERANTZULE SENTITZEN DIRA**

Umeak oso sentiberak dira gurasoen arteko eztabaiden aurrean. Txikienak beldurtu egin daitezke gurasoen oihuekin. Denboraldi batez elkarri hitzik egiten ez badiote ere, umeak jabetu egingo dira eta asko kezkatuko dira. Pentsa dezakete gurasoak banandu egingo direla eta familia apurtu egingo dela. Gainera, sarri eztabaida horien erantzule sentitzen dira eta somatizatu egiten dute arazoa. Burukominak, lo hartzeko arazoak, urduritasuna... gerta daiteke ere eskolara joan nahi ez izatea. Gurasooi arduraz jokatzea dagokigu. Zaila izan arren, eztabaidak neurtu egin behar ditugu.

**FAMILIA** > HEZIKETA

## Txiki-txikitatik erakutsi behar diegu ezetz esaten

**L.Z.** > ARRASATE

Gogoz kontra beti atezain dagoen umea, lagunek eskatzen diotelako hamaiketakorik gabe gelditzen dena... ezetz esatea trebetasun bat da eta ikasi egiten da, adituen esanetan. Beatriz Ezeizak trebetasun horren inguruko hainbat argibide eman ditu Euskadi Irratiko *Mezularia* saioan.



Aita eta mutikoa jolasten. LUROGO

**PERTSONALITATEA INDARTZEA**

2-3 urte bitarteko umeak berresteko etapan daude eta guztiari esaten diote ezetz. "Etapa hori ez da esanguratsua", esan du Ezeizak. Baina adierazi du ordutik hasi behar dela ezetz esaten erakusten. Adituaren esanetan, ezetz esatearen beldur diren umeekin egin beharreko lehenengo lana pertsonalitatea indartzea da, euren buruengan konfiantza izan dezaten. "Ez da ausartzen ezetz esatera, pentsatzen du lagunak indartsuagoak direla edo botere handiagoa daukatela, horrela adierazi direlako beti".

Ezeizaren esanetan, haurrak ikasi behar du zenbait egoera ez direla positiboak berarendako. "Jakin behar du errespetua merezi duela eta lagunek eskolako atsedenean bere hamaiketako zati bat eskatzen diotenean ez dela berarendako positiboa guztia banatu eta batere gabe gelditzea". Adituak gaineratu du umeak inguru guztietan aurkituko dituela bera baino botere handiagoa dutenak eta ikasi egin behar duela bere tokian jartzen. "Ez dugu guztia onartu behar".

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com

## Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

# hemen bada giro!

### Arlutz taberna

TABERNA ARLUTZ

Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

### Anduaga Jatetxea



Eguneko menua | Bokatak
Plater konbinatuak | Errazioak

Araba Ibilbidea 31, behea | Aretxabaleta | 943 79 96 54




DORLETA TABERNA
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA

### OTZETA JATETXEA



Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

### B A S A B E




Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 31 19

### HIRUSTA JATETXEA



Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57



### Matikua jatetxea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68




Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

### IOSU

taberna
haragtegia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08





> TXISTULARI EGUNA
Txistuen doinu alaia zabaldu zuten Eskoriatzatik barrena > 30



> ASUN ARRAZOLA
Historia ikasteko oinezko lezioa egin zuten Oñatin Arrazola oroituz > 30



> DAN BAIRD
Georgia Satellites-eko liderrak rock-and-roll ikuskizuna egin zuen > 31

# Musikaren indarra eta zirrara gaixotasun arraroen aurka

**MUSIKA**
Mi Hermana Corina, NYZZ eta The Longfathers taldeak Elgetan

**'WALK ON PROJECT'**
Gaixotasun arraroen ikerkuntza bultzatzeko ekimenean jo zuten



Hertzainak taldeko Gari, NYZZ taldearekin batera. JOSETXO ARANTZABAL

**ANDER MONEDERO** > ELGETA

Gaixotasun arraroak jasaten dituzten haurren egoera hobetzeko, eta gaitz horien ikerketa finantzatzeko dirua lortzeko asmoarekin jo zuten Mi Hermana Corina, NYZZ, The Longfathers taldeak zapatu gauean Elgetako Espaloian.

Mi Hermana Corina izan ziren oholtza gainera igotzen lehenengoak Walk on Proiect (WoP) elkarteak antolatutako jaian. Bilbotarrak fin aritu ziren eszenatokian eta eurek lantzen duten pop-rock doinuak publikoa lehengo lerroetara erakarri zuen. Gazteleraz eta ingelesez abesten dute eta nahiz eta azken urtean formazio aldaketak izan, taula gainean 10 urte daramatela antzeman zen.

Lehenengo taldearen emanaldia bukatu bezain laster, Hertzainak taldeko abeslari izandako Gari igo zen eszenatokira. Gitarra gainean jarri eta 'Jontxu'-rentzat – Mikel Renteria Walk on Projecteko sortzailearen semearentzat– itxaropenez beteriko mezu bat bidali zion eta Amets abestia kantatu zuen. Ondoren, Renteriaren taldea, NYZZ, agertokira igo eta 'Walk on' abestia jo zuten. Hori jo ondoren, Garik gitarra utzi eta sintetizadorea hartu zuen taldeak egindako azken abestia jotzeko.

Gero legazpiarrak eszenatokia utzi eta taldeak egindako abestiak eta Neil Young-en abestiak tartekatu zituen, eta baita ere Creedence Clearwater Revival taldeko 'Born On The Bayou' kantua. Bukatzerakoan, Espaloian bildutakoei eskerrak eman zizkien, bereziki Bilbotik etorritako denei. Gauak aurrera egin zuen The Longfathers taldearekin. Hauek ere rock klasikoa joz animatu zuen Elgetako publikoa.

**ANTOLATZAILEAK POZIK**

*Walk on Project* elkarteko buru den Mikel Renteria pozik azaldu zen aurreko astean Bilbon eta zapatuan Elgetan egindako kontzertuek izan duten harrerarekin. Bi emanaldi horietan ateratako diruarekin eta NYZZ taldeak aurki grabatuko duen diskoaren etekinekin gaixotasun arraroak ikertzeko proiektu bat finantzatzea da beraien helburua.

Ekimen honetan parte hartu duten guztien laguntza desinteresatua izatea hunkigarria dela adierazi zuen Mikel Renteriak.

**ZER DERITZOZU EKIMEN HONI?**



**Mikel Renteria**
Walk On Project-en sortzailea

"Horrelako egoeretan bi aukera dituzu: bat hondoa jotzea da eta bestea aurre egitea da. Hori da proiektuaren oinarria, aurrera egitea eta itxaropena ez galtzea, nire semearengatik borrokatzea".



**Adrian Castro**
Ikuslea

"Ekimena ezagutzearekin batera, gaixotasun arraroak tratatzeko dituzten arazoak ezagutu ditut; badaude beste era batzuk, baina musika jendearengana heltzeko modurik bereziena da".



**Alex Iturbe**
NYZZ taldeko musikaria

"Gaixotasunaren berri jakin eta elkartea egitea erabaki genuen. Aurrera begiratzea da gure helburua, eta egoera honek sortzen dituen oztopoei aurre egiteko musika erabiltzen dugu".

**MUSIKA** > LEINTZ BAILARAKO TXISTULARI EGUNA

# Euria ere ez zen ausartu atzo Leintzeko txistularien egun handia zapuzten

Ibarreko ia 40 txistulari elkartu ziren atzo Eskoriatzan datozen urteetan jarraipena izango duen eguna giro ezin hobean ospatzeko



Aurtengo parte-hartzaileen talde argazkia Eskoriatzako plazan.. JON BEREZIBAR

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

Gorrak bakarrik libratu ziren domeka goizean txistularien goizeresiaz Eskoriatza erdialdean. Ohiko txistulari taldea biderkatu eta ia 40 laguneko txistu-gudarostea izan zuten herria girotzen. Leintz ibarreko txistularien lehen topaketa ospatu zuten atzo eta antolatzaileak ezin pozago zeuden lortutako giroarekin eta harrerarekin.

Kalejira legea eginda, 13:00an zeukaten hitzordua elkarrekin kontzertua egiteko, Herriko Plazan. Guztiak erreskadan kokatu eta ordu erdiko emanaldia egin zuten *Arrate*-rekin hasi eta makina bat pieza ezagun jotzeko. Hasieran hotz, baina *Txoriak Txori* jotzen hasi zirenean ikusleak animatu eta kantuan hasi ziren, abesti dantzagarriagoekin ikusleak mugitu ere egin zen eta emanaldiak goia jo zuen *Ikusi Mendizaleak* herrikoi eta kuttunarekin. Giro bikaina plazan eta txistulariak eta herritarrak pozarren.

**ARETXABALETARRENA LEKUKOA**

Lehena izan zen atzokoa, baina ospakizuna urtero egitea da asmoa. Hala, datorren urtean aldameneko herrira, Aretxabaletara, joango da antolatzeko erantzukizuna. Ikusleen artean aurkitzen ziren, gainera, bi alkateak, Pedro Lasagabaster eta Inaxio Garro. Aurtengoari dagokionez, antolatzaileak oso pozik parte-hartzaile kopuruarengatik bai, eta baita txistulariek ekarritako giro apartarekin. J.J. Arrietak, Eskoriatzako kideak, ez du aitzakiarik: "Eskoriatzan gauzak primeran dakigu egiten, euria ere justu-justu ekitaldia amaitu denean hasi da". Hala izan zen, plazako kontzertuko azken nota entzun bezain laster jausi ziren lehen tantak. Ezerk ez zuen hortaz Leintz ibarreko txistularien egun handia zatartu. Eta, amaitzeko, bazkari-legea. Aitzorrotz Kultura elkartearen egoitzan elkartu ziren berriz ere txistulari guztiak elkarrekin bazkaltzeko.



**J.J. Arrieta**
Eskoriatza

"Antolatu genuenean ez genuen uste hainbeste jende gerturatuko zenik. Etorritako txistulari guztiei eskertu beharrean gaude *demasako* giroa sortzea lortu dute-eta. Ezin hobeto guztia".



**Jokin Antxia**
Aretxabaleta

"Animatuta hartuko dugu lekukoa aretxabaletarrek gaurko talde polita ikusita. Eskoriatzan maila altu utzi dute eta lan ona egin beharko dugu hobetzeko. Halako zerbait nahi genuen aspalditik".



**Igor Herrarte**
Arrasate

"Txistulari batek edo bik txarto jo dezakete, baina hogeitik gorako talde batek ezin txarto jo! Hala ere hemen ez dago dudarik, ze mondragoetarrak izan gara txapeldunak".

**ONDAREA** > OÑATIKO HISTORIA

# Asun Arrazola ikerlariaren omenezko ibilaldi historikoa

Haren ikerketa lanen artean Oñatiri buruz asko idatzi zuen moja ikertzaileak

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

Jaiotzez zestoarra izanik ere, badu Arrazolak (1912) lotura estua Debagoienarekin Bergarako Mariaren Lagundia ikasi baitzuen eta, are esanguratsuagoa dena, orduak eta orri asko dedikatu baitzizkion Oñatiko ondarearen ikerkuntzari. Hain zuzen, Gipuzkoako Errenazimendu garaiari buruz egin zuen Doktore Tesia. Hiru liburu argitaratu zituen gaiari buruz eta horietan Oñatiren presentzia handia da, batez ere, San Migel parrokia eta Bidaurretako komentua.

Zapatuan haren omenezko bisita egin zuten 40 bat lagunek, lekaimeari gustatzen zitzaion moduan, oinez, ze, ibilaldia gidatzeaz arduratu zen Edorta Kortadi arte adituak berak gogorarazi zuen moduan zera esaten zuen Arrazolak: "Zientziak eta jakituriak ez" duela "burutik sartu behar, oinetatik baizik". Eta, hala, ibiliaz, unibertsitatea, parrokia eta komentua bisitatu zituzten.

**"KULTURGILEA"**

Moja izanda ere bizitzaren zati handi bat ikerketari eman zion Asun Arrazolak. Donostiako Irakasle eskolako zuzendaria izan zen eta baita ere lehen Turismo eskola sortu. Sorkuntza dokumentala ez zuen alde batera laga eta artearen inguruko lan asko argitaratu zituen. Kulturgiletzat jotzen dute. Donostian lehen, gero Zestoan eta azkenik Oñatin zapatuan; hiru saio egin dituzte haren omenez.



Bista unibertsitateko artxibotik igaro zeneko unea. JON BEREZIBAR

**ARGITALPENA**

# Olaiturriko herri antzerkia liburuan

Antzezlanen bultzatzaileetako bik, Elortzak eta Irizarrek, egin dute

**A.M./I.B.** > OÑATI

Egubakoitzean, *Olaitturriren herri antzerkia* liburua aurkeztu zuten Oñatiko kultura etxean bi egileek, Inazio Irizar eta Gerardo Elortzak.

Liburua azken urteotan San Migeletan herrian antzeztu dituzten antzezlanetan oinarrituta dago; eta dagoeneko salgai dago.

Liburua (eta antzezlanak, jakina) Oñatiko XVI. eta XVIII. mendeetako pasarteetan oinarrituta daude: batetik, unibertsitatea eraiki zeneko garaia; eta bestetik, 200 urte geroago, ikasleen eta bestelako herritarren arteko gorabeherak jasotzen ditruena. Bide batez, Oñatiren historiaren gaineko kontu asko jakiteko aukera ematen du aipatutako liburu berri horrek.




Bi egileak liburuarekin. J.A.




Dan Bairden -erdian, txapelarekin- azkeneko proiektuan musikari bikainek izugarri gozatzen dute; eta hori transmititu egiten dute. JOSETXO ARANTZABAL.

**MUSIKA** > DAN BAIRD & HOMEMADE SIN

# Rocka egitea gozamena denean

**NON:** Amaia antzokiko hallean.
**EGUNA:** Barikua, urriak 29.
**ZENBAT JENDE:** 80 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Bi ordu.

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Puntualitate ingelesarekin hasi zen Amaia Udal Antzokiko hallera Gaztemaniak programak eramandako azken kontzertua. Are gehiago, iragarritako ordua baino lehenago agertoki gainean zeuden Dan Baird eta bere taldea. Arrazoiak? Dan Baird eta haren kideek izugarri gozatzen dutela musika jotzen; eta bi ordu joko zutela jakinda, agian antolatzaileek puntualitate zorrotza eskatuko zietela.

Baina ingeles erreferentzia hori ondo datorkigu kronikarako. Izan ere, nahiz eta Dan Baird berak eta Jason & The Scorchers country-punk taldean aritzen den Warner E. Hodges gitarra jotzaile handiak distira handiena sortu, alboan zituzten ikaragarrizko musikariak diren baxu jotzaile eta bateriak, biak irmo eta izerdirik egin gabe, ingeles dandy-en looka eta hasierako Rolling zein Faces-en ukitu nabarmena gehitu zuten.

Eta ingelesa diot, zeren eta nahiz eta Baird Nashvillekoa izan eta Georgia Satellites eta Yayhoos moduko taldeetan tarteka melodia handiko amerikar sustraiko rocka egiten ibili, zuzenean aritzen denean 60ko hamarkada bukaerako Ingalaterrako rock *canalla* gogora ekartzen du.

**'ZUZENEKO PIZTIAK'**

Taldeak izugarrizko kontzertua eman zuen, itzela, eta izugarri transmititu zuten, bakarrik benetan agertokia gozatzen dutenek egin dezaketen moduan. Batez ere, *Dan Baird & The handmade Sin* diskoan oinarritu zuten emanaldia, baina abestiak izugarri luzatu eta garatzen zituzten, roc-karen pultsuak hala bultzatuta. Are gehiago, balada rockero moduan sortutako piezek ere -Bairdek ahots itzela dauka- bestelako ñabardurak hartu zituzten. Ezin ahaztu, baina, Bairden aurreko talde ezaguna Georgia Satellites dela eta proiektu horretako klasiko batzuk ere eskaini zituzten, ikusleen gozamenerako.

Umorea eta bizi-poza uneoro erakutsi zuten eta jendeari adarra jotzeaz gain (besteak beste, tabakoa eta independentzia nahastuz), Alex Chilton, Ramones eta Bob Dylanen bertsioak oparitu zizkiguten; hori bai, euren iragazkitik pasa ostean.

Ez zuten inor axolagabe utzi; kontrakoa, rock-and-roll ikuskizun liluragarria egin zuten.

ZER DIOTE DEBAGOIENEKO ENPRESABURUEK?

ZER DIO GOI ESKOLA POLITEKNIKOKO DEKANOAK?



IKER BARANDIARAN

## Etxean, inon baino erosoago eta basatiago

Aspaldian ohitura hartu duen moduan, Gose taldeak kontzertua egin zuen zapatu gauean Arrasateko Gure Leku tabernan. Taberna lepo bete zuten, eta ohiko emanaldia baino gehiago emateko ahalegin guztiak egin zituzten: pantaila erraldoia, Ines frontwomana barra gainetik, Osoron gitarra apurtzeko zorian eta izerdia puri-purian. Basatia!

# Debagoieneko
# GREMIOAK



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
*www.goiena.net/blogak/azkarate*

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa
Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
*e.arrasate@euskalnet.net*

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

## DEKORAZIOA

**J. ORTIZ**
Bergara
• Mota guztietako pladur lanak
• Igeltsu-lanen dekorazioa
• Sabai eta apaletan espezialistak
• Isolamendu akustikoa
• Gremioen koordinazioa
Alkabieta kalea z/g.
T: 943 76 03 51 / 663 90 93 18

## ITURGINTZA

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**IMANOL ITURGINTZA**
Arrasate
• Iturgintza
• Berogailua eta gasa
• Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
*f.oyanguren@ctv.es*

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

**VALES ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 17 80 46

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIK**
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

**ION LEIHOAK**
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

**YOSU THERMIK**
Arrasate
• Lehio eta ate isolatzaileak
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko lehioak
• Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
Kataide poligonoa 4 Pab.
Tel: 943 77 01 57
F: 943 77 03 21

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

GURE TALDEAK

## The Convicts




Ezkerretik eskuinera, Raul, Oihan, Unai eta Andoni. IAGOBA DOMINGO

# "Eguneroko bizitzako istorioak kontatzen ditugu diskoan"

Pozik daude The Convicts taldekoak diskoa kalean dutela: kritika soziala egin eta munduari buruzko hausnarketarako bidea eman nahi dute

Zortzi abesti ditu taldearen lehen diskoak; horietatik bost euskaraz idatziak eta gainerako hirurak, ingelesez

MAIALEN GONZALEZ > BERGARA

**The Convicts taldea osatzen duten lau mutil arrasatearrekin egon gara. Duela gutxi kaleratu dute lehenengo diskoa, eta, oraindik eguna zehazteke dagoen arren, azaroan aurkeztuko dute, Arrasateko Irati Tabernan.**

**Noiz eta zer dela eta hasi zineten elkarrekin jotzen?**

2007ko udaberrian hasi ginen musika egiteko gogoa genuelako, eta ondo pasatzeko helburuarekin. Koadrilako hainbat lagunek instrumentuak jotzen genituen eta Unaik bateria erosi bezain laster elkarrekin jotzen hasi ginen. Hasieran, lagun baten garajean entseatzen genuen eta, behin lokala lortuta, kontzertuak eskaintzeari ekin genion.

**Zein musika-mota jotzen duzue?**

Batez ere, punk-oi! musika, baina beste estilo batzuk alde batera utzi gabe. Badakigu egiten dugun musika ez dela berritzailea; dena dela, ukitu ezberdinak sartzen saiatzen gara: kantu lasaiagoak, gitarra akustikoak… estilo jakin batera ez mugatzeko. Lortzen dugun edo ez beste kontu bat da.

**Zer moduzko esperientzia izan da diskoa grabatzea?**

Oso aberasgarria. Lehenengo aldia zen disko bat grabatzen genuena, aurretik Arrasateko Shot! estudioan AED elkartearen 25. urteurreneko bildumarako abesti bat grabatu genuen arren. Dena berria zen guretzat, abesti bat grabatzearen eta disko batek eskatzen duen prestaketaren artean alde handia baitago. Nolanahi ere, asko ikasi dugu, eta, azkenean, kalean dago diskoa.

**Emaitza esperotakoa izan da?**

Bai, oso pozik gaude lortutako emaitzarekin. Badakigu gauza batzuk hobeto egin zitezkeela, baina aurreneko diskoa izateko gustura geratu gara. Gainera, lan gehiena gure kabuz egin dugu eta sortu zaizkigun arazoak modu egokian konpondu ditugula uste dugu.

**Zortzi abesti ditu diskoak. Zer kontatzen du?**

Eguneroko bizitzan gertatzen diren istorioak biltzen ditu, hala nola munduan dauden gudu bidegabeak, pobrezia, euskal presoen egoeren salaketa, jendearen ignorantzia, gazteen arazoak, lagunen arteko tirabirak… Kritika soziala egin nahi dugu eta jendeari bizi garen munduari buruzko hausnarketarako bidea eman.

**Letrak eta musika norenak dira?**

Letra gehienak Raulek (gitarra) idazten ditu, oso inspiratua egoten da eta! Gero, denon artean letrak osatu eta musikaren arabera moldatzen ditugu.

**Euskarazko bost abesti eta ingelesezko hiru. Ingelesez ere inspirazioa datorkizue?**

Hasieratik argi genuen gaztelaniazko abestirik ez genuela egingo. Gehienak euskaraz idatzi ditugu gure hizkuntza delako, eta, guk erabili ezean, nork erabiliko du? Ingelesezkoak ere badira… ziurrenik kanpoko taldeen musika entzuteak eragindа.

**Non eta zenbatean eros daiteke diskoa?**

Diskoaren prezioa 3 euro da eta toki hauetan eros daiteke: Irati eta Iluntz (Arrasate), Urbaltz (Aretxabaleta), Aldatz (Eskoriatza), Arrano (Bergara), Pako (Oñati), Txarrantxa (Azpeitia), Hiruki (Beasain), Skizo denda eta Antiguotarrak taberna (Donostia).

**Noiz aurkeztuko duzue disko berria?**

Eguna zehazteke dugu oraindik baina aldaketarik ez badago, azaroan aurkeztuko dugu, Arrasateko Irati Tabernan.




### Punk-rock eta Oi! belaunaldi gazteagoa

Aurretik AEDren urteurreneko bilduman esku hartu bazuten ere (hemen ere aurki daiteke *Gure altxorra* pieza), honako hau da euren aurreneko lana. Oi! musika, Ingalaterrako 77ko punkaren oihartzuna, punk-rocka eta tarteka punk-poparen isla ere jasota daude honako lanean.

Bestalde, hitzei dagokienez, Euskal Herriarekin eta euskararekin lotutako hitz zuzenak idatzi dituzte, konprometituak. Euskara da gehien erabiltzen duten hizkuntza, baina bada ingelesez abestutakorik ere.

Iker Barandiaran

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Abadiño.** Pisua salgai, Muntsaratzen. 3 logela handi, 2 komun, sukaldea, egongela handi bat jangelarekin eta balkoi handia. Ganbara. Berriztatua eta berogailuarekin. Bizitzera sartzeko moduan. Negoziatzeko moduko prezioa. 667-88 23 38.

**Alegia.** Etxea eraikuntzaberrikoa da, 5 urte besterik ez ditu eta oso egoera onean dago. Ezaugarriak: 3 logela, 2 komun (bat logela nagusian), egongela eta sukaldeaz gain, lau balkoi ditu. Argi asko sartzen da egun osoan zehar, komun batek ezik, gela guztiek baitute kanpora begira leihoren bat. Igogailua garajeraino. Garajea aukeran. Deitu telefono honetara: 609-78 75 51

**Arrasate.** 54 metro koadro. Bi logela, egongela, sukaldea, komun bat, trastelekua eta igogailua. 667-95 31 09

**Ataun.** San Martinen eraikin ia berri batean, 100 m2ko etxea salgai. Terraza, patioa, garajea eta trastelekua, 280.000 euro. Deitu: 659-53 50 73

**Azkoitia.** Etxebizitza salgai. Bi logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Dena hornitua. Trastelekua eta igogailua ere baditu. Julio Urkijo kalean. 656-79 55 39

**Beasain.** Pisu oso zentrikoa Andra Mari kalean. La salle ikastetxea eta dendak metro gutxira.105 m2, 4 logela, 2 bainugela, balkoi eta terraza. Berriberri dago, materialak eta eraikuntza kalitate handikoak. Armairu ta altzariak, berogailua, parketa, sukaldeko elektragailu guztiak, garbigailua. Garaje itxia aukeran. Deitu telefono honetara: 656-73 11 43

**Bergara.** Artzamendi kalean etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, bi ko<Ninguno>mun eta balkoi handia. Eguzkitsua. 656-73 57 74

**Durango.** Etxea salgai. 3 logela, egongela, sukaldea (jantzita), komuna, berogailua eta despentsa. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. Jantzita eta erreformatua. 189.319 euro. Deitu telefono honetara: 699-40 99 59

**Durango.** Etxebizitza salgai Logela bi, egongela, sukaldea eta komuna. Etxe guztiak kanpoaldera ematen du, oso argitsua. Pisu altua, 30 m2-ko terrazarekin. 220.000 euro.696-25 50 83.17:00etatik aurrera deitu.

**Durango.** Alde zaharra. 71 m2. Kanpoaldera begira. Altzariz hornituta. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komun bat. Guztiz berriztuta. Kanpotik (2006): fatxada, atalondoa, eskailera eta teilatua. Barrutik (2007): parketa (elondo), sukaldea (fagor elektrotresnak eta junkers galdara ), gres, berokuntza (gas naturala), kristal bikoitzeko leihoak, ate blindatua. Berehala bizitzera joateko aukera. 223.000 euro. Deitu telefono honetara: 607-71 53 53

**Etxarri-Aranatz.** Etxea errentan edo salgai. Deitu telefono honetara: 654-23 41 02.

**Etxarri-Aranatz.** Familia bakarra salgai.Praktikan berria eta jantzitakoa. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Bajera, lorategia eta bista ederrak. Prezioa adosteko. Deitu telefono honetara 637-53 86 15

**Gasteiz.** Etxebizitza salgai. Aldabe kalean, 80 m2, 2 logela, egongela (25 m2), sukaldea, bainugela eta trastelekua. Leiho guztiak kalera (hegoalde eta mendebaldera), berriztatua, 4. Pisua igogailua eta guzti. Premiazkoa. 230.000 euro. Deitu telefono honetara: 945-14 55 72 /695-72 52 74

**Mañaria.** Pisua salgai.90 m2, hiru logela, bi komun, egongela-jangela eta sukalde guztiz jantzia (labe pirolitikoa, bitrozeramika, garbigailu-lehorgailua). Altzariz hornitua. Miradorea eta bista ikusgarriak. 13 m2-ko trastelekua. Eraikinak 15 urte ditu, eta igogailua du. Bizitzera sartzeko prest. 220.000 euro. Aukera oso ona! 646-67 50 51

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**http://www.goiena.net/sailkatuak**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**

**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Oñati.** Etxaluzen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela-egongela, lau logela, bi bainugela, bi balkoi, ganbara eta garajea. Deitu telefono honetara: 647-24 80 02

**Oñati.** Santa Marina plaza inguruan 60 m2ko etxebizitza salgai. Bi logela handi, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua. 60 m2ko ganbara, duplexaegiteko aukerarekin. Guztira: 120 metro. Balkoi handia eta oso eguzkitsua. 275.000 euro, negoziagarriak. Deitu telefono honetara: 610-97 04 32

**Orio.** Donostiatik 10 minutura A-8ko irteera berritik. 100 m2; 2 logela bikoitza eta 32 m2ko saloia, dena haritzezko tarimazabalarekin, sukalde handia, bainugela, terraza eta trasteroa etxean bertan (ikus planoa). Azkeneko solairuan dago eta ganbara handia ere badu (25 m2koa) hurrengo pisuan. 330.000 euro www.etxegoxoa.com. 639-20 27 64.

### 102. EROSI

**Arrasate.** Edo inguruetan 120.000-150.000 euroko etxebizitza erosteko asmoa daukat. 615-71 04 68.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Altsasu.** 3 logela, 2 komuna. Jantzita. Prezio interesgarria.650-44 24 37.

**Arrasate.** Etxebizitza bat ematen da errentan unibertsitate ondoan. Berokuntza zentrala du. Argitsua. Ekonomikoa. 647-22 09 38 edo 945-44 51 11

**Arrasate.** Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, gela txiki bat, sukalde-egongela eta komuna. Oso argitsua. Estreinatzeko. 650 euro. 653-95 19 08

**Arrasate.** Zarugalde kalean etxebizitza ematen da errentan. Sukaldea, egongela, bi komun eta bi logela. Berokuntza eta igogailuarekin. 656-75 00 94

**Berriz.** Pisu bat errentan eman nahi dut. 3 logela, 90 m2, igogailua eta garajea. Errenta: 600 euro. 94-682 00 41

**Etxarri-Aranatz.** Pisua alokagai edo salgai. Deitu telefono honetara: 654-23 41 02.

**Etxarri-Aranatz.** Pisua alokairuan. Jantzita. 3 gela, sukaldea, egongela eta komuna. 636-66 08 76

**Etxarri-Aranatz.** Pisua alokatzen da. Deitu telefono honetara: 615-83 40 28

**Eskoriatza.** Hiru logela, bi komun. Jantzia. Berokuntza eta igogailuarekin. Prezio interesgarria. Deitu telefono honetara: 687 78 86 98

**Oñati.** 100 m2ko etxebizitza errentan erdigunean. Deitu telefono honetara: 663-69 31 16

**Zarautz.** Zarautzen pisua alokagai. 3 gela, egongela handia, sukaldea, 2 komun eta igogailua. Oso eguzkitsua. 635-75 37 57 (arratsaldetan)

**Zumaia.** Erdigunean errentan irailetik ekainera: bi logela, egongela ederra, sukalde konpletua: hozkailu, mikrouhin, ontzigarbigailu ta garbigailua. Berogailua, internet zuntz optiko konexio bizkorra wifirekin, bainugela ta bi komune, terraza bikainaren bueltan elizaldetik portu, santiago hondartzara eta itzurungo labarretarainoko bistak, garaje itxia, igogailua, Itzurun hondartza oinez minutu erdira. Deitu telefono honetara: 656-73 11 43

### 104. ERRENTAN HARTU

**Antzuola.** Edo inguruan etxebizitza bat hartuko nuke errentan. Bi edo hiru logelakoa. 603-62 08 84

**Bergara.** Bikote batek etxebizitza behar du errentan. Deitu telefono honetara: 610 62 65 04

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan. 617-12 61 44.

**Bergara.** Neska bergarar euskaldunak etxebizitza txikia (estudioa, ganbara...) hartuko luke errentan. Deitu telefono honetara: 659-66 02 57

**Donostia.** Langile oñatiar bat naiz eta irailetik aurrera donostian bizi ahal izateko etxe bila nabil. Deitu telefono honetara: 675-00 87 58

**Durango.** Pisua konpartituko nuke beste pertsona batzuekin666-20 22 73

**Iurreta.** Alokatzeko pisu bila dabilen iurretar neska gaztea naiz. 617-08 49 02

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. Deitu 18:00etatik aurrera. Deitu telefono honetara: 943 53 21 62.

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu Erguinen etxebizitza osatzeko. Deitu telefono honetara: 670 59 73 62.

**Arrasate** erdigunean etxea osatzeko pertsona bat behar dugu. Hilean 200 euro, gastuak barne. Iñaki. 608 49 89 93.

**Oñati** Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan emateko Errekalden. Deitu 18:00etatik aurrera. 653 74 87 51 edo 699 46 76 11.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** 20 metro koadroko garaje itxia salgai Uarkapen. Hirugarren solairuan, sarreratik gertu. Deitu 943 24 53 57 edo 615 73 98 30 telefonora.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje itxia ematen da errentan erdigunean. 24 metro koadro (8,40x2,85). Roneoko etxeetan. 616 15 63 73

### 204. ERRENTAN HARTU

**Antzuola.** Alokatzeko garaje bila nabil. Ahal bada, Antigua auzo inguruan. Deitu telefono honetara: 679 31 75 50.

## 3/ LOKALAK

### 302. EROSI

**Oñati.** Lokala erosiko nuke, 25-120 metro koadro bitartekoa. 943 79 66 75.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Andre euskaldun bat behar dugu gure umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Zazpi bat ordu egunean. Deitu 688 62 83 86 telefonora.

**ARRASATE**

**Esperientziadun ile-apaintzailea behar da.**

**699 96 45 41**
**(19:00etatik aurrera deitu)**

**OÑATI**

**Neska euskalduna behar da asteburuetan kafetegian lan egiteko.**

**635 70 91 78**

**Bergara.** Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko, goizez. 615 76 94 58.

**Donostia.** Egia auzoan, Donostian, goizeko 7 etatik 9 etara etxeko lanak egin eta haurra eskolara eramateko pertsona baten bila gabiltza. Azaroan hasteko. Eneritz. arkauz@hotmail.com// 696-55 18 27.

### 402. ESKAERAK

**Abadiño.** Lan bila nabilen Matienako andre bat naiz. Edozein ordutegian, arratsaldez eta gauez aukeran. Ume eta nagusien zainketa, etxeen garbiketa... 696-75 35 30

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Feli. 943-53 33 92

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Feli. 943 53 33 92

**Arrasate** eta inguruan emakumea gertu sukaldari lanetarako. Udan edo asteburuetan. Bost urteko esperientzia. Agu. 679 73 92 66

**Arrasate** eta inguruko herrietan neska gertu zerbitzari lanetan jarduteko. Esperientziaduna. 680 53 97 54

**Arrasate.** Asteburu eta jaiegunetan lan egiteko gertu: garbitasun lanak, nagusiak edo umeak zaintzeko... 682 31 97 37

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 653 70 79 38

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu plantxa egiteko edo etxea garbitzeko, orduka, arratsaldez. 699 54 17 27

**Arrasate.** Neska euskalduna gertu arratsaldeetan umeak zaintzeko. 615 76 19 82

**Arrasate.** Neska gertu atariak garbitzeko. 619 87 95 57

**Arrasate.** Umeak zainduko nituzke. Eskolara bila joateko aukera ere bai. Aisialdi titulua daukat. 661 35 49 28

**Arte** Argazkiko AP eta Diseinuko goi mailako teknikari titulua eta Artearen Historiako Lizentziatura amaitzen. Hala ere, edozein arlotan lan egiteko prest. 685 73 06 80

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. 606-42 64 14

**Beasain.** Emakumea esperientziduna eta arduratsua lan bila dabil pertsonak zaindu edo etxeko lanak egiteko (etxean bertan bizi izateko / orduka jarduteko) moduan.689-11-02-67

**Beasain.** Etxekolanetarako emakumea eskaintzen da (ume eta adinekoen zaintza, garbiketa lanak). Erreferentziak ditut. Deitu 689-07 39 19

**Bergara.** Emakume arduratsua gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Ordutegi malgua. Deitu telefono honetara: 671 44 81 51

**Bergara.** Emakume gaztea haurrak zaintzeko gertu. Ordutegi aldetik arazorik ez. Deitu telefono honetara: 673 22 38 00

**Bergara.** Emakumea gertu goiz eta arratsaldez umeak edo nagusiak zaintzeko. 610 34 97 88

**Bergara.** Esperientziadun emakumea gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Deitu telefono honetara: 665 75 41 32

**Bergara.** Haurrak zaintzeko gertu nago, orduka zein egun osorako. Esperientzia handia daukat. 686 11 24 66

**Bergara.** Neska euskalduna gertu 17:00etatik aurrera ume edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. Esperientziaduna. Deitu telefono honetara: 699 00 99 08

**Bergara.** Neska gertu 08:00etatik 10:00etara etxeko lanak egiteko. 943 76 28 12

**Berriz.** Andre euskaldun bat 3 edo 4 orduz umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko prest. 680-50 95 32 edo 94-622 57 24.

**Debagoiena.** Emakume bolibiarra haurren zein pertsona edadetuen zaintza lanak egiteko gertu dago. Garbiketan ere egingo luke lan, orduka. Deitu telefono honetara: 686 33 66 66

**Debagoiena.** Emakume bolibiarra lan bila dabil, eta edozein motatako lanak egiteko gertu dago. 695 71 27 81

**Debagoiena.** Emakumea gertu ume zein nagusiak zaintzeko, baita etxeko lanak egiteko ere. 663 65 78 43

**Debagoiena.** Gazte bolibiarra lan bila dabil, edozertarako gertu. 689 64 32 15

**Debagoiena.** Arrasate, Aretxabaleta edo Bergaran lan egingo nuke umeak zaintzen, nagusiei laguntzen edo orduka garbiketa lanetan. Deitu eguerdietan 16:00ak arte edo gauetan. 943 71 53 74 edo 695 73 87 95

**Debagoiena.** Bertako neska esperientziaduna gertu asteburuetan nagusiak zaintzeko. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Edozein lanetarako gertu nengoke. Ordutegi malgua. Beatriz. 610 99 70 46

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Masterreka 92 $m^2$. 237.399 €.
- Masterreka. 88 $m^2$. Igogailuarekin.
- Artekale 40 $m^2$. Berritua.
- Irizar pasealekua 70 $m^2$. Igogailuarekin.
- Zabalotegi 60$m^2$. Oso ondo
- Mekolalde 110 $m^2$. 90.000 €.
- Osintxu. 70 $m^2$. Igogailuarekin. 153.258 €.
- Ibargarai 54 $m^2$. Garajearekin.
- Lorentxoko 73 $m^2$. Eraikitzeko.
- Burdiñate 53 $m^2$. Prezio ona.
- Matxiategi 65 $m^2$. Igogailuarekin.
- Ibarra 47 $m^2$. 146.888 €.
- Bolu 96 $m^2$. Garajearekin.
- Simon Arrieta 70 $m^2$. Prezio ona.
- Zabalotegi 54 $m^2$. 154.761 €.
- Aranerreka 80 $m^2$. 189.319 €.
- San Lorentzo 68 $m^2$. Berritua.
- Herri Lagunak 52 $m^2$. Prezio ona.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- GARAJEAK SALGAI Ozaetan. Aukera ona.

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 $m^2$. Oso etxe ona.

**Elgeta:**
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita.**
- San Roke eta Salbador. Etxe onak.

**Soraluze:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Aranerreka, 80 $m^2$, oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 $m^2$, eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Burdiñate, 104 $m^2$, oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 $m^2$, oso ondo.
- Herrilagunak, 60 $m^2$.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Toki Eder plaza, 98 $m^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 $m^2$.
- San Antonio, 65 $m^2$, eguzkitsua.
- Masterreka, 46 $m^2$, eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- San Lorentzon aukera ona.
- Basarte. 69 $m^2$. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.
- Arrizuri, 90 $m^2$. Terrazarekin. Oso ondo.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

ZER DIOTE DEBAGOIENEKO MEDIKUEK?

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu nagusiak zaintzeko. 635 00 58 17

**Debagoiena.** Emakumea gertu goizetan nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko. Deitu telefono honetara: 626 78 22 95

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusi eta umeak zaintzeko edo sukalde laguntzaile jarduteko. Luisa. Deitu telefono honetara: 638 89 98 60

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusi zein umeak zaintzeko edo sukalde laguntzaile jarduteko. Fany. 630 94 65 76

**Debagoiena.** Emakumea orduka lan egiteko gertu, nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetan edota sukaldari laguntzaile moduan. Esperientziaduna eta erreferentzia onekin. Egunez eta gauez lan egiteko prest; interesatuok bidali e-posta: animilena@hotmail.com Deitu telefono honetara: 943 79 04 69

**Debagoiena.** Erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. Ordutegi malgua. Gauez ere bai. Autoa daukat. 622 05 21 74

**Debagoiena.** Esperientziadun emakume gazte batek hainbat lan egingo lituzke: etxeko lanak, etxeak garbitu, sukaldari laguntzaile, zerbitzari... 663 46 93 60 edo 943 08 11 07

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea gertu asteburuetan sukaldari jarduteko. Zerbitzari ere arituko nintzateke. 619 78 63 41

**Debagoiena.** Frantses eskolak emango dizkidan norbait behar dut. 617 93 83 39

**Debagoiena.** Gazte boliviarra lan egiteko gertu. B gidabaimena dauka. 606 78 35 94

**Debagoiena.** Ile-apaitzaile edo makillatzaile lanetan jardungo nuke. Baita nagusiak zaintzen ere. 666 21 88 95

**Debagoiena.** Mutil gaztea askotariko lanak egiteko gertu. 654 98 69 14

**Debagoiena.** Mutil gaztea lan egiteko gertu. Gidabaimena daukat. 685 70 76 25

**Debagoiena.** Mutila gertu edozein lan egiteko. 606 78 35 94

**Debagoiena.** Mutila gertu garbiketa, zerbitzari, sukaldean zein bestelako lanetarako. Autoa daukat. 671 84 71 71

**Debagoiena.** Mutila gertu soldatzaile lanak egin edo eraikuntzan lan egiteko. 677 17 43 75

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edo zerbitzari zein sukalde laguntzaile jardungo nuke. 646 07 79 60 edo 943 77 01 31

**Debagoiena.** Neska esperientziaduna gertu zerbitzari edo garbiketa lanetan jarduteko. 679 04 42 68

**Debagoiena.** Neska etxeko lanak egiteko prest orduka, interna edo ez; edozein modutan. Tabernetan ere lan egingo luke. Esperientzia daukat sukaldean. Eta garbiketa lanak ere egiteko prest nago. Erreferentziak dauzkat eta baita paper guztiak behar bezala. 943 53 36 72 edo 677 73 79 59

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu nagusiak zaintzeko gauez zein egunez, edo etxean bertan lo eginda ere bai. Klinika laguntzaile titulua daukat. 646 38 46 81

**Debagoiena.** Neska gertu edozein lanetarako. Zerbitzari lanetan esperientziaduna naiz. 671 99 92 70

**Debagoiena.** Neska gertu etxean zein egoitzatan nagusiak zaindu edota garbiketak egiteko. Deitu telefono honetara: 629 80 77 73

**Debagoiena.** Neska gertu etxeko lanak egiteko, garbiketa lanetarako, laguntzaile jarduteko eta nagusi edo umeak zaintzeko. Legezko paperak dauzkat. Deitu telefono hauetara: 648 01 40 94 edo 943 08 20 79

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketa lanak egin edo etxean bizi izaten zein bestela nagusiak zaintzeko. Deitu telefono honetara: 610 60 62 29

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketan, sukalde laguntzaile zein nagusi eta umeak zaintzen jarduteko. 630 20 12 03 edo 638 10 28 85

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo umeak zaintzeko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 671 15 96 97

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaintzeko, orduka garbiketak egiteko edo tabernetan lan egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 648 46 90 51

**Debagoiena.** Sukalde eta komunak berriztatzen ditut, prezio onean. 663 72 37 44

**Debagoiena.** Sukaldean, jatetxe zein hoteletan lan egingo nuke. Baita nagusiak zaintzen edo eraikuntzan ere. Informatika ezagutzak ditut. 602 12 03 47

**Donostia.** Arratsaldez lan egingo nuke donostian, haurrak zaintzen edota etxeko lanak egiten laguntzen. Irakaslea naiz, diplomaduna eta lizentziaduna.628-04 15 26.

**Donostia.** Haurrak zaintzen edota etxerako lanak egiten laguntzeko prest nago, arratsaldez. Irakaslea naiz; ordutegi malgua dut, eta diplomaduna eta lizentziaduna naiz. 628-04 15 26

**Durango.** Edo inguruetan, umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko prest, baita garbiketa lanetarako ere. Arratsaldetan, gauetan eta asteburuetan. Erreferentzia onak. 650-61 01 94.

**Durango.** Jardinen mantenuan, eraikuntzan, margolari gisa, tornuetan edo elektrizitatean oinarritutako lan baten bila nabil. Paperekin. 669-59 43 76

**Durango.** Umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketarako lan baten bila nabil. Lanaldi osorako edo erdirako. Erreferentzia onak. 638-43 79 01.

**Durango.** Neska euskalduna, astelehenetik ostiralera, arratsaldeetan umeak zaintzeko prest. Haur hezkuntzako irakaslea. Goizez irakasle moduan lan egiten dut.635-70 69 86

**Emakumezko** batek etxeko lanak egin eta zaharrak zainduko lituzke. 606 64 16 09

**Eskoriatza.** Neska euskalduna gertu goizez etxeko lanak egiteko . 616 68 02 18

**Lezo.** Neska euskalduna (E.G.A)eskaintzen da haurrak zaintzeko,arduratsua eta langilea, aurretik ere haurrak zaintzen lan egina.667-23 93 72

**Olaberria.** Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko edo baita adineko jendea zaintzeko ere ,haur hezkuntzako ikasketak eginda eta ega titulua dauzkat, umeekin lanean esperientzia. Etxeko lanetan laguntzeko ere prest egongo nintzateke, ez daukat arazorik inguruko herrietara mugitzeko. 628-45 37 34.

**Oñati.** Neska euskalduna irailetik aurrera arratsaldeetan haurrak zaintzeko prest 606-15 11 47

**Oñatiko** neska arduratsua arratsaldeetan haurrak zaintzeko prest. 13:00etatik aurrera libre nago. Deitu telefono hauetara: 618 09 47 87 edo 943 71 62 03

**Sakana.** Kotxea duen neska, umeak eta adineko pertsonak zaindu eta garbiketa egiteko prest. 660-01 44 83.

**Zarautz.** Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko, pertsona helduak zaintzeko eta garbiketarako. Zarautz eta inguruetan. 699-19 39 75

**Zarautz.** Gizon euskalduna naiz,lan egiteko prest nago, edozein lanetarako. 658-73 08 08

**Zarautz.** Txakur hezitzaile ikasketak burutzen ari den ikaslea eskeintzen da txakurrak hezitu edota paseatzeko. Oinarrizko obedentzia, portaera zuzenketak (agresibitatea, beldurrak, banatzearen ondoriozko antsietatea...), etab. Eibar, zumaia eta zarautz inguruetan. Urrunago mugitzeko aukera. Tlf: 645-72 43 97josu.ae@hotmail.com

**Zarautz.** Mutil euskalduna eskaintzen da edozein lanetarako. 620-77 30 58

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** Filosofiako irakasle baten bila nabil. 618 79 47 48.

**Kontabilitate eta ekonometria** eskolak jasoko nituzke Arrasaten edo inguruan. 626 24 82 36.

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Bigarren batxilergora arteko eskola partikularrak ematen ditut. 653 01 76 67

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen dira. Goi mailako ingeniari industriala naiz. Matematika, fisika, kimika, teknologia, marrazketa... maila guztiak, unibertsitatea barne. Deitu telefono honetara: 630 71 35 83

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen ditut. Arlo guztiak, Lehen Hezkuntzan eta DBHn. Ingelesa ere ematen dut. 619 17 68 30

**Arrasate.** Ikasgai guztietan eskola partikularrak ematen ditut. Lehen Hezkuntza, DBH... Aisialdi titulua daukat. 661 35 49 28

**Arrasate.** Ikasle euskalduna gertu Lehen Hezkuntzako edo DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleei eskola partikularrak eman edota etxeko lanekin laguntzeko. Norberaren etxean egiteko aukera. 607 96 78 65

**Arrasate.** Neska euskalduna LHko eskola partikularrak emateko gertu. 615 76 19 82

**Arrasate.** Neska euskalduna eskola partikularrak emateko prest. Haur Hezkuntzan eta Hezkuntza Berezian diplomaduna eta esperientziaduna. Deitu telefono honetara: 652 73 14 44

**Arrasate.** Unibertsitateko ikasle euskalduna arratsaldez eskola partikularrak emateko prest. 13:00etatik aurrera deitu. 636 12 05 79

**Arrasate.** Unibertsitateko neska euskalduna prest LHko ikasleei eskolak emateko. Eskolara umeen bila joateko aukera. Esperientzia. 645 70 89 95

**Arrasate/Bergara.** Arkitekturan lizentziatua eskola partikularrak emateko prest, DBH eta Batxilergo mailetan. Esperientziaduna. 639 46 07 26

**Azpeitia.** EGA-ko azterketarako zein beste hizkuntza eskakizunetako azterketetarako jendea prestatzen dut. Euskararen irakaskuntzan esperientzia dut. Euskaltegiko irakaslea naiz. Gipuzkoan barrena mugitzeko prest nago. 645-71 85 78

**Azpeitia .** Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleentzako ingeles klaseak ematen ditut.Ingeles irakasle tituluduna. Deitu telefono honetara: 669-27 45 60

**Beasain.** DBHko eta Lehen hezkuntzako ikasleei (6 eta 16 urte bitarteko umeei) klase partikularrak goierrin ematen dizkien psikologiako 5. Mailako ikaslea naiz. 615-71 40 84.

**Bergara.** Ingeleseko irakasleak eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Azterketetarako gertatzen da. Deitu telefono honetara: 618 91 32 89

**Bergara.** Irakasle esperientziadunak eskola partikularrak ematen ditu. 636 16 30 10 edo 943 76 49 41

**Bergara.** Kaxoi flamenkoko eskolak (bakarkakoak zein taldekoak) ematen dira, edozein musika estilori aplikatutakoak. Guille. 680 49 07 99 edo 943 76 34 82

**Bergara.** Pintura eta marrazketa eskolak ematen dira. 943 76 40 14 edo 651 74 21 54

**Bilbo.** Neska euskaldun bat gazteei edo umeei eskolak emateko prest. Esperientzia eta seriotasuna. aitziber83@gmail.com

**Bilbo.** Neska euskalduna (EGA) eskaintzen da Bilbon klaseak emateko gazte eta umeei. 615-72 21 63 Aitziber

**Debagoiena.** Gaztea gertu ingeleseko eskola partikularrak emateko. Ama-hizkuntza dut ingelesa. 696 63 97 48

**Debagoiena.** Gaztea gertu ingeleseko eskola partikularrak emateko. Ama-hizkuntza ingelesa dut eta euskaraz ere badakit. 682 64 57 37

**Debagoiena.** Gaztea gertu ingeleseko eskola partikularrak emateko. Ama-hizkuntza ingelesa dut. 682 64 60 99

**Debagoiena.** Psikologiako laugarren mailako ikaslea arratsaldez eskola partikularrak eman edota haurrak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Zorione. 669 97 46 65

**Debagoienean** matematikako eskola partikularrak ematen dira. Udan eta kurtsoan zehar. DBH eta Batxilergo mailak. 696 38 10 07

**Donostia.** Klase partikularrak lehen hezkuntza eta DBHko ikasleentzat. Esperientzia handiko irakaslea, heziketa berezian diplomaduna eta gizarte eta kultur antropologian lizentziaduna. 628-04 15 26.

**Donostia.** Euskara eskolak ematen ditut donostian edo inguruan. Azterketak prestatzeko laguntza, maila hobetzea... Euskal filologian lizentziatua naiz, habeko 4. Maila daukat eta eskarmentua irakasle moduan. 635-75 25 67

**Donostia.** Ingeles eta euskarako klase partikularrak. Ingeleseko magisteritzan diplomatua. Telf. 696-97 94 49

**Durango.** 4. mailako Telekomunikazio Ingenieritzako ikasle euskalduna Batxilergoko eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Espezialitatea matematika klaseetan.Telefonoa: 635-74 61 76

**Elorrio.** Klase partikularrak ematen ditut.675-70 61 05.

**EGA** edo 4. HE eskuratu nahi? Euskal Filologian lizentziaduna prest eskolak emateko, EGA edo 4. HE lortzeko. Deitu eta hitz egingo dugu. 679 84 53 68

**Gasteiz.** Ingeles filologiako 2. Mailan nagoen neska euskalduna naiz. Haurrak zainzeko edota klase partikularrak emateko prest nago lehen hezkuntzan zein dbhn. Ega titulua dut eta haurrekin esperientzia. 696-21 59 39 (Ane) *etxebe_2@hotmail.com*

**Gernika-lumo.** Lehen hezkuntzan eta musika hezkuntzan diplomatua, begirale tituluarekin eta esperientziaduna klase partikularrak emateko, umeak zaintzeko edo euskal herriko edozein gunetan irakasle edo begirale bezala lan egiteko prest. 687-95 06 05

**Oñati**. Irakaskuntza munduan esperientzidun ingenieri mekanikoa, klase partikularrak emateko prest. DBH nahiz Lanbideheziketako ikasleei. Deitu telefono honetara: 646-42 13 63

**Villabona.** Ingeleseko klaseak ematen dira Gipuzkoa mailan.Taldeka edo bakarka. Maila ezberdinak. Irakasle tituluduna. Deitu telefono honetara: 664-16 02 68 continental56@hotmail.com




## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Clio familiarra salgai.** Clio grand tour berria. Dynamique 1.5 dci 85 zp. Gris zilarkara. 2 urte eta erdi. 30.000 km. Diesela. 12.000 euro. Aire egokitua, erreguladorea, limitadorea. Break. Airbagak. 5 ate. Bihurguneetarako argi gehigarriak. Aurreko kristal igogailu elektrikoak. Ixte sistema zentralizatua. Atzeko banketa 1/3-2/3. Cd. Garantia: 2012-01-22. Urteko errebisioa pasatu berri. Deitu telefono honetara: 609-93 90 95.

**California t4 salgai.** California t4 salgai. 2400 diesela. 146.000km. Egoera onean. Sukaldea, hozkailua eta abar dauzka. 4 pertsonarentzako oheak (behean eta goian). 13.700 euro. Deitu telefono honetara: 671-84 15 63. Jon.

**VW Transporter** furgoneta salgai. 1,9 turbo diesela. 6 plaza. 2000ko abenduan matrikulatua. Udaleko zerga 2011ko ekainera arte ordainduta. IAT (ITV) otsailera arte. 180.000 km. 6.590 euro. Deitu telefono honetara: 678 60 42 02.

**Kawasaki - versys 650.** Egoera onean, beti garajean. 2007koa da. 12.400 kilometro, gorria. Kutxa opari. Oharra: limitatuta dago.4.500 euro. Interesatuok deitu telefono honetara: 690-07 15 72.

**Yamaha** jog scooter bat salgai. Yamaha jog motorra salgai. 2.000 km. Iata pasatuta. Ezer aldatu barik, dena orijinala. Beti egon da garajean. stratokaster@gmail.com. 650-17 22 85

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Astoa salgai.** Urte biko asto arra, etxean jaio eta hazitakoa. Txipa jarrita. Deitu telefono honetara: 656-77 29 94

**Espagneul breton** txakurra salgai. 4 urte ditu. 1200 euro. Deitu 689-89 24 34 zenbakira.

**Indioilar beltzak salgai.** Urtebeteko bikote bat eta hiru hilabeteko hiru bikote. 943-79 96 55.

**Persiar katakumeak salgai.** Irailaren 9an jaiotakoak. Zuriak. Oso maitekorrak dira eta pentsua jaten hasi dira jada. Bi ar eta eme bat. Ikusteko aukera. 943-79 96 55 edo 685-72 46 86

**Rottweiler txakurkumeak salgai.** Espainiako txapeldunen kumeak dira. 605-75 91 42

**Setter** ingeles txakurkumeak salgai,. 2010eko maiatzean jaioak. Oilagorretarako apropoak. 605-73 75 30

**Spaniel** txakurkume arra salgai. 2010ekomaiatzaren 15ean jaioa. Zuri-beltza. Arkaitz. 610-36 39 94

### 703. EMAN

**Cocker** ingelesa ematen da Arrasaten. Ezin dugulako zaindu. Emea, beltza, txerto eta mikrotxiparekin. Lau urte dauzka. Maitagarria da, eta txakur ona. Ondo zainduko duen norbaiti bakarrik emango diogu. 943-79 82 43 edo 943-79 97 17

### 704. BESTELAKOAK

**Arratoi txakurra,** "Kanel" Uberan desagertu egin da. Lepokoa laranja,aurreko ezker anka okerra. Ikusten baduzu, deitu, mesedez 617 57 25 43 edo 697 721 836.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Akordeoia salgai.** 120 baxu, B-14C. Murriztua. 647-51 52 80

**Altzariak.** Dekorazio aldaketagatik, bi plazako sofa-ohea, Ikeako mahaia eta 19 hazbeteko Philips telebista DVD integratuarekin salgai. Gazteendako egokia. Oso merke eta egoera onean. 17:30etik aurrera deitu. Oñatin. 619 81 70 72

**Haurrak eramateko** mendiko motxila salgai. 658 12 43 38

**Home Cinema** salgai. Interesatuok deitu zenbaki honetara:. 943 79 60 89.

**Karabana** salgai. Adria Unica D-391-DK. Ondo zainduta. Interesatuok deitu zenbaki honetara:. 636 85 74 43.

**Karabana** salgai. Caravelair Bahia 460. 4 pertsonarentzat. Bi ohe handi. 1986koa. Matrikula frantsesa. Abantze eta guzti. Prezio onean.606 53 53 52.

**Koltxoi** berri-berria salgai (estreinatu gabea). 1,90x1,50 m. Pikolin. 619 87 95 57

**Kona Stinky** bizikleta salgai. Berdea. 3 urte ditu. 950 euro. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 945 44 54 05 edo 666 60 70 27

**Ipod bat salgai.** 8 Gb-ko Ipod Touch berria salgai 100 eurotan. 636-17 05 08

**Mahaiko ordenagailua salgai.** Mahaiko ordenagailua Asus P5GC-MX/1333 E2140 2Gb 400Gb» mahaiko ordenagailua saltzen dut. Guztiz ekipaturik (plasmako pantaila, altabozak...). 2 urte eta erdi ditu eta oso egoera onean dago. Prezioa 230 euro Deitu telefono honetara: 670-52 58 74

**Lowepro primus AW.** Mendira joateko oso egokia. Gutxi erabilita. Reflex argazki kamera eta zoom objektiboa (70-200 mmraino). Gainera, beste bi objektibo edo flasha ere sartzen dira. Tripodea edo mendiko bastoia eramatekoa du. Deitu telefono honetara: 667-95 73 16.

**Ordenagailua.** Mahaiko ordenagailua salgai. Deitu telefono honetara: 943 79 60 89.

**Klarinetea salgai.** Klarinetea salgai. 617-80 87 85

**Piraguarako anoraka.** Piraguarako anoraka saltzen dut, berri berria dago, Artistic markakoa, Mikroporeskoa , M tailakoa eta semi-lehorra. 679 10 95 23

**Umea eramateko** motxila. Baby Börjn etxekoa. Beltza eta gorria. Bizkarrarendako errefortzuarekin. Berria. 80 euro. 607 06 22 20

### 803. EMAN

**'Pyrenaica',** 'Integral', 'Kezka' eta 'Bike' aldizkari zaharrak ematen dira. Deitu telefono honetara: Deitu telefono honetara: Deitu telefono honetara: 658 71 44 37.

### 806. GALDU

**Aretxabaleta.** Patinetea galdu zuen umeak Hirusta inguruan, irailean. Zuria eta morea da. 675 70 82 36.

**Argazki kamera.** Maritxu Kajoi egunean argazki kamera galdu nuen. Aurkitu badudu, deitu zenbaki hauetako batera:. 686 54 74 20 edo 943 53 36 13.

**Aterkia** galdu nuen domekan Bergaran, Simon Arrieta, Juan XXIII.a plaza eta Ariznoa tabernan artean. Zuria eta beltza da. Callate la Boca markakoa da. Deitu telefono hauetara: 659 76 08 81 edo 646 48 05 39.

**Autoko giltza.** Oñatiko Herri Egunean Ford markako kotxeko giltza galdu nuen. Giltza bakarra. Aurrealdean kamioi baten argazkia zuen giltzatakoak eta atzealdean Transportes Ayerbe. Norbaitek aurkitu badu, hau da nire telefonoa: 607 47 31 00.

**Betaurrekoak.** Aretxabaletan graduatutako betaurrekoak galdu nituen irailaren 28an, arratsaldez, aretxabaletako araba ibilbidean. Aurkitu badituzu, deitu, mesedez. Sarituko da. 943-53 26 16

**Erlojua.** Emakumezkoendako erloju bat galdu nuen urriaren 9an Eskoriatzatik Aretxabaletako bidean. Balio sentimentala du, eta sarituko da. Deitu telefono honetara: 943 71 46 59 edo 600 23 21 11.

**Kirol jertsea** galdu dut Aretxabaletan. Umearena da, Rip Curl etxekoa, urdin kolorekoa. Aurkitu baduzu, deitu, mesedez:. 639 99 33 34.

**Mendiko motxila** galdu nuen urriaren 9an Garibaiko autobus geltoki inguruan. Norbaitek aurkitu badu, dei diezadala, mesedez. 677 48 39 17.

**Oñati.** Erroxaixo Bixamon goizean umearen oinetako bat galdu nuen, urdina. Aurkitu baduzu, deitu, mesedez. Deitu telefono honetara: 695 75 93 77.

**Jaka beltza. galdu Arrasaten** Jaka beltza galdu nuen azaroaren 20an Arrasateko Ekaitz, Haizea edo Gure Leku tabernetan. Gitarra formako orratz gorri bat du ezkerreko poltsikoan. Aurkitu edo zuk eraman bazenuen deitu 667 95 73 16 telefono zenbakira.

### 807. AURKITU

**Aretxabaleta.** Ume baten patinetea aurkitu dute. Deitu goizez. Deitu telefono honetara: 943 79 86 21.

**Zira** bat aurkitu nuen urriaren 7an trenbidean. Zurea bada 663 04 35 05 zenbakira deitu.

### 808. BESTELAKOAK

**Eskerrik asko.** Espiritu santuari jasotako mesedeagatik.

SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak
Bizkaia kalea 6 • 20800 Zarautz
Telef.:943-01 07 00 / Mug.:665-71 8596
www.inmosalbide.com

**Aia.** Eraikuntza berria. 3 logela, 2 bainugela eta 127m2ko terraza. 46.588.000 pezeta.

**Aizarnazabal.** 3 logelako etxebizitza. 10 metro koadroko trastelekuarekin. Oso prezio onean. 33.000.000 pezeta.

**Aizarnazabal.** AUKERA ONA. Etxebizitza eraiki berria. 2 logela. 30.000.000 pezeta.

**Getaria.** Herrerieta kalea. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. Prezio onean: 42.500.000 pezeta.

**Zestoa.** Arroa behea. 2 logelako etxebizitza. 28.000.000 pezeta.

**Zestoa.** Erdialdean. Etxe bifamiliar batean, 3 logelako etxebizitza. 31.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Itxasmendi. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Altua eta egoera onean. 51.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Vista Alegren. 2 logela ditu. Terraza handia. Eguzkitsua. 49.500.000 pezeta.

Etxebila higiezinak
943-44 61 66
ALOKAIRUAN
**AMARA** 3 logela, suakldea, egongela, bainugela. Kanpora begira. 750€
**AMARA** 3 logela, sukaldea, egongela, 2bainugela. 1.100
**AMARA** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Aparkalekua. 650€
**PASAI ANTXO** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 790€
**URNIETA** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 650€
SALMENTAN
**AMARA** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Negoziatu daiteke. 49.990.000 pta
**AMARA** Madril etorb. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. 50.500.000 pta
**AMARA** Altua. Terraza. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Bistak. 51.500.000 pta
**AMARA** Berritua. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Altua. 51.800.000 pta
**AMARA** Azkena terrazakin. Hegoa. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 54.000.000 pta
**AMARA** Dena kanpora. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Berritua. 57.800.000 pta
**GROS** Hondartzatik hurbil. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. 39.500.000 pta
**GROS** Apartamentu polita. Logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Igogailua. 50.500.000 pta
**INTXAURRONDO**. 2 logela, sukaldea, bainugela. Trastelekua. 41.500.000 pta
**PORTUAN** Kontxara. logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berritua. 40.500.000 pta
**ANTIGUO** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. Terraza. 59.800.000 pta
**EGIA** Karmengo amabirjina. Igogailua. 2 logela, sukaldea, bainugela. Berritua. 42.950.000 pta
**EGIA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora. 41.600.000 pta
**HERRERA** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora. Berritua. 36.200.000 pta
**BIDEBIETA** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 29.990.000 pta
**ALTZA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Trastelekua. Igogailua. 24.990.000 pta
**MARTUTENE** Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora. Sartzeko 22.000.000 pta
**PASAI DONIBANE** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 29.200.000 pta
**PASAI ANTXO** Atikoa berritua. Logela, sukaldea, egongela, bainugela. 23.900.000 pta
**ERRENTERIA.** Erdialdean. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 27.990.000 pta
www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2 | 1 | | 4 | | | |
| | 7 | 4 | | | 9 | | 3 | |
| | | 5 | | 3 | 7 | | | 4 |
| | | | | | | 7 | | |
| 2 | | 9 | 7 | 8 | | 6 | 4 | |
| | 6 | | 5 | | | | | |
| | | | | 7 | 8 | | 5 | |
| | | 3 | | | 6 | | 9 | 8 |
| 8 | | 6 | 4 | | 5 | | | |

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



* Mahai jokoa
Bazkidea
Aldi berekotasuna
Orotarako hitza
Iragankorra
Bururatuak
Eskazia, gabezia
Etzanda zegoen
Madarikazioa, biraoa
Saguzar
Ikuskizun mota
Larraungo herrixka
Akabo
Ardiak zaintzen ditu
Nafarroako herria
Joan den urteko
Röntgen
Aluminioa
Gabezia
Gainaldea
Aiako
Bokala

GOIENKARIA

## hieroglifoa

Kontuz! Oztopoa...




## hizki salda

Debagoieneko lau futbol talde.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| F | A | E | Z | M | U | N | Z | X |
| G | K | L | S | O | E | D | S | K |
| K | I | H | L | N | N | F | J | K |
| N | T | X | U | D | A | D | V | E |
| K | O | L | U | R | L | J | N | E |
| A | L | O | Ñ | A | D | S | A | E |
| E | I | O | W | L | P | M | L | F |
| A | D | L | S | H | K | F | J | G |
| B | E | R | G | A | R | A | H | X |

## soluzioak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| F | A | E | Z | M | U | N | Z | X |
| G | K | L | S | O | E | D | S | K |
| K | I | H | L | N | N | F | J | K |
| N | T | X | U | D | A | D | V | E |
| K | O | L | U | R | L | J | N | E |
| A | L | O | Ñ | A | D | S | A | E |
| E | I | O | W | L | P | M | L | F |
| A | D | L | S | H | K | F | J | G |
| B | E | R | G | A | R | A | H | X |

**Hieroglifoa:** Bidean.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3 | 8 | 2 | 1 | 5 | 4 | 9 | 6 | 7 |
| 6 | 7 | 4 | 8 | 2 | 9 | 5 | 3 | 1 |
| 9 | 1 | 5 | 6 | 3 | 7 | 8 | 2 | 4 |
| 5 | 4 | 8 | 9 | 6 | 3 | 7 | 1 | 2 |
| 2 | 3 | 9 | 7 | 8 | 1 | 6 | 4 | 5 |
| 1 | 6 | 7 | 5 | 4 | 2 | 3 | 8 | 9 |
| 4 | 9 | 1 | 3 | 7 | 8 | 2 | 5 | 6 |
| 7 | 5 | 3 | 2 | 1 | 6 | 4 | 9 | 8 |
| 8 | 2 | 6 | 4 | 9 | 5 | 1 | 7 | 3 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | D | | S | | P |
| | | | S | O | Z | I | O | A |
| | | | | M | E | N | T | S |
| | S | | Z | I | R | K | U | A |
| G | A | U | E | N | A | R | A | K |
| | K | I | T | O | | O | K | O |
| A | R | T | Z | A | I | N | | R |
| | E | Z | A | | A | I | A | R |
| G | A | I | N | A | Z | A | L | A |

## asteko horoskopoa

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Ingurukoek zurekin duten jokaera hotzaren ondorioz eurenganako zeure jarrera aldatuko duzu. Izan maitagarriagoa ondokoekin. Beharrean, lanak atzeratuko zaizkizu.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Ahalegindu gauzak modu bortitzean ez adieraztn, bestela ondokoak minduko dituzu eta etsaiak ugarituko zaizkizu. Beharrean zure asmoak ez dira errealak.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Zure ahaleginaren emaitzak batzen zabiltzan arren, ez zaude erabat gustura, gehiago espero baitzenuen. Liskarretan dabiltzanen artean bitartekariarena egingo duzu.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Ametsetan ibiltzeak beharrean aukera paregabeak galaraziko dizkizu. Adi, beraz, jendeak diotsunari, ahul zabiltzanez azalean arazoak izan ditzakezu-eta.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Guztien arreta zeureganatzeko gogoak ohi baino lelokeria gehiago eginaraziko dizu. Pentsatu, ezer egin aurretik, jokaera horrek fama txarra baino ez dizu ekarriko eta.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Komunikatzeak eta jendearekin tratuan aritzeko trebetasunak orain arte ausardia ezagatik baztertutako lanak egiten lagunduko dizute.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Beharrean aurrerapenak egiteko aste egokia. Bolada ona izan arren, ez lasaitu larregi, aukera onak gal ditzakezu-eta. Ohi baino trebeago ibiliko zara.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Zure bizimoduarekin gustura ez egotearen ondorioz, hainbat aldaketa egingo dituzu. Hainbat bidaia egin beharko dituzu eta autoa aztertzera eraman beharko zenuke.

**SAGITARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Egun osoa lagunekin parrandan zabiltza, eta etxekoak ikusi ere ez dituzu egiten. Kontuz, arazoak izan ditzakezu-eta. Larregizko jan-edanak; zaindu pisua.

**CAPRICORNIUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Ohikotasunetik alde egiteko gogoagatik beharrak egiteke utziko dituzu, eta nagusiak haserretuko zaizkizu. Ez ibili batetik bestera zoro baten modura.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Kontuz diru larregi xahutzearekin, hilaren bukaera latza izan daiteke-eta. Beharrean itzel, zure ideia zoragarriak nagusien gustukoak izango baitira.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Maitasunean ezin hobeto: bikotekidea badaukazu bidaia egingo duzu berarekin; eta ez badaukazu, pertsona berezia ezagutuko duzu bidaia batean.

## gazte zerbitzua

**AISIA**

**> Musika.** Zuzen-zuzenean egitasmoa. Urtarrilaren 7ra arte, 70 musika talderen emanaldiak hainbat musika antzokitan: Atom Rhumba, Berri Txarrak, Capsula, Esne Beltza, Gari, Ion Maia, Joseba Tapia, Kerobia, Korrontzi, Makala, Oreka Tx, Tulsa eta We Are Standard, Mala Rodríguez, Electric Six, Sex Museum... *www.kulturalive.com*

**LANA**

**> Berdintasunerako teknikaria.** Errenteriako udalak eskaintza publiko baten deialdia egin du; helburua, berdintasunerako teknikaria kontratatzea. Epea: azaroaren 5a.

**> Donostia Kultura.** hainbat lanpostu finko betetzeko deialdia egin du: Komunikazio eta Irudiaren Arduraduna (1), Administrazio eta Baliabideen Kudeaketa Arduraduna (1), Arkitekto Teknikoa (1), Informatikako Erdi Mailako Teknikaria (1), Buru Teknikoa (1), Produkzio-Koordinatzailea (1), Produkzio-Teknikari Komertziala (1), Produkzio-Teknikaria Audio eta Backline-n (1), Produkzio Teknikaria (5), Kultur Etxeko Teknikari Laguntzailea (7). Epea: azaroaren 3ra arte.

**BEKAK**

**> Beken gida.** Gipuzkoako Gazteentzako Informazio Sareak beken gida berri bat atera du. Beka deialdien erreferentziak biltzen ditu maila ezberdinetan banatuta. Beka bila bazabiltza, hau da zure gida! *www.gipuzkoangazte.info/bekak*

**> Udan atzerrian hizkuntzak ikasteko.** Eusko Jaurlaritza. Baldintzak: 2009-2010 ikasturtean beken deialdi orokorreko beka-onuraduna izatea eta 2011 urtean gehienez 19 urte betetzea. Epea: azaroaren 23an.

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 25 20 65.
*gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net*

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
*gzerbitzua@euskalnet.net*

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
*gazteinformazioa@oinati.net*

## astea GOITBn

### Astelehena, 1



**> Lizardi bertsolari gazteen txapelketa GOITBn 21:45**

Erlo Telebistak ekoiztutako saioa; bertsolari gazteen emanaldia eskainiko du Goienak. 21:45ean.

**08:00** Marrazki bizidunak
**09:00** Haurrekin jolasean.
**11:30** Ipupomamua.
**12:00** Bertso saioa.
**14:30** Goiena Magazinea.
**15:30** Erloklip.
**16:00** Aurresku txapelketa.
**16:30** Esatea libre.
**17:30** Danbaka: Desprezio eta Black River.
**18:45** Marrazki bizidunak.
**19:45** Haurrekin jolasean.
**20:15** Goiena Magazinea.
**21:15** Ipupomamua.
**21:45** Lizardi bertsolari gazteen txapelketa.
**22:15** Kiroleroak.
**22:45** Nire herria: Gabiria.
**23:15** Erloklip.
**00:15** Emisio amaiera.

### Martitzena, 2



**> Iñaxio Garro Aretxabaletako alkatea, 'Goiena magazinea'-n 20:15**

Saioan zehar ikusleek aukera izango dute zuzenean alkateari galderak egiteko, 943 25 05 05 telefonoan.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Onein.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** 28 klip.
**16:20** Lizardi bertsolari gazteen txapelketa.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Nire herria: Gabiria.
**18:15** Marrazki bizidunak.
**18:45** Berriak.
**19:15** Kantari.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Danbaka: Lord Witch.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Aurresku txapelketa.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 3



**> Zinema 'Magazinea tertulia' saioan eta 'Tasio' filma 20:45**

Txomin Madina kazetariak zuzenduta, zinema izango dute hizpide eta ondoren *Tasio* filma eskainiko da.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Aurresku txapelketa.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:35** Haurrekin jolasean.
**18:15** Marrazki bizidunak.
**18:45** Berriak.
**19:15** Kantari.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Goiena Magazinea tertulia.
**21:45** Filma: Tasio.
**23:15** Goiena Magazinea.
**00:15** 28 klip.
**00:45** Emisio amaiera.

### Eguena, 4



**> La-Tox taldeak Espaloian egindako emanaldia 20:45**

Danbakari eskainitako saioan, La-Tox talde bergarrarak Elgetan emandako kontzertua ikusgai.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Onein.
**14:45** Berriak.
**15:15** Goiena Magazinea, tertulia.
**15:45** Filma: Tasio.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Onein.
**18:15** Ipupomamua.
**18:45** Berriak.
**19:15** Kantari.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Danbaka: La-Tox.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Gipuzkoakultura.
**22:45** Lizardi bertsolari gazteen txapelketa.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 5



**> Iñaki Espartzari elkarrizketa 'Goiena magazinea'-n 19:45**

UNEDeko zuzendari berria Goienan izango da, 19:45ean hasiko den *Goiena magazinea*-n.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Onein.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ur eta lur.
**15:45** Erloklip.
**16:15** Oinez bi.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ipupomamua.
**18:45** Berriak.
**19:15** Kantari.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Gipuzkoa kultura.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Danbaka: Lord Witch eta La-Tox.
**23:15** Goiena Magazinea.
**00:15** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> Sarreren zozketak Arrasate Irratian**

Aste honetako kontzertuetarako sarrerak Arrasate Irratian: eguenean Gari musikariak Arrasateko gaztetxean egingo duen kontzerturako; zapatuan Greg Dullik Amaia antzokian eskainiko duen emanaldirako; eta Danbakako bigarren kontzerturako sarrerak. Parte hartzeko: 943 25 05 05 edo *irratia@goiena.com.*

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera!
> Albistegia
> Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
> Astelehenetan Kirolak
> Enekoren tartea
> Udal Gazte Bulegoa
> Sexologia Zerbitzua
> Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
> Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
> Zozketak (egubakoitzean)
> Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga)
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Musika
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 22:00:** Errepikapenak

## telealbisteak

**MUSIKA** > DANBAKA

# Danbakako lehenengo lau parte-hartzaileen emanaldiak GOITBn

Desprezio, Black River, Lord Witch eta La-Tox taldeen kontzertuak astelehen, martitzen, eguen eta egubakoitzean

**MAIALEN GONZALEZ** > BERGARA

Hasi da Danbaka eta Goienak xehetasun guztiak eskainiko dizkizue. *Danbaka.com* atarian sartuta informazio guztia aurki daitekeen arren, parte-hartzaileen emanaldi guztiak ere ikusgai izango dituzue.

Desprezio, Black River, Lord Witch eta La-Tox taldeak izan dira lehen parte-hartzaileak eta aste honetan ere GOITBk kontzertuak eskainiko ditu. Astelehenean, 17:30ean, Desprezio eta Black River; martitzenean, 20:45ean, Lord Witch; eguenean, 20:45ean, La-Tox; eta egubakoitzean, 22:15ean, Lord Witch eta La-Tox.

**HURRENGO HITZORDUA ASTEAN**

Danbakako IV. edizioko hurrengo parte-hartzaileak egubakoitzean igoko dira oholtza gainera: El Trio Calavera oñatiarrak, Donostiako eta Oñatiko Rock Privado taldea, Front Malabar arrasatearrak eta Abadiñoko Ymotek.

Datorren astetik aurrera, bigarren saioko lau talde horien kontzertuak ikusi ahal izango dituzue GOITBn eta zuzenean, *streaming* bitartez, *www.danbaka.com* atarian.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

MUSEO BAT BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

2010EKO ZIENTZIAREN ASTEKO HITZALDIAK

**Azaroak 2:** "Los secretos del cerebro" – Gurutz Linazasoro-Zelai Arezti Kultur Etxea, Zumarraga
**Azaroak 3:** "El lenguaje en el cerebro" – Manuel Carreiras-Zientziaren kutxaGunea, Donostia
**Azaroak 4:** "Los secretos del cerebro" – Gurutz Linazasoro-Kultur Etxea, Tolosa
**Azaroak 8:** "Los secretos del cerebro" – Gurutz Linazasoro-Portalea Kultur Etxea, Eibar
**Azaroak 9:** "Los secretos del cerebro" – Gurutz Linazasoro-Zientziaren kutxaGunea, Donostia

Hitzaldi guztiak 19:30ean izango dira



Informazio gehiago: *www.miramon.org* edota 943 01 24 78

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
*www.miramon.org*
**Ordutegia**
Astelehenetan itxita.
Asterartetik ostiralera 10:00-19:00.
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00

kutxa | www.kutxasocial.net

## zorion agurrak



LEINTZ GATZAGA
**Xabat Otazu**
Urriaren 27an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko danon partetik.



ARRASATE
**Eider Muñez Morales**
Urriaren 27an, 5 urte. Zorionak, Eidertxo eta muxu pila bat etxekoen partetik!



ARRASATE
**Arantza Ormaetxea Aramendi**
Urriaren 27an, 44 urte. Zorionak! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta patxo potolo bat Jon eta Iraideren partetik.



ARETXABALETA
**Josu Larrañaga Larrañaga**
Urriaren 28an, 45 urte. Zorionak, aita! Patxo handi bat eta egun polita izan dadila Jon eta Iraiden partetik. Goxokiak ekarri.



OÑATI
**Danel Gomez Barrena**
Urriaren 29an, urtebete. Zorionak, txikitxo etxekoen eta batez ere Urkoren partetik.



OÑATI
**Izar eta Karlos Ezkibel**
Izarrek urriaren 29an, 2 urte bete ditu. Zorionak, 'barritsu'! Aitajauna Karlosek, berriz, azaroaren 4an beteko ditu urteak. Etxeko danen partetik, zorionak!



ESKORIATZA
**Haritz Arrese**
Urriaren 24an 3 urte. Zorionak, arratsaldean elkartuko gara Leixarrapen, zure eguna ospatzeko. Patxo handia Unax,Oihane eta Ametzen partetik.



BERGARA
**Mireia Sebal Lazpiur**
Urriaren 30ean, 9 urte. Patxo handi bat denon partetik eta urte askotarako, *guapita*!



OÑATI
**Uxue Egaña Azkargorta**
Urriaren 30ean, 8 urte. Zorionak, printzesa! Oso-oso ondo pasatu zeure egune, eta jarraitxu betiko moruko sorgintxue izeten! Patxo handi bat etxeko danen partez eta zorionak!



ARETXABALETA
**Ibai Etxebeste Rodrigo**
Urriaren 30ean, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu eta eutsi goiari! Oñatikoen partetik.



OÑATI
**Iñaki Igartua**
Urriaren 30ean, 30 urte. Zorionak! Urte bat gehixau! Ez dakotzu denboria alperrik galtzeko e? 30 urtetzar! Ondo pasatu eta patxo asko familixakuan partetik! Zapatuan zure etxian bazkaixa ez?



ARRASATE
**Beñat eta Luken Jimenez Orobengoa**
Zorionak, bikote! Urriaren 31n eta azaroaren 3an, 8 eta 5 urte! Muxu handi-handi bat amatxo eta aitatxoren partetik!



BERGARA
**Ane Jauregi Elorza**
Urriaren 31n, 3 urte. Zorionak, marimatraka! Muxu handi bat laguntxoen eta etxekoen partetik eta beste pa goxo bat Maialenen partetik.



ARETXABALETA
**June Gastañaga Zugasti**
Azaroaren 1ean, 10 urte. Zorionak, *guapixima*! Arientzan elkartzen garenerako antzerki bat prestatu, asko gustetan jaku ta! Milaka muxu: Malen, Ekaitz, Julen, Nagore, Jokin eta Landerren partetik. Mua.



BERGARA
**Unai Eguren Guereñu**
Azaroaren 2an, 5 urte. Zorionak, Unaitxo. Oso-oso ondo pasatu zure egunean eta patxo handi bat denon partetik.



BERGARA
**Irati Mujika Elkoroberezibar**
Azaroaren 2an, 4 urte. Zorionak etxekoen partetik eta bereziki Ander eta Unaxen partetik!



ARRASATE
**Ane Diaz de Tuesta**
Azaroaren 2an, 23 urte. Zorionak, Ane! Hola jarraituz gero, laister Michelin gidak hiru izar emango dizkizu. Muxu handia Oñatitik.



ARETXABALETA
**Eneko Zugasti**
Azaroaren 3an, urtebete. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu eguna. Muxu pila-pila bat Oier, June, Malen, Nagore, Jokin eta bereziki ama, aita eta Anerren partetik.



ARRASATE
**Nagore eta Aimar Garitaonaindia**
Azaroaren 3an, 7 urte. Zorionak 7. urtebetezean, etxekoen eta Koxken partetik!



ARRASATE
**Lola Lopez**
Azaroaren 3an, urtebetetzea. Zorionak, amama, Ainhitze eta Arkaitzen partetik.



ARRASATE
**Maider Frutos Uribesalgo**
Azaroaren 3an, 6 urte. Zorionak, *prexioxi*! 6 urte jada gure printzesak. Ondo ospatu eta patxo pila, etxekuen partetik.



ARRASATE
**Yoli Matilla Urrutia**
Azaroaren 3an, 41 urte. Zorionak, guapisima! Oso ondo pasatu eguna, besarkada eta belarri tirakada handi bat, muxu goxo potoloak laguntxo guztien partetik. Patxoak, printzesa!



ARRASATE
**Garazi Azkarate Ojanguren**
Azaroaren 4an, 2 urte. Zorionak! Amatxo, aitatxo, Lide, lehengusu Oihan eta Hegoi, amama Mila eta Aurora eta aitaita Pepe eta Balentin.



ARETXABALETA
**Oxel Artolazabal Martinez**
Azaroaren 4an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Bostekoa emateko moduan zaude! Ze handi! Ondo-ondo pasatu eta musu handi bat etxeko denon eta batez ere Lur eta Jhon Daviden partetik!



BERGARA
**Josu Martinez Loiti**
Azaroaren 4an, 6 urte. Zorionak etxekoen partetik.



ARRASATE
**Oier Guzman Orobengoa**
Azaroaren 4an, 3 urte. Zorionak, maitia! Ondo-ondo pasatu eta patxo handia aitatxo eta amatxoren partetik.



ARRASATE
**Laia Etxagibel Ruidiaz**
Azaroaren 5ean, 2 urte. Muxu handi-handi bat etxekoen partetik.



OÑATI
**Ane eta Axier Anduaga**
Anek, azaroaren 5ean 11 urte, eta Axierrek 6an, 6 urte. Ane eta Axier jo ta ondo pasatu zuen urtebetetzean etxekoen partetik.



BERGARA
**Maddi Arando Arbelaitz**
Azaroaren 6an, Osintxuko Maddik 3 urte. Zorionak, Sorgintxo! Muxu handi bat etxekoen partetik. Ondo pasatu eguna.



ARRASATE
**Cosmina Lunca, Maddi Pampin, Haizea de Tena eta Edurne Garai**
Urriaren 26an Cosminak, Maddik eta Edurnek 5 urte bete dituzte eta Haizeak bi. Arizmendi Arimazubiko lagun eta Argitxoren partetik mila kilo zorion!



OÑATI
**June eta Nahia Blázquez Zelaia**
Azaroaren 2an 5 urte. Zorionak, bikote! Prestatu egizue jai eder bat etxeko guztiek zuekin disfrutatzeko. Hor izango gara denok. Musu handi bana etxekoen partetik!

## ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Astelehenko Goienkariaren bidez! Hiru bide dituzu zorion agurrak jartzeko:

**Internet bidez**
Goiena.net atariko Zorion agurren tartean sartu.
Aukeratu zein herritan gehitu nahi duzun eta eskatzen diren datuak bete.

**e-postaz**
Mezu bat bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera.
Honako datuak emanez: Izen abizenak, herria, urteak noiz eta zenbat betetzen dituen, eta nahi duzun mezua.

**Edo etor zaitez Goienako ordezkaritza batera.**

Egubakoitz 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

# ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,
deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
**943 25 05 05**
Edo zatoz ordezkaritza batera.
**Eskelaren prezioa: 122.50 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **163** euro.
**GOIENKARIA: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.**




ESKER ONA

## Eugenio Nafarrate Telleria

2010eko urriaren 21ean hil zen, 96 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Aramaion, 2010eko azaroaren 1ean.

OROIGARRIA

## Raul Saiz Trejo

Fagor Ederlan enpresako langilea.

2010eko urriaren 23an hil zen moto istripuz.



Fagor Ederlan Uribarri eta
Markuleteko lagunak.

FAGOR
Fagor Ederlan

Arrasaten, 2010eko azaroaren 1ean.


## HARTU PARTE!

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle.**

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera:
*astelehena@goiena.com*

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa


## asteburuko albuma




**Skate erakustaldia.** Bergarako Laino skateguneak jai izugarria antolatu zuen gunearen lehenengo urteurrena ospatzeko. Bergarako eta kanpoko punta-puntako patinatzaileak aritu ziren zaleen gozamenerako. Gainera, patinatzen zuten bitartean, DJak musika jartzen aritu ziren. Eguna borobiltzeko, iluntzean rock kontzertuak ere izan ziren Lainon.

## jaiotakoak



**Nora Mijancos Eizagirre**
Donostia > 3,650 kilo. Urriaren 24an. Gurasoak: Esther (Donostia) eta Ricardo (Donostia). Argazkian, Nora jaioberria, gurasoekin.



**Alaine Imaz Poza**
Bergara > 3,850 kilo. Urriaren 24an. Gurasoak: Asun (Bergara) eta Pedro (Bergara). Argazkian, Alaine jaioberria, aitarekin.



**Aaron Buchely Ojeda**
Arrasate > 2,720 kilo. Urriaren 23an. Gurasoak: Siluana (Arrasate) eta Alfredo (Arrasate). Argazkian, Aaron jaioberria, amarekin.



**Elene Eraña Urbina**
Aretxabaleta > 3,790 kilo. Urriaren 22an. Gurasoak: Naiara (Aretxabaleta) eta Iñigo (Aretxabaleta). Argazkian, Elene jaioberria, amarekin.



**Ibai Larrañaga Goñi**
Antzuola > 3,500 kilo. Urriaren 23an. Gurasoak: Aitziber (Antzuola) eta Mikel (Antzuola). Argazkian, Ibai jaioberria, amarekin.



**Irati Uribesalgo Santos**
Bergara > 2,610 kilo. Urriaren 24an. Gurasoak: Ainhoa (Bergara) eta Mikel (Bergara). Argazkian, Irati jaioberria, sehaskan lo.



**Ekain Agirre Lete**
Arrasate > 3,430 kilo. Urriaren 24an. Gurasoak: Ione (Arrasate) eta Jabi (Arrasate). Argazkian, Ekain jaioberria, amarekin.



**Isac Jimenez Peralta**
Oñati > 3,280 kilo. Urriaren 24an. Gurasoak: Veronica (Ecuador) eta Daniel (Ecuador). Argazkian, Isac jaioberria, amarekin.



**Garazi Larrea Romero**
Oñati > 3,450 kilo. Urriaren 29an. Gurasoak: Irati (Oñati) eta Xabier (Oñati). Argazkian, Garazi jaioberria, sehaskan lo.



**Hodei Mulas Iglesias**
Aretxabaleta > 3,200 kilo. Urriaren 29an. Gurasoak: Sonia (Aretxabaleta) eta Jabi (Aretxabaleta). Argazkian, Hodei jaioberria, izeko Rosirekin.


BABESLEA



ASTELEHENEKO **Goienkaria**

**EGOITZA NAGUSIA**
Ibarra kalea 6, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2010-11-01

**Klara Badiola** > Aktorea

# "Izaeraren alde guztiak dauzkagu gure baitan"

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

***Izarren argia* filmarekin itzuli da Badiola (Donostia, 1953) pantaila handira. Saturrarango emakumezkoentzako espetxean kokatzen da istorioa; gogor eta mingarria. Emelina da hura fikzioan, Barbara Goenaga protagonistaren babeslea.**

**Marka utzi ohi duten film horietakoa ei da.**

Gidoia irakurri genuenean izozturik geratu ginen. "Hau benetan gerta daiteke?"; hori zen gu guztion galdera. Ezer ez dakigun istorio ezkutu asko dago.

**Gogorra ere izan da paperean sartzea?**

Bai, baina baita polita ere. Zailena da pentsatzea nola irits daitekeen horraino. Ze ez da boterea bakarrik, min egitea ere bada eta nola eta min handien egin daitekeen eran: amei haurrak kentzen. Istorioaren krudeltasuna bera izan da gogorrena niretzat.

**Emelina zara zu, emakume borrokalaria eta gogorra. Aktoreei gustatu ohi zaizuen paper horietako bat da.**

Milizianoa izan zen eta zuzenean hartu zuen parte frontean, semea hil ziotelako. Horregatik, pertsonaia berezia da, duintasunez betea.

**Pertsonaia zeken batena emango balizute, gehiago kostatuko litzaizuke?**

Ez, ze guztiok izan gara-eta zeken inoiz, izaeraren alde guztiak dauzkagu gure baitan: krudela, maitagarria, eskuzabala... Barruan begiratuta, asko ikusten da.

**Film historiko askotan hartu duzu parte.**

*La buena nueva* egin nuen orain dela bi urte, eta testuinguru berean kokatzen zen. Memoria historikoaren sasoian gaude, garrantzitsua da eta niri asko gustatzen zait horren parte izatea.

**Gustuko duzu historia?**

Pentsa, Filologia Erromanikoa ikasi nuen! Baina horiek antzinako kontuak dira, gertukoen ditugun gertaera historikoak dira sarri ezkutukoenak.

**Bitxikeria bat: nola daiteke euskal antzezle klasikoa izanda *Goenkale*-n orain arte lanik egin ez izana!**

[Barre] Oraindik baten batzuk badaude, e! Orain dela asko proposatu zidaten, baina une hartan ezin nuen eta orain berriz, bai, eta niretzat paper polita zeukatela esan zidaten. Oso-oso gustura nabil *Goenkale*-n.

SOSLAIA

## Urrezko sekundarioa

Euskal sekundarioen artean urrezko aktore horietakoa da Klara Badiola. Telesailetan ere izan zuen urrezko aroa eta pantaila txikira berriki itzuli da *arraldetarren* artera. *Izarren argia* da euskal zinemaren azken apustu gogorra. Miliziano gogor baten papera da harena. Lanaz harro eta filmak duen ekarpenarekin gustura, zinema aretoetan izango duen harreraren zain dago antzezle donostiarra. Aurreko astean estreinatu zuten filma euskal zinema areto nagusietan.



Klara Badiola, Emelinaz karakterizatua. IREKI

## ai, ene!




**Mutikoa da!**

Jaioberria eta ama zoriontzeko txarteletan, ezin ukatu berritu daitekeenik. "Sartu atzamarra eta ireki" dio txartelak eta horixe mutiko jaioberria zoriontzeko sorpresa. Imajinatu ere ez dugu gura nesken bertsioa zelakoa den!

http://www.nopuedocreer.com

## biharamuna

Marijo Deogracias

### Komunikabide "publikoak"

Ez dira lirikarako une goxoak; askotan entzundako leloa, baina, hala da. **Jasone Agirre** eta **Maite Zurikarai**ri galdetu bestela; doala nire elkartasuna ETBko kazetari bientzako. Gure telebista publikoan **Asier Odriozola**k eta **Andrea Arrizabalagak** aurkezten duten gaueko albistegian, eguenean, esaterako 13 bide agertu ei ziren sozialisten bozeramaileak berbetan; horri aniztasuna deritzo, bai horixe. **Suriok** kargua onartu zuenean Donostiako DV lagata joan zen Bilbo Handira; Urumeako ur lasaiak laga eta Ibaizabalgo ur handitan ez ote zen sartu, susmoa hartuta nabil. Berak igarriko dio, baina baita beste batzuek ere; **Viloria**k politika arduradun kargua hartu besterik ez du egin eta dagoeneko ETBko bi kazetariri espedientea zabaldu diete.



Aniztasuna ez dabil izaten ETBren ezaugarri aspaldian; Radio Euskadin berdintasuna kontuan ez duten bezalaxe, bide batez. **Joseba Arrutik**, Deia lagata irratira pasa zen kazetariak zuzentzen duen irratiaren azkeneko promoak bakarrik gizonezko mordo baten ahotsak batu ditu, politikan emakumerik arituko ez balitz moduan. Hortxe agertzen dira, **Egibar**, **Pastor**, **Urizar**... Dena gizona. Quirogak aspaldian bota dituen perlengatik ote?

## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +15 | +10 |

Laino astunak zeruan eta giro bustia izango dira nagusi egun guztian zehar. Egun oso euritsua izango da.

www.euskalmet.net




Hipermerkatuak
EROSKI
zurekin

Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

www.grupoeroski.es